Xabier Mendiguren

Bizitza homeopatikoak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2008 Xabier Mendiguren
© edizio honena: Susa

Lehen edizioa paperean: 2008ko martxoa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Nel mezzo del cammin di nostra vita...

DANTE ALIGHIERI

BIZITZAREN SENTIMENDU HOMEOPATIKOA

Markos Zapiain eta Arrate Egañari,
beren adeitasun mugagabeagatik

Oier Gorosabeli,
bere gorputz lerdenagatik

Nola iritsi naiz honetara? Errudunak bilatzen hasita, zerrenda luzea osa nezake: Mediterraneoko uharte eguzkitsuak, Espasa Calpe argitaletxearen marketing saila, UEUren laxokeria, UPVren endogamia, Opus Deiren zurrunkeria, Etxegarateko obren atzerapena, Jose Maria Aznarren larderia, Ibarretxeren txepelkeria... Baten batek esan lezake, ibilian-ibilian, Adan eta Ebarenganaino iritsiko naizela horrela, edozer gauza asmatzen dugula geure burua zuritzearren, eta akaso ez du arrazoi faltarik hori dioenak. Dena dela, protagonista bakoitzaren erantzukizuna ukatu gabe ere, esango nuke bizitzaren nire sen-

timendu homeopatikoak izan duela erru nagusia, eta, hitz horiek ezer gutxi argituko zutenez, goazen pausoz pauso, historiaren nondik norakoa azaltzeko.

Ez da erraza nondik hasi asmatzen, baina badakit funtsean nora iritsi nahi dudan eta hori izango dut nire kontakizunaren helburu: aurtengo udan itsasoan egindako kruzeroa; izan ere, 2002 honetako abuztuan hamabost eguneko bidaldi bat egin genuen Anek eta biok plazerezko transatlantiko horietako batean, Bartzelonan hasi eta bertan amaitu, tartean Mediterraneoko hainbat portutan geldialdiak egin eta Greziako uharteak astiroxeago ikusi eta gero. Ane nire neska-laguna da, gero ere izango dut hartaz luzeago jarduteko aukera.

Hitzik ez nekien nik aurretik halako itsasontziez; hobeto esanda, gaztetxoa nintzeneko *Vacaciones en el mar* telesaila ikusi izana oroitzen dut, baina ez zait iruditzen hori oso erreferentzia fidagarria denik ezertarako. Aurrez ezer jakin ez eta urte askoan hala jarraituko nuen seguru asko, Espasa Calperen sari hura izan ez balitz.

Hori azaltzeko, baina, zer edo zer kontatu beharko dut neure lanbideaz.

Liburu-saltzailea naiz ogibidez. Liburu-denda bat dut, neurea, eta bertan egiten dut lana. Gazteagoa nintzeneko eskemak aplikatuz gero, burges koxkor bat naiz, merkatarien klase ertain horretakoa, baina Karl Marxen *Das Kapital*-en tomo guztien gainean zin egin dezaket askoz gehiago irabazten nuela eta buru-kantsazio gutxiago nuela administrazioko langilea nintzenean, orain enpresari txiki bihurtuta baino. Ama Administrazioaren magal goxoa zergatik utzi nuen-eta, luze samarra izan liteke dena batera kontatzeko, eta geroxeagoko utziko dut hori ere.

Liburu-denda bat daukat, beraz. Lihoaren penak konta nitzake orain, bertsio modernoan, eta Charles Dickensen nobela batean baino malko gehiago isuraraziko nuke irakurle sentiberen artean, baina ez dut halakorik egingo, ez orain eta ez gero, adarrik adar joanda basoaren ikuspegia galduko dugu bestela.

Liburu-dendarioi –labur antzean azalduko dut, alor honen berri ez dakienarentzat– banatzaileek bidaltzen dizkigute liburuak; argitaletxe

jakin bati loturik egon liteke banatzaile hori, baina gehienetan argitaletxe bati baino gehiagori eskaintzen die bere zerbitzua; hala denean, argitaletxeak eduki ditzake bere promotoreak ere, beren etxean ateratzen dituzten liburuak bereziki lantzeko eta promozionatzeko. Banatzaile nahiz promotore guztiak gure lankideak dira, nolabait esanda, haiek gabe guk ez baikenuke izango zer eskaini eta denoi interesatzen baitzaigu liburuak ongi saltzea. Baina, aldi berean, gure lehiakide ere badira, liburuaren prezioa zatitzean bati puska handiagoa ematen bazaio txikiagoa geratzen baita bestearentzat; eta, beste alde batetik, elkarren etsai amorratu izaten dira askotan banatzaile batzuk eta besteak, enpresa bateko eta besteko promotoreak, denek nahi baitute ahalik eta tokirik handiena beren produktuentzat, denek estutzen baikaituzte dendariak, beren liburuak aholka diezazkiogun erosleari.

Barkatuko didazu digresio profesionala irakurle maite horrek, Espasa Calperen sariarena azaltzeko argibide batzuk komeni ote ziren iruditu zait-eta. Banoa berriz ere harira.

Espasa Calpekoek ohitura izaten dute urtero halako bidaia exotiko bat antolatu eta bertara gonbidatzeko beren promotore saiatuenak, salmentetan gehien nabarmendu direnak, eta baita beren liburuak bereziki ongi erakutsi eta saldu dituzten dendariak ere; niri, egia esanda, ez zitzaidan burutik pasa ere halako sari bat egokitu zekidakeenik: azken batean, herri batean lan eginda, salmentak beti dira apalak, zerikusirik ez hiriburu handi bateko posibilitateekin. Halaxe komentatu nion urte hartako bidaiaren aukera aipatu zidan Espasako promotoreari.

– Ez da salmenta bakarrik –esan zidan–; irudimena ere saritzen da: eskaparate bat txukun jartzea, interes berezia erakustea...

Irudimena, txukuntasuna, interesa... horiek denak nire dohainak dira, barkatuko didazu harrokeria irakurle onbera horrek. Kontua da ideia hura buru barnean kilika hasi zitzaidala. Ideiarekin batean, aldeko eta kontrako faktore bana erabakiaren balantzan. Kontrakoa, nik ez niela sinpatia handirik Espasakoei. Ez neuzkan begitan hartuta, baina ez nituen begiko ere. Aukeran, erdarazko argitaletxeen artean, nahiago

Anagrama, edo Alfaguara bera, bere taldearen handi-mandikeria eta guzti; edo argitaletxe txikiago eta gustu literario zorrotzagokoak: Acantilado, Pre-Textos... Espasakoak, horien aldean, klasiko samarrak iruditzen zitzaizkidan eta, dena esan behar bada, oso espainolak, eta apur bat fatxak ere bai. Hori, kontrako faktorea. Baina aldeko bat ere bazela esan dut: Aneri halako ibilaldi erromantiko bat eskaintzeko aukera izatea. Urte mordoa generaman batera, estudiante garaian elkar ezagutu genuenetik, hogei bat urte nire kalkuluen arabera, eta bitarte horretan makina bat bidaia eta irtenaldi egin bagenituen ere, denak izan ziren merke-zurrean egindakoak, diruz justu antxean ibili izan baikinen, bai lehen eta bai orain. Eta hogeitik hogeita hamarrera bitartean motxila eta kanpinarekin ibiltzea guztiz natural eta dibertigarria baldin bazen, hogeita hamarretik aurrera apur bat nekaturik eta lekuz kanpo hasi ginen sentitzen, nik uste, eta berrogeiak betetzekoak genituenez, aldatzeko garaia ere bazela pentsatu nuen, behingoz bakarrik bada ere. Eta gure poltsikoak ezin bazuen, zergatik ez aprobetxatu Espasa Calperen sakela be-

teak? Faktore biak balantzan jarri eta, zer nahi duzu esatea, irakurle fidel horrek? Ez zuen alferrik esan gure Axular handiak haragia flako dela, eta nik ere amore eman nion tentazioari, neure buruari esanez oso gutxi zirela irabazle izateko aukerak, baina esperantzari leiho bat irekita utziz, beste poeta hark esan zuen moduan.

Eskaparatismoa nire zaletasun handienetako bat da: pintatzaile frustratua izatearen ordezko bat egongo da hor beharbada, gaztetan akuarelak eta olioak alde batera utzi nituenez geroztik horixe izan baita neure sorkuntza plastikorako alor emankorrena, etxea janztean Anek aukeratu zituen-eta altzariak nahiz koloreak, hau ez da gure etxeko dekorazioaz hitz egiteko tokia baina. Erakusleihoa neure erara moldatzen dut eta, beste harrokeriatxo bat onartzen baldin badidazu, irakurle zintzo horrek, sekula liburu bat erostera sartzen ez diren herritarrek ere behin baino gehiagotan esan izan didate neurea dela herriko eskaparaterik ikusgarrienetakoa. Ez dut oraindik galdu noizbait, edertasun hori aitortzeaz gain, barrura sartu eta zer edo zer erosiko duten itxaropena. Bien bitartean, horrekin eta

neure erosle leialekin konformatu behar. Beraz, Espasaren erronka onartu nuenean, erakusleihoa horren arabera apaintzeari ekin nion, denborarik galdu gabe. Austral bilduma da argitaletxearen ondare nagusia, azalean beti ahuntz baten marrazkia duen hori, literaturako klasiko mordoa atera eta ikasle jendeak betidanik erosi izan duena, moduan eskaintzen baitituzte; orduan nik, sail horretako sorta handi samarra hartu eta, panel batean itsatsiz, ahuntzaren logoa osatu nuen liburu guztiekin. Ponpoxo eta moñoñoa geratu zen, nik uste. Baina honekin irabaziko al dut kruzerorako bidaia?, galdetu nuen neure artean. Eta orduan, Greziako uharteen tentaldiak berotuta, ideia gaizto bat bururatu zitzaidan, eta bururatu ez ezik gauzatu ere bai, Ane kimikarien nazioarteko biltzar batera joana zela aprobetxatu eta gaupasa bat eginda. Gaupasa, tentazioa... ez dakit zer imajinatuko duzun egin nuela, irakurle leial horrek, baina seguru ez duela zerikusirik errealitatearekin. Dena dela, bazterrak nahasten eta korapiloak endredatzen gehiago jardun gabe, kontatu egingo dut, orain

arte inori aitortu ez diodan sekretu isilpeko eta mortala den arren.

Ez dakit data aipatu dudan: 2001eko udazkena zen, Eguberrietara bidean, eta urte osoan zehar –Ibarretxe eta Mayor Orejaren arteko zorioneko hauteskunde haiek zirela eta ez zirela– liburu mordoa atera zuten Espainiako argitaletxeek euskal gatazkaren kontura; zehatzago esanda, euskal abertzaletasunaren kontra; eta argitaletxe horien guztien artean Espasa Calpe nabarmendu zen gehiena. Ezin esango dut liburu haiek saltzeak egundoko poza ematen zidanik, baina ni azken batean profesional bat naiz eta, gainera, ez nago zentsuraren alde; beraz, dendara sartzen zirenen artean Savater, Ussía, Ezkerra edo Gorriaranen irakurleak baldin bazeuden, zergatik ez nizkien ba haien liburuak salduko? Dendan arakatzen hasi eta Espasako perla guztiak atera nituen: Jon Juaristiren zitalkeriak, Mikel Azurmendiren paranoiak, Jose Maria Callejaren zaborrak, Arzalluzi buruzko libeloak... Horiek guztiak eta beste hainbat paratu nituen bigarren panel baten gainean, ez edonola baizik eta liburu-azal horien bitartez «Basta Ya» hitzak

osatuz, handi, argi eta ikusgarri. Gaueko ordu txikiak zirela baliatuz eskaparatea jantzi, argi guztiak piztu, kanpora atera eta argazki-karrete osoa bota nuen. Espainiako bandera edo halako detaile konstituzionalistaren bat eranstea ere pasatu zitzaidan burutik, baina gehitxo izango zen eta arrazoiz esaten dute bizkaitarrek: «lar, txar».

Antxintxika eta arineketan, erakusleihoa hustu eta ahuntzarena apailatu nuen berriro: *Lazarillo de Tormes, Novelas ejemplares, Rimas y Leyendas, San Manuel Bueno Mártir, Las inquietudes de Shanti Andía*... pentsatzen jarrita, aurrekoa bezain espainola zen hizkuntzaz eta kulturaz, baina ez horren erasokorra neure herritarren begietara, ezta horren merituzkoa ere Espasako nagusien pentzutara.

Bi eskaparateen argazkiak bidali nituen Espasa Calpeko marketing sailera, erakusleiho biko denda banu bezala. Promotoreak berak ziurtatu beharko zukeen denda benetan halaxe jarria zegoela, baina Gabon garai hartan lanpetuegi zebilen bere eskualdeko eskola, liburutegi eta dendak banan-banan bisitatzen, eta telefonoz egin-

dako liburu-eskari eta zorion-agurrarekin konformatu zen. Besterik zer nahi nuen bada nik?

Saria nahi nuela esan beharko dut, eta saria egokitu zitzaidan. Handik hilabete pare batera, Madrildik deitu zidaten marketing saileko buruek eta, bidaiarako gonbidapena egiteaz gainera, zorionik beroenak eman zizkidaten, hiritar gisa erakutsi nuen adoreagatik. «Por su coraje cívico» gogoratzen dut esan zidatela, bost duroko beste hitz askoren artean.

Orduko tranparen emaitza ote da nire ondorengo zoritxarra? Ala neure burua espainolismoari saltzeak ekarri dit horrelako ordaina? Ikuspegi bata zein bestea bekatuaren eta zigorraren teoria kristauaren fruitu dira, eta ez dut halakorik onartu nahi, barka nazala Fedor Dostoievski gizajoak. Bizitzaren sentimendu homeopatikoa dudala esan dut lehenago, ordea, eta hitz horien zentzua argitu beharko dut, sekta sasizientifiko bateko kide naizenik pentsa ez dezazun, irakurle saiatu horrek.

Homeopatikoa deitzen diot nolabait deitzearren, Ane bera ere farmazia homeopatikoetako bezeroa baita aspaldi samarretik, giltzurrunetan

dituen arazoekin hobeto moldatzen laguntzen diotelakoan, erabateko federik ez badauka ere. Homeopatiko deitzen dudan bezalaxe deitu nezakeen aleopatikoa edo «Lao Zi-ren ikuspegia», haren *Dao De Jing* klasikoan ederto geratu baitziren adierazita Ying eta Yang aurkakoen osagarritasuna eta denok helburu beharko genukeen harmonia unibertsala; baina, halako kontzeptuak erabiltzen hasiz gero *new age* eta esoterismo merkearen zakuan sartuko nauzu, irakurle sufritu horrek, eta inondik ere ez nuke nahi halakorik. Neure lotsak eranzten eta miseriak erakusten hasi naizenez gero, erants dezadan ez dakidala zer saltzeak ematen didan amorrazio handiagoa: edo Isabel San Sebastianen gezurtekak, edo autolaguntza deitzen zaion letra-zabor hori dena; tamalez –lehen ere aipatu dut ni profesionala naizela eta zentsuraren kontrakoa–, bi liburu mota horietatik dexente gehiago saltzen dut, konparaziorako, Koldo Izagirre edo Philip Roth-en obretatik baino.

Taoismo, homeopatismo edo dena delako horrekin esan nahi dudana hobeto ulertzeko, eguneroko bizitzako adibide bat erabiliko dut: badi-

tut nik bi iloba, nire arreba baten neska-mutikoak; eta beste bi iloba-antzeko, Aneren ahizparen neskatoak. Ba, nire arrebaren etxera baldin banoa, esaterako, nire iloba Maiderren urtebetetzea delako, harentzako opari bat eramanez gero beste bat hartu ohi dut, hutsik egin gabe, Oierrentzat; eta alderantziz. Honaino ulergarria eta normala da dena, bakoitzak bere urtebetete-eguna izan arren umeak erraz gaitzitzen dira-eta, edozein txikikeriarekin. Marka, baina, hau da: nire arreba Mirenen etxera joan banaiz eta honen ume biei oparitxo bana egin, biharamunean ez bada aste horren barruan behintzat, Aneren ahizpa Josunerenean agertzen naizela, Garazi eta Uxuerentzako opari bana hartuta, nahiz eta hauen etxean inork jakin ez bezperan nire beste ilobenean izan naizela opari banatzen. Txepelkeria? Beharbada. Irrazionalismoa? Seguru asko. Baina nork bere maniak eta kontraesanak ditu, eta ni, sistema horren bitartez gizarteak ezarritako injustiziak eta naturak eragindako desberdintasunak konponduko ez ditudala jakin arren, lasaiago sentitzen naiz neure kontzientziarekin. Amen.

Itsasaldi miragarri hori irabazi nuela jakin bezain laster, errezeta homeopatiko bat aplikatuz bezala, Txalaparta argitaletxeko liburuz bete nuen eskaparatea; Pamielak Nafarroa oso, maritimo eta birkonkistatuaz atera dituen obrak nabarmen kokatu nituen han eta hemen; euskal liburuek gaina hartu zieten erdarazkoei kristaletik begiratzen zuenarentzat. Hori egitearekin batera, otoitz egiten nien Kubako Xangó eta Ezkioko Ama Birjina ukatuari, Espasa Calperi ez zekiola bururatu sariaren merezient egin ninduen eskaparatearen argazki sekretu hura inon plazaratzea, Basta Ya-koen apologia hori kalean zabalduz gero Txalapartaren propaganda baino pedigri hobea beharko bainuen gure herriko jarraitxuen suminetik babesteko, asmo ironiko eta salatzailearekin egin nuela sinesten ez bazidaten bederen. Liburu-dendetako Lagun-bis bihurtu behar ote nuen kruzero batean serbituriko lenteja platerkada baten truke? Zorionez ez zen halakorik izan, baina Ying-Yang aurkarien arteko harmonia unibertsalaren zaindariari nire zortea handitxoa iruditu zitzaion, nonbait, orduantxe gertatu baitzen Aneren auto istripua. Zorionez –eta

lerro gutxitan bigarrenez erabili dut hitz hau–, Aneri ez zitzaion ezertxo ere pasatu, kotxea txatarrerako gelditu zen arren. Aseguru-konpainiaren hitzetan, «siniestro total».

Oraindik Greziako itsaso epeletara iritsi gabe haria galtzen ari naizela leporatuko didazu akaso, irakurle gogaitu horrek, baina uste dut iritsi dela kontakizun honetako beste protagonista aurkezteko unea: Ane Lizarraga, aurrerantzean Ane, nire bizitzako laguna, nire bihotzeko kuttuna, momentu on eta txarretako neska-laguna.

Ez dut love story erromantiko bat berritu nahi, bikote guztiek bezala bere gorabeherak izan baititu gureak ere, baina esango nuke aski ongi joan zaigula, oraintsu arte bederen. Aspaldi hasi zen gure artekoa, lehen iragaitzaz aipatu dudan moduan, eta Udako Euskal Unibertsitateari zor diogu elkar ezagutu izana; UEUri, edo gizakumeon bizitzekin dado-partidak antolatzen dituenari, halakorik balego, ez dut uste baina.

Nik Euskal Filologia ikasten nuen Gasteizen; Anek Kimika, Donostian. Ni euskal dialektologiazko ikastaro batean apuntatu nintzen uda hartan; Ane, ez dakit ziur baina, kimika organi-

kozko zerbaitetan, Ane –niretzat– beti aritu baita kimika organikoan sakontzen. Biontzat izan zen estreinaldia: esan nahi baita, lehenengo aldia genuela Larraonako *colegio mayor* hartan. Euskalkietarako interes dexentekoa nuen nik orduan, eta Anerena kimika organikorako ez zen izango txikiagoa, baina gure motibazio nagusia harago zihoala esango nuke: batetik, noski, euskal giro jator eta labeldun batean parrandaz parranda ibiltzea; bestetik, berriz, guztiz akademikoa izan gabe ere, bazen eragile jasoago bat: Euskal Herri berri bat eraikitzera zihoan *intelligentsia*-ren partaide edo gutxienez bidaide izan nahia. Asmo bikoitz hori irudi batean laburbiltzekotan Joxerra Etxebarria aipatuko nuke, bere praka motz eta udako txankletekin, batetik fisika nuklearreko klaseak serio emanez eta bestetik bertsolaritza taldean jo-ta-fuego jardunez, goizez nahiz gauez beti alai eta beti lanean, Oskorriren «Guretzat berdin dira» kantuan bezala, xakearen misterioez edo begetarianismoaren ongaitzez hitz egiteko gertu, arlo bakoitzeko espezialistekin bezala baita ni edo Ane bezalako gaztetxo ausart eta ezjakin pare batekin ere. Bitxia

da gero: urteen talaiatik, eta objektiboak izanda, guztiz txiroa zen orduko euskal kultura, hutsunez betea gure intelektualitatea, baina mundua gurea zela sentitzen genuen, ezerezetik abiatuta Parnasoaren gailurra ukituko genuela geure nahiaren eta lanaren indarrez. Bizitzaren filosofia homeopatikoa aplikatuta ez zitzaigun arrazoirik falta, hainbat mendetako gabezia eta zapalketen ondoren etorkizun oparoagoa zor baitzitzaion gure hizkuntzari. Hala eta guztiz, ez diot gure herriari opa Joxerra Etxebarria izatea bere paraderoaren sinboloa. Zer gerta ere.

Iruñeko gauek jarri zuten gure maitasun-hastapenerako dekorazioa: Larraonan bertan hasieran, afalondoan sortzen zen giro lasai eta berriketarako apropos hartan; Parte Zaharreko tabernetan gero, hiri guretzat ezezagun hartan egindako espedizio basati samarretan; eta izena inoiz jakin banuen aspaldi ahaztu nuen herri koxkor bateko jaietan azkenik, Nafarroako geografia zabalak eta udako santu patroien zerrenda are zabalagoak eskainitako aukera oparoan. Handik aurrera, asteburuetako nobioak izan ginen Ane eta biok: batzuetan ni joaten nintzen haren herri-

ra, besteetan bera etortzen zen nirera, eta, uda iristean, biok joaten ginen UEUra. Horrela pasatu ziren urteak eta amaitu ziren gure karrerak.

Ohartzen naiz hau ez dela gauzak kontatzeko modu taxuzkoa. Oroitzen naiz nola, gure dendan izaten ditugun liburu-aurkezpen eta idazleekiko solasaldi horietako batean idazle batek esan zigun –eta ez noa haren izena esatera, nire trakeskeriaren erantzule egin nahi dudanik pentsa ez dezan, ez idazle hark ez beste inork–, esan zigun bada delako idazle hark, kontakizun bat erreal eta sinesgarri egiteko funtsezkoak direla xehetasunak; xehetasunik gabe hotz eta abstraktu suertatzen den testua, benetako eta konkretu bihurtuz doala detaileak gehitu ahala. Hortaz, nik orain zertzelada batzuk sartu beharko nituzke gure harremanaz, bakoitzaren izaeraz, tartekako liskarrez edo goxoaldiez. Agian bai, baina Bartzelonan daukagu Espasa Calperen kruzeroa zain, eta horra iritsi beharko dut noizbait. Oroitzen naiz baita ere beste idazle batek –eta honen izena ere isilpean gordeko dut, arrazoi beragatik– aholku osagarria eman zigula, hots, inportantea eta pertinentea ez den guztia kendu egin

behar duela idazleak, ezabatu, jakintzat jo, elipsi bitartez gainditu. Hemen, adibidez, hurrenkera kronologikoari jarraituz gero, nire soldadutzaaldiaz hitz egin beharko nuke, baina nola kontatu nahi dudan istoriorako ez zaidan iruditzen ez funtsezkoa eta ez pertinentea, jauzi bat egingo dut urtebete penagarri haren gainetik eta aurrera segituko dut.

Ni ez nintzen izan ikasle azkar, jakintsu, saiatu eta distiratsu horietakoa. Txukun antzean moldatu nintzen, hori bai, eta urtez urte gainditu nituen ikasgai guztiak, etxekoen pozerako eta nire lasaitasunerako; baina, UEUra eraman nindu en dialektologiarekiko interes goiztiar hori gorabehera, ez nintzen bereziki nabarmendu ez testu zaharren azterketan, ez hizkuntzalaritzan orduan moda-modan zegoen arbolagintzan, ez beste inongo arlotan. Karrera amaitzean nire ikaskide bizkorrenek linguisten Meka Berria bihurturiko Emaitira joatea amesten zuten bitartean (Emaiti, kosta zitzaidan jabetzea baina, M.I.T. zen: Massachusetts Institute of Technology, non Noam Chomsky buruargi eta guru garbiak bere zientziaren infusioak prantatzen ziz-

kien mundu osotik jakin-gosez inguraturiko dizipuluei), bitartean diot, nik nahikoa nuen lanpostu itxurazko bat topatzea. Ane, berriz (eta honetara nentorren), ikasle bizkor, argi eta saiatu horietarikoa zen, zenbat eta gehiago ikasi orduan eta gehiago sakondu nahi zuena, eta non egongo zen hobeto Jakintzaren Tenplua deritzan horretan baino? Ikerketa-beka eskatzera animatu zuten kimika organikoko departamentukoek, urte gutxiren buruan bera ere bertako irakasle bihurtuko zen segurantza osoan.

Unibertsitatean sartzeko sistemaz bi hitz egin beharko nuke hemen. Ez ikasleak sartzeko sistemaz, selektibitatea izeneko hauta-proba hori aski ezaguna baita; irakasleak hautatzeko modua aipatu nahi nuen, askoz jende gutxiagok izango baitu horren berri. Borondate oneko irakurleak usteko du arlo bakoitzeko espezialistarik onenak eta jakintsuenak hartzen direla, etorkizuneko profesionalak eurek prestatuko dituztenez gero; gaizki pentsatuek, berriz, ohi dutenez pentsatuko dute entxufismoak leku nabarmena izango duela hor, norbaiten lehengusu, koinata, adiskide edo gomendatu izateak munta gehiago du-

keela espedientearen distirak baino. Egia ez dago ez batzuengan ez besteengan, ezta epelek bertute-lekutzat daukaten erdibidean ere; gauzak apur bat konplikatuagoak dira, izan ere, eta nolabait izendatzearren «feudala» deituko dugun metodo batetik pasatu beharra dauka Unibertsitatean sartu nahi duenak; instituzio hau ere Erdi Aroan sortua izanik, ez genuke zertan izendapenaz harritu.

Erdi Aroan, lanbide bat ikasi nahi zuen gazteak ofiziale maisu batengana jo behar zuen, bere asmoaren berri eman eta bere burua aurkeztera; maisu horrek, ikaslea onartuz gero, bere menpeko eta zerbitzari hartuko zuen; hortik aurrera, zenbait urte irauten zuen prozesu batean, era guztietako lan eta zerbitzuak egingo zizkion aprendizak maisuari, eta honek trukean, mantenurako sos batzuk emateaz gainera, lanbidearen antze eta trikimailuak erakutsiko zizkion; ondo bidean eta okerrik ezean, urte horiek guztiak iragan ondoren, ofizialeen gremioak bere artekotzat joko zuen gaztea, honek bere kasa jardun ahalko zuen ogibide horretan, eta baita ikas-

le saiatuak bere babesean hartu ere, zahar-gazteen gurpilak aurrera egin zezan.

Belaunez belaun, hainbat mende iraun zuen sistema horrek, eta hala ikasi ohi ziren lanbideak iraultza industrialaren aurreko aroan: errementari eta arotz, ferratzaile eta aiztogile, tindatzaile eta jostun... Gero kapitalismoa etorri zen, sozialismoa ere bai lurralde batzuetan, sindikatuak, lan-kontratuak, gizarte segurantza, abokatu laboralistak, enpresa-komiteak, legeria sozial gutxi-asko progresistak... eta horiek denek pikutara bidali zuten gure antzinako hirietako gremioen sistema kuttun hori. Baina horra non birsortu den arkeologia feudalaren hondakina zirudien hauta-modu bitxi hori, non-eta aurrerapenaren mintegi eta zibilizazioaren habia omen den Unibertsitatean. Hemen ere, bere burua irakasle izateko dohatua eta sartzeko sistema horren on-gaitzak eramateko gogotsu ikusten duen gazteak katedratiko baten babesa bilatu behar du, honek zuzentzen duen departamentuan bekadun postu bat eskuratzeko (bekaduna da lehengo aprendizaren ordezko); urte batzuk emango ditu horrela, katedratikoaren esanetara

betiere, bateko bere tesia osatzen, besteko agintzen dizkioten lan koxkorrak burutzen, jornal ziztrin baten truke, egunen batean bera ere irakasle bihurtzeko itxaropenean: irakasle laguntzaile lehenengo, titular hurrena eta, merituzko karrera luze baten osteko erramu-koroa gisa, katedratiko egunen batean.

Egia da irakasleak hautatzeko prozedurak guztiz ireki eta demokratikoak direla itxura batean, edonongo edonor aurkez litekeela berorietara eta curriculum onenaren arabera eman behar dela plaza bakoitza, hautagaien bibliografia, ikerketak, notak, hizkuntz ezagupenak eta bestelako merezimenduak banan-banan pisatu eta gero. Baina egia da halaber –Unibertsitatean guzti-guztiek dakiten baina hortik kanpora inork aipatzen ez duen egia–, irakasle-postu baterako deia egiten den orduko jakiten dela nori emango zaion, departamentu horretako zein aprendizek gainditu duen urtetako gurutze-bidea, eta berdin zaiola askoz ere espediente, argitarapen, prestakuntza eta sursunkorda hobeak dituen beste lehiakide bat aurkezten bada ere: etxeko neska edo mutil saiatuari esleituko zaio delako plaza

hori, ez baititu hainbeste urte morroi-lanean alferrik pasa izango, gizajoak.

Sistema hori bidegabea dela? Bai noski. Benetako balioaren ordez menpekotasun zintzoa saritzen duela? Dudarik gabe. Ikasle jendearen esplotazio lotsagarri eta duintasungabea bultzatzen duela? Tontoenak ere ikusten du. Endogamia hori Unibertsitatearen beraren kalitatearen kaltetan doala epe ertain eta luzera? Bistakoa da. Orduan, zergatik irauten du sistema feudal horrek? Zergatik ez du inork salatzen? Ba, irauten du, sistema itxi, ondo egituratu eta orekaren bermatzailea delako; eta ez du inork salatzen inori komeni ez zaiolako: departamentuak manejatzen dituztenek abantaila nabarmenak ateratzen dituzte; hain mafiosoak ez diren edo bere kasa dabiltzan irakasleak isilik gelditzen dira, dela korporatibismoz, dela lasai bizitzearren; eta irakasle bihurtzeko gai izan litezkeen ikasleek, berriz, metodo feudala irensten ez badute ospa egiten dute, eta beste erremediorik ezean irensten dutenek, lehen pausoa emanez gero, ezinezkoa dute gero atzera egitea, urtetan bere harreman-sarea lantzen aritu eta gero.

Sistemak baditu, ordea, bere zuloak eta arrakalak. Bat, zirkunstantziala eta noizbehinkakoa, katedradun arraro batek, eskalafoiari kasurik egin gabe, onena iruditzen zaion curriculumaren alde egitea erabaki, eta asmo hori aurrera ateratzea lortzen duenean. Bestea egiturazko arazo bat da, eta alde horretatik konpongaitza, txiringitoak behar bezala funtzionatuko badu Unibertsitatearen etengabeko hazkuntza eskatzen baitu: departamentua irakaslez hazi eta puztu litekeen bitartean, ongi: beti izango da txoko bat bekadun bakoitzeko, eta postu bat urteak eman dituzten dizipulu saiatuak saritzeko; irakasle berriak kontratatzeko diruak amaituz gero, berriz, zaharrenei erretiroa iritsi arte itxaron behar inor sartzeko, eta doktorando-ikerlaribekadun-ordezkoirakasle erromesaldi luzea egin duen koitaduak etxera joan beste erremediorik ez du izaten, hogeita hamabost urterekin bere lehenengo lanpostu normalaren bila, ikerketa teorikoan izugarrizko esperientziaz baina lanbide praktikoari begira ezdeus sentitzen dela.

Bi arrakala horien konbinazioak aldatu zion bizimodua Aneri, eta baita niri ere, ondoren azal-

duko dudan arrazoiagatik. Esan liteke metodo feudalaren bi hutsuneak batera gertatzea edonori bizitzaren sentimendu homeopatikoa indartuko liokeen seinale esanguratsua izan zela, baina baita txiriparen ondorio hutsa ere. Batera zein bestera, halabehar horrexek ekarriko zuen, ibilian-ibilian, Aneren auto-istripua, Mediterraneoko kruzeroaren iragarpenarekin batera gertatu zena. Barkatuko didazu, irakurle luzetsi horrek, Mediterraneora iritsi aurretik bidean apur bat luzatzen banaiz; dagoeneko alferrik izango dut gure liburu-dendatik igarotako inongo idazleren aitzakia egitea baina, Unibertsitate feudalaren parentesi luzea amaituta, lehengo hariari heldu behar diot berriro, hots, ikasketetatik eta soldadutzatik lizentziatu ondoren lanean nola sartu nintzen.

Inolako epikarik ez abenturarik gabeko kontua izan zen, eta batere penarik gabe esaten dut. Titulua eskuratu, izena eman Hezkuntzako ordezkaritzan (irakasleon soziolekto partikularrean «delegaritza» izendapen berezia daukan toki horretan), eta hurrengo ikasturtean lanean ari nintzen institutu batean, hainbat buruzpide

administratibo eta burokratiko izapidetu, xedatu edo denadelakotu eta gero. Euskal Filologiaren urrezko aroaren azken urteak ziren, 80ko hamarkadaren erditsuan, eta irakaskuntzako sare publikoan di-da batean sartzeko zortea izan nuela aitortu behar dut, nahiz eta beste di-da batean ohartu nintzen irakaskuntza ez zitzaidala askorik gustatzen. To, homeopatia.

Ez gustatze horren zer-nolakoaz eta zenbaterainokoaz jabetzeko urte batzuk behar izan nituen, hala ere. Hasieran ez nengoen gustura, urduri nenbilen, eta hasiberria izateari egozten nion nire artegatasuna, pasatuko zitzaidala esaten zidaten lankide guztiek. Pasatu, ez zitzaidan egin, baina denetara ohitzen zara, denborarekin. Bigarren urtea, lehenengoa bezala, Bilbo Handiko eskualdean egokitu zitzaidan, A eredu gaizki asimilatu batetik zetozen neska-mutil jator baina basati samar batzuei hizkuntzaren hasi-masiak buruan sartu nahian. Horretarako ibili ote naiz ni –pentsatzen nuen tarteka– Añibarro eta Mogelen bizkaiera-ereduen desberdintasunak ikasten, edo o/u/ü bokalen arteko gorabeherak zuberera klasikoan, edo Larramendiren eragina hiztegigin-

tza modernoan, edo nik al dakit? Zertarako eta arbelean diot/diozu/dio esplikatzen ibiltzeko, astakirten haietakoren batek «corta el rollo, tío» esan edo, okerrago, klarion zati bat botatzen zidan bitartean! Deprimitu egiten nintzen, eta deprimitzen nintzelako neure buruarekin haserretzen nintzen. Izan ere –saiatzen nintzen neure buru deprimitua animatzen– egiten ari nintzena, distiratsua izan gabe ere, guztiz premiazkoa zen gure herriaren geroari begira, immigrazioaren seme-alaba edo biloba erdaldun haiek geureganatzetik jaioko baitzen biharko Euskal Herri berri eta euskalduna. Eta gainera –segitzen nuen neure burua konbentzitzen–, zer eskubide dut nik kexatzeko, lan egonkor samarra eta soldata on bat edukita, nire ikasle hauetako askoren gurasoak langabezian daudenean, beren lanpostuaren alde borroka gogorrean jardun eta gero Euskalduna ontziolan eta Deustuko zubian?

Ez dut esango neure burua poztea lortu nuenik, baina eutsi nion behintzat, koloka eta nolahala, udako oporren esperantzarekin: udako opor luzeak aurpegiratu ohi dizkigute irakasleoi bestelako lanbideetako lagun eta ezagunek; ezin

ukatuko dut haiek ere beste horrenbesterako eskubidea dutela edo behar luketela, baina argituko dut irakasleok garela, opor luzeenak izateaz gainera, opor horien premia larriena sentitzen dugunak eta urtean zehar oporrekin amets gehien egiten dugunak; ez hainbeste oporren beraien kilikamenaz, nola ikasleez libratzeko itxaropenaz.

Hurrengo ikasturterako leku-aldaketa lortu nuen, eta delegaritzaren dado ikusezinek Euskadi idiliko eta ametsezkoaren bazter goxo batera eraman ninduten: mendi berde, baserri txuri, ibar estu, fabrika ketsu, eta RH purueneko neska-mutilak, euskaltasunaren esentziak eta ergatiboaren xarmak amaren bularretik edoski dituzten horietarikoak. Baldintzarik xinpleenak arbeleratu ordez *badadi* eta *baledi*-ren arteko ñabardurak azaltzen imajinatzen nuen neure burua, Leizarraga eta Axularren hizkuntzen arteko konparaketak talde-lanean egiten, Lizardi eta Atxagaren baliabide poetikoen balizko loturak analizatzen...

Nire itxarobide eta espektatibak goregi jarri nituela? Ados. Kokolo hasiberri eta inuxentea

nintzela? Ados horrekin ere. Hala ere, ez nuen espero urte gehiena aditz ariketak egiten pasa beharko nuenik, Gotzon Garateren nobelak baizik irakurri nahiko ez zituztenik, eta Txomin Agirreren kostunbrismoaren ezaugarriak azaltzen hasi orduko «corta el rollo, tío» bota behar zidatenik, Ibar Ezkerreko ikasleena bezalako gaztelania perfektuan.

Ezin esango dut Barakaldo eta Somorrostroko neska-mutilen mira sentitu nuenik, baina pare bat gauza behinik erakutsi zidan paraje euskaljator hartan emandako urteak: bat, lehendik ere jakin beharko nukeena, Euskal Herri labeldun eta postalezko hori ere zenbateraino dagoen azpiak jana eta erdalkeriak joa; bestea, irakaskuntzarekin neukan konponduezina uste baino sakonagoa zela, euskaldun berri bihurtzeko bidean trabaturiko ikasleekiko komunikazio-arazoa baino harago zihoana. Juantxo izeneko filosofia-irakaslearekin erdibanatzen nuen pisura iristen nintzenean, besaulkian plof etzatea zen nire helburu bakarra, eta opor urrunegiekin amets egin ordez astebururako planak egiten nituen Anerekin telefonoz. Ez dakit tristura profesionalak eraginda-

ko malenkonia amodio-minarekin nahastu ote nuen –nire kasuan paretsuak izan zitezkeen sintomak–, kontua da Anerekiko urruntasunari egotzi niola astelehenetik ostiralera abailduta nindukan goibelaldia, eta ahal bezain laster harekin bizitzeko planak egiten hasi nintzela.

Anek bere gurasoenean jarraitzen zuen, Unibertsitateko laborategian bere probak, saioak, ikerketak eta abarrekoak egiten zituen bitartean. Beste alor batzuk ere probatu ondoren, Taxolaren deribatuak ziren orain bere ikergai nagusia; behin edo behin saiatu zitzaidan delako substantzia horien nondik norakoa azaltzen, baina kamutsegia nintzen ni, edo hutsune handiegia neukan kimikaren ezagupenean, ez bainion tutik ere ulertzen, ez-dakit-zer «antikantzerigenoa» zela izan ezik.

– A, hortaz, minbiziaren kontrako txerto bat deskubritu behar duzue? –esan nion pozez beterik, Pasteur edo Fleming berriaren senargaia izatearen harrotasunez.

– Txertorik ez, inondik ere; gurea oinarri-oinarrizko ikerketa da, ondorengo garapen eta aplikazioetarako.

– A –esan nuen, ulerkor baina apur bat dezepzionaturik.

Bitxia zen gu bion egoera: nik lanpostu on bat neukan, baina ez nengoen gustura; Anek ez zuen txakur handi bi besterik irabazten, baina pozik bizi zen, Taxol delako horrek, minbiziaren kontrako ahalmenez gain, bizi-pozaren sekretua baleuka legez. Hortik abiatuta erraza litzateke materialismoaren kamutsa eta bizimodu espiritualaren aberatsa goraipatuko lituzkeen diskurtso polita botatzea, baina urrun nigandik, arren, horrelako klixeak eta merkekeriak.

Aneren aldean, esan berri dut, ederki irabazten nuen nik, baita gehiago gastatu ere, errentan bizi bainintzen beste irakasle batzuekin batean, eta autoa ere erosi bainuen, asteburuetan etxera joateko eta Anerekin batetik bestera ibiltzeko. Gastuak gastu, aurrezteko modua ere egin nuen, eta etxebizitza bat erosten hasi nahi nuen; Ane eta bion maitasunaren habia, klixea izateaz gainera kursia ere baden esamoldea barkatzen badidazue.

Halako batean, eta pertinenteak ez diren datu eta urteak jango ditut tartean, lortu nuen

institutu batean plazaren jabe izatea, oposizioak gainditu eta gero. Leku egokia iritzi nion bertan geratzeko, neurriz polita baitzen herria eta ongi komunikatua, nire eta Aneren bailaren erdibidean. Eraikitzen ari ziren etxebizitza baterako sarrera ordaindu, eta amaitzen zutenean bertara bizitzera joateko eskatu nion Aneri.

– Baina nik ez dut irabazpiderik –esan zidan–. Datorren urtean agian, plaza aterako balute...

– Berdin dio. Nirea dena zurea ere bada, ezkontzetan bezala.

– Ezkontzeko eskatzen ari al zara?

Ez ginen ezkondu, baina paperekin nahiz paperik gabe berdintsuak dira denentzat bizikidetzaren on-gaitzak; orriak ez ezik eleberri osoak idatzi izan dira ezkonbizitzaren gazi-gozoez, eta beraz salto batean pasatuko ditut gu bion elkarbizitzari dagozkionak, ez lotsaz eta herabez, geroxeago kontatuko baititut pasadizo ahalkegarri askoak, baizik eta nire istorio honetan aurrera egin behar dudalako, Bartzelonako portura iritsiko banaiz.

Bizimodu lasaia izan genuen zenbait urtetan: Ane Unibertsitatean, Taxolaren deribatu haietan

zer aurkituko eta departamentuan berarentzako txoko bat non kausituko (ez nuke jakingo esaten bi deskubrimenduetatik zein zen zailagoa), eta ni bitartean institutuan. Bizitza sentimentalaren oreka hori lortu eta gero amaitu egin zitzaizkidan aitzakiak, eta aurre egin behar izan nion egia mingarri bezain sinple honi: ez zitzaidan gustatzen klaseak ematea. Ia inori ez zaiola gustatzen aurpegiratuko dit baten batek, eta ea nork maite duen lan egitea. Apal baina argi erantzungo diot aurpegiratzaile horri: ohiko asperduratik eta bokazio faltatik harago zihoan nire ezinegona, lanbideari nazka hartu eta ikasleak gorrotatzeraino. Beste erremediorik ez neukan ordea: lehendik ere lana uzteko borondaterik edo aldatzeko aukerarik izan ez banuen, are gutxiago orain, etxebizitzaren hipoteka ordaindu behar bainuen hilero-hilero, eta Aneren ardura ere neure gain hartua bainuen, bera guztiz sinetsita zegoen arren gutxirako izango zela, aurki aterako zela bere zorioneko postua, departamentuen arteko gerratxo batzuk konpondu eta errektoregoan iltze egokian jo bezain laster.

– Lasai –esaten nion nik–, horrela ere ondo gaude.

– Baina nik ez dut inoren menpe bizi nahi.

Nik protesta egiten nuen, ez zegoela inondik ere nire menpean, baina hortik aurrera eztabaida nahasi batean korapilatzen ginen, batetik errealizazio pertsonalerako beregaintasun ekonomikoak duen garrantzia agertzen baitzen, bestetik amodioak berezkoa duen eskuzabaltasuna; soka desberdinegiak inondik ere txirikorda bat egiteko, eta mataza nahaspilatu bat geratzen zitzaigun bihotzean eta urdailean.

Egia da ordea ondo geundela. Elkarrekiko bizitzaren aldirik goxoena izango zen hura, ezer apartekorik egiten ez bagenuen ere. Agian horrexegatik. Unibertsitatetik itzuli eta gero ere paper artean segitzen zuen Anek, hartarako egokitu zuen gelatxoan, tesian buru-belarri murgildurik baitzebilen garai hartan, hura amaitu nahi eta amaitu ezin luzean. Nik, berriz, haren ondoko egongelan ematen nituen iluntzeak, telebista itzaliaren aurrean, besaulki eroso batean hondoratu eta nire afizio deskubritu berrian dzanga igerian: irakurketan, alegia. Liburuekin izan

dudan harremana argitzeko, baina, beste parentesi bat zabaldu beharko dut, labur izateko asmo tinko eta agintza zintzoarekin.

Orain besterik iruditu arren, txikitan eta gaztetan ez nintzen bereziki irakurzalea izan. Batxilergoa ikastean letretatik jo banuen, hauekiko amodioak baino pisu handiagoa izan zuen zientziekiko arbuioak (horretan arrazoi pixar bat eman behar Aneri, letretako guztiak alferzorrien zakuan sartzen gaituenean); filologiarako hautuan ere zerikusi estua izan zuen geroko lanpostu errazaren itxaropenak, «Aitorren izkuntz zarrarenganako» zaletasunarekin batean; karreran irakurri nituen, bai, irakurri beharrekoak, ez dut esango hoztasunez, atsegina ere izaten bainuen, baina apunteak leitzen diren interes profesional berberarekin. Ikasi, ikasi nuen zerbait literaturaz, autore kanonikoez batik bat, gustatu beharreko haiexek gustatzen baitzitzaizkidan, neure kasako aurkikuntza berrietan arriskatu gabe.

Juantxori esker hasi ziren aldatzen nire gustuak. Juantxo hau, lehenago ere aipatu dut, postaleko herri labeldun hartan ezagutu nuen, bera ere institutuko irakasle, bera ere erbestean, biok

pisu berean egokitu ginenean. Euskarako irakaslea ez baizik filosofiakoa zen bera, baina euskal literatura nik baino hamaika aldiz hobeto ezagutzen zuena, bai egile klasikoak eta bai momentuko sortzaile berriak. Atxagak *Obabakoak* atera zuen garaian izan zen hura, 80ko hamarkada amaieran, eta Juantxok kutsatu egin zidan bere irrika, beste zereginik ere ez baineukan herri hartan, eta pisuan telebistarik ere ez, Juantxok bere militantzia intelektualean erabaki eta nik neure esnobismo sinpatikoan onartu nionez, urteetako nire teleadikzioarentzako antidoto homeopatiko egokia izango zelakoan.

Euskal idazleak ez ezik erdarazkoak ere irakurtzen hasi nintzen berehala, Juantxok uzten edo gomendatzen zizkidanak hasieran, nik neuk eskuratutakoak ere bai, arian-arian, neure gustu eta irizpideak finkatu ahala. Gero, liburu haietaz eztabaidatzen genuen Juantxok eta biok, ardoa, kafea eta pattarra nahasten ziren gau luzeetan, sukaldeko mahaian bertan, argumentuaren goiti-beheitiak, teknikaren katramilak eta mezuaren trikimailuak aztertzen genituela. Nire unerik gozoenak ziren afalondoko solas literario

horiek, goizeroko eskola mortalekin kontraste ezin mingarriagoa egiten zutenak. Ikasturte hura amaitu zen eta Juantxo eta biok bereizi egin gintuen trasladoen kutixi halabeharrezkoak, baina betiko geratu zitzaizkidan itsatsita liburuekiko maitasuna eta, irakurtzean sentituriko atsegina berritzeko edo biderkatzeko bide gisa, liburu haiexei buruz berba egiteko zaletasuna.

Ane ez zen berez liburuzalea; ezta kamuts-kamutsa ere. Esan nahi baita, bere arloko gauzak irakurtzen zituela, nola ez, eta horretaz gain, oso aldian behin, nobelaren bat edo beste; baina horretarako ere, nire aholkuak baino nahiago izaten zituen bere departamentuko lagunenak eta, horrenbestez, Ken Follett, Paulo Coelho eta antzeko best sellerrak irakurtzen zituen nik utzitakoak baino sarriago, eta euskarazkoak lantzean-lantzean besterik ez, bera ikastoletan ibilitako euskaldun zahar eta euskaltzalea izan arren, «oso zailak» omen zirelako. Ane ez zen izugarri zalea, baina gogo onez hartzen zuen nire zaletasuna, nahiago zuen nonbait ni liburu batekin ikusi futbol-partidetan sudurra telebistari itsatsita baino, gizonezko gehienek egiten

omen duten bezala. Oker ari naiz ordea: topiko horiek guztiak botata, Aneren irudi berekoi eta estereotipatua aterako du irakurleak, eta ez da inondik ere horrelakoa. Nik esan nahi nuen, bere zaletasunekin bat ez egin arren, lagundu eta bultzatu egiten ninduela neure afizio eta aukeretan; jabetuta zegoen ordurako –nola ez, nire eguneroko kexu eta erostak entzun ostean– irakaskuntzaz asper-asper eginda nengoela, eta horrek halako zimiko bat eragiten zion barrenean, esaten baitzuen beragatik segitzen nuela nik institutuan, bestela aspaldi alde egina izango nintzela, eta, ni bere kontzientzia lasaitzen saiatu arren, Anek hor nonbait zeukan har gaizto bat hozka eta hazka, eta egun batean promes serioa egin zidan, berak Unibertsitatean edo beste edonon lanpostua lortu bezain laster, nik urte sabatikoa hartu ahal izango nuela; urte bat, edo gehiago ere bai, nahi izanez gero.

– Idazteko edo beste zernahi gauza egiteko –amaitu zuen bere agintza.

Idaztearena orduko ametsa nuen, egia da, baina gehiago zen fantasia sexual gisakoa egiazko nahikaria baino, ez baineukan horretarako

behar den patxada edo talentua edo prestakuntza edo dena delakoa; gainera, lanpostua utzi eta orri zuriaren aurrean geratzearen ideiak hozkia ematen zidan beste ezer baino gehiago (beharbada horretan banaiz idazle samarra, sortzaile gehienek aipatzen baitute une horrek pizten dien izua, gure liburu-dendatik pasatu direnek esandakoari kasu eginez gero).

Ez nengoen horren zain, beraz, baina halako batean gertatu zen: Anek lanpostua lortu zuen, Unibertsitatean gainera, beti espero izan zuen bezala, baina ez Euskal Herriko Unibertsitateko Kimika Fakultatean, beti uste izan zuen moduan; sistema feudalaren lehenengo arrakala izan zen hori, departamentuen hazkundea guztiz gelditu eta merezimendu-lasterketako urtetako korrikalariak bide-bazterrean geratu zirenekoa; eta bigarren arrakala, guztiz ustekabekoa, Nafarroako Unibertsitatetik etorri zitzaion, Iruñeko Opus-etik alegia, Ane hara eta hona curriculumak bidaltzen hasi eta Universitas Navarrensis hartatik erantzun baitzioten, esanez bere ezaugarriak zituen norbait ondo etorriko zitzaiela Klinika Unibertsitarioan lantzen ari ziren proiektu batean

ikertzeko eta, aldi berean, kimikako klaseak ere emateko.

– Opusen hartuko zaituzte hortaz?

– Bueno, aurrena elkarrizketa bat egin behar didate, baina nik uste...

Ezin ukatu Opus Dei izena entzute hutsak halako hotzikara bat eragiten zigula, bai Aneri bai niri, eta instituzio horrentzat lanean ariko zela pentsatzeak, beraz, larridura antzeko bat sortzen zigun bioi ere, sekula ez baitzitzaigun burutik pasatuko sekta atzerakoi horrekin kolaboratu beharko genuenik. Printzipio kontua zen. Baina printzipioak, oso inportanteak izan arren, alde batera utzi ohi ditu batek, horren truke lanpostu bat lortzeko aukera baldin badu; batez ere, Aneren kasuan bezala, beste ate guztiak muturraren aurrean itxi badizkiote bat horri.

Saltatu egingo ditut, kontatzeko modukoak izan arren, zorioneko elkarrizketa honetarako ibili genituen komeriak: nola jantzi, zer esan, zer jarrera hartu, makillatu bai ala ez. Kontuak kontu, pozik itzuli zen elkarrizketa hartatik, esperantzatsu, eta handik egun batzuetara deitu

zion katedratikoak berak, hurrengo hiletik aurrera lanean hartuko zutela esateko.

Orduan poza, baina orduan eskrupuluak ere. Barne-zimiko guztiak hasi zitzaizkion Aneri erasoka: apaiz ultra haien menpean jartzea ez ote zen hanka-sartzea, Euskal Herriari traizio egitea, emakume progresista batentzat bere buruari uko egitea... Zalantza horiek berak nituen nik ere, baina ulertu nuen Ane animatzea eta bere beldurrak uxatzea zegokidala une hartan.

– Zuk azken batean ikerketa-proiektu batean lan egingo duzu, eta hor ideologiak ez du zerikusirik –esaten nion–. Gainera, Iruñea beti izan da hiri jatorra, bioi gustatzen zaiguna, gogoratu UEUko ikastaroak. Eta, bestalde, zu hor egonda gehiago egin ahal izango duzu euskararen eta feminismoaren alde, espainol karka bat hartuko balute baino. Ez duzu uste?

Posibilismoaren sasiargudio tipikoak, ohartzen naiz, eta orduan ere ohartzen nintzen, baina, zer egingo zenuen zuk, irakurle aspertu horrek? Nik, berriz, bizitzaren sentimendu homeopatiko hau dela-eta, apaizen eta erlijioaren kontrako sekulako erretolikak bota nizkien insti-

tutuko nire ikasleei bolada hartan: Axular eta bere koadrila guztia Trentoko inkisidoreen eskumakila hutsak zirela, Azkue eta Agirre abade gonaluze atzerakoiak, Lizardi, Lauaxeta eta Orixe apaizkeria melengak jotako lerdejarioak.

– Euskal literatura, Txillardegi, Aresti eta Miranderekin hasten da. Aurreko guztia, sutan erre, nahi baduzue –amaitu nuen nire sermoia, suak harturik.

Sukar maoista horrekin, goitik behera aldatuko nukeen, euskal literaturaren historia osoa ez ezik, baita neure klaseetan eman beharreko gaizerrenda ere, baina ez zen horren beharrik izan, ez dakit nire ikasleen onerako edo kalterako, orduantxe ikusi bainuen Anek hainbestetan agindutako hura gauzatzeko aukera.

Ez nintzen idazle bihurtuko. Nire jakintza apurra eta borondate guztia euskal letren zerbitzura jartzeko askoz ere modu apalago eta eraginkorrago bat bururatu zitzaidan orduan: liburudenda bat zabaltzea, bizi naizen herrian bertan, aspalditik ohartua bainengoen horren premia larriaz, izen hori zeramaten dendak gehiago arduratzen baitziren errotulagailu fosforotsu eta mo-

dako karpetak edukitzeaz, literaturako nobedade interesgarrienak eskaintzeaz baino.

– Liburu-denda bat? Hi erotu egin haiz! –esan zidan nire lagun Juantxok.

Beste edonork esanda ez zidan axola izango, baina nork eta Juantxok, zaletasun hori piztu zidan bide-erakusleak! Ez geunden institutu berean, baina sarritan ikusten genuen elkar, ni haren etxera edo bera gurera etorrita, batzuetan bakarka eta besteetan bikoteka, nahiz eta Juantxok eta Begok umea izan zutenetik zailagoa izan planak egitea. Besterik ezean telefonoz hitz egingo genuen, eta halaxe jakinarazi nion nire asmoa, baita defendatu ere bere aitzakia eta mindulinkerietatik:

– Ez al huen herorrek esaten liburu-denden beharra dagoela gure herrietan? Liburua ezin dela Eroskin saldu yogurra balitz bezala? Liburua maite duen dendaria behar dela, aholku eske doan irakurlea gidatuko duena? Ez al huen herorrek esaten euskal literaturaren gaitzik handiena irakurle eskasia dela?

Bai, hori dena esaten zuen Juantxok, eta ezin ukatuko zuen.

– Baina gaurko egunean, liburu-denda bat irekita, goseak jango hau! –esan zuen.

Tira, besterik ezean Opusek emango ziguk jaten, pentsatu nuen, esan ez banuen ere. Administrazioko sindikatuen funtzionamendua oro har, eta bereziki irakaskuntza publikoko lan-hitzarmenen ñabardurak aipa nitzake hemen eta orain, interes hala-holako baina sustantzia mamitsuko hizpidea litzateke-eta, baina ez dut irakurle borondate onekoa mizkinkeria burokratikoekin aspertu nahi, ezta kasta funtzionarialaren balizko pribilegioen kontrako erresumin soziala gehiago hedatzen lagundu ere. Hortaz, esan dezadan soil-soilik eszedentzia hartu nuela institutuan, buruan neukan liburu-denda zabaltzeko asmotan.

Lokala eskuratzea, harrigarria bada ere, ezin errazagoa gertatu zen. Gure atari berean bazen aspalditik salgai jarritako etxabe bat: nagusiarekin hitz egin eta errentan utzi zidan, oso modu onean gainera, konponketa-lan guztiak neuk egiten baldin banituen. Pentsatzen jarrita, esperantza izango zuen nire negozioa pikutara joango zela berehala, eta nik obra egin ostean errazago

saldu ahal izango zuela. Asmoak asmo, onartu egin nion eskaintza; denda ez zen zentro-zentroan egongo, baina lantokia etxepean edukitzeak ere baditu bere alde onak.

Igeltsero, arotz, elektrikari, pintatzaile eta abarrekoak kontratatzea, koordinatzea eta kontrolatzea neure indarrez gaindiko zeregina izango zen, baina zorionez hor neukan nire arreba txikiena Arrate, aparejadore ikasketak amaitu berria eta obren saltsa hartan sartzeko irrikan zegoena. Obrak ikusmiratzea ez ezik, bere gain hartu zuen baimenak lortzea eta denda barruko dekorazioa ere, horretan neronek parte handixeagoa nahiko nukeen arren. Nire gusturako modernoegia eta guzti utzi zuen, oraingo diskoteka pastillero horietako bat balitz bezala, baina bueno, seguru asko neu naiz klasikoegia, eta, bestalde, ezin hasiko naiz etxeko arkitekto teknikoari aitzakiak ateratzen, lan hura guztia egin eta gero.

Baten bat galdezka izango da honezkero, zer demontre egiten ote nuen nik bitartean. Ez dut lan onaren domina eman diezadatela eskatuko, baina ez nengoen geldirik ere; salmentaren al-

derdi logistikoez arduratu behar nuen batetik: hornitzaile eta banatzaileekin hitz egin, salmentan zer produktu-mota jarri eta nola erakutsi erabaki, eta halakoak; eta alderdi intelektualaz ere bai, bestetik: adibidez, denbora luzea eman nuen dendari zein izen ipini deliberatu nahian, izenak izana, era batera edo bestera, baldintzatzen duelakoan. Ezin jarriko nion neure izena, ez naiz horren egolatra, ezta inguruko auzo, mendi edo erreka batena ere, hala jokatuz gero berdinberdin izan baitzitekeen liburuen edo altzarien saltoki, eta nik garbi nahi nuen laga, izenetik bertatik, hura jakintzaren tenplua izango zela, lehen Unibertsitatearentzat esan dudan bezala. Idazle baten izena ematea zen aukerarik onena. Zein idazle ordea? Axularrek eta Etxeparek bazituzten beren dendak; berdin Lizardik, Orixek eta Lauaxetak ere, eta dendarik ez bazuten ere berdin zitzaidan, izen horiekin bataiatu baitituzte hainbat euskaltegi, institutu eta kultur etxe, eta, bestalde, ez al nituen nire ikasleen aurrean madarikatu euskal literaturako idazle zahar, zaharkitu eta kristau haiek oro? Izan dezadan koherentzia apur bat, arren! Txillardegi, Aresti eta Mi-

randerekin hasten omen zen egiazko euskal literatura; has nadin ba ni ere izen horietatik aukeratzen.

Txillardegik, hasteko, arazo bat zeukan, horrela esaterik baldin badago: bizirik zegoela. Hau da, eta barka nazala Jose Luisek hau irakurtzen badu, ez dut esan nahi bera bizirik egotea zoritxarrekoa denik, aitzitik, bizitza luzea eta osasun betea opa dizkiot, eta jainkoak edo dena delako zerak eman diezaiola beste urte asko bizitzeko ditxa, Euskal Herri askatu, batu eta euskalduna ikusi arte bederen, ez da gutxi izango eta. Esan nahi nuen bizi den norbaiten izena erabiltzea ez dela oso txukuna, eta jabetza intelektualaren kontrako delitua ere izango da idazle horren baimenik gabe eginez gero. Arrazoi horrexegatik baztertu beharko nituen idazle modernoagoen izenak ere: Atxaga-edo, Sarrionandia-edo; erretiratzen diren txirrindulariek jartzen dute bere herrian denda bat, bizikletak saltzeko, eta idazle horietako baten izena eramango lukeen liburudendak nahiko itxura tristea izango luke, bere onenak emandako sortzaileak etxeko biblioteka saldotan saldu nahiko balu bezala edo.

Aresti ere ezin. Hau hilda zegoen, jakina, baina aski argi utzi zuen idatzita: «Jainkoak ez dezala nahi Bilboko karrika bati nire izena eman dezaiotela. Ez dut nahi bizargile hordi batek esan dezala: ni Arestin bizi naiz, anaiaren koinata nagusiarekin. Badakizu. Maingua...» Eta hala ere, handi askoa paratu diote Gabriel Aresti etorbidea, ez Bilboko zentroan baina Txurdinagan; eta horrez gainera euskaltegiak, eta institutuak, eta nik al dakit zenbat kultur gauza. Nirea ez zen noski kalea, baina berdin-berdin esan ahalko zuen: «Jainkoak ez dezala nahi liburu-denda bati nire izena eman dezaiotela. Ez dut nahi estetizien ile-tindatu batek esan dezala: oso ondo dago Argiñanoren liburua, Arestin erosi nuen, %10eko deskontua egiten didate». Egunen batean gure Gabriel jaisten bada Euskal Parnaso hartatik, hartu eskuan suzko ezpata eta erre egingo ditu bere izena edo bere hitzak ahotan hartu eta gero saldu dituzten alderdi, merkatari, politikari, elkarte, katedratiko, agit-propeko talde, culture club, instituzio eta kolektibo oro, baina nire liburu-denda maiteak iraunen du zutik!

Mirande jarri nion azkenean, duda askoren ondoren. Dudak batez ere egilearen ideologiarengatik. Ez da oso ikasia izan behar Jon Mirande paristar zuberotarra nazien zalea izan zela jakiteko, arrazista, antisemita, misoginoa, demokraziaren nahiz sozialismoaren mespretxatzaile sutsua, eta horrek denak halako ondoez bat eragiten zidan, ez dut ukatuko. Baina abantailak ere bazituen Mirandek: batetik hilda zegoen –bere buruaz barbituriko eginda, itxura guztien arabera–, eta haren ondareaz edo izenaz arduratuko zen familiarik gabe; bestetik, ez nuen ezagutzen haren izeneko liburu-dendarik ez beste inolako kultur talde nahiz fundaziorik, aski pertsona deserosoa izango baitzen inoren aitaponteko espiritual izateko ere; eta hirugarrenik, nire filosofia homeopatikoa aplikatuz, eta kontuan harturik Ane orain Euskal Herriko apaizik atzerakoienen atzaparretan zegoela, zein antikristauago, paganoago, sakrilegoago eta biraozaleago Jon Mirande bera baino? Nire kontzientzia lasaitzeko Juantxori deitu nion, elkarrekin bizi izan ginen garaitik oroitzen bainuen oso Mirandezalea zela,

haren umore beltz, poesia fin eta era guztietako heterodoxien mireslea.

– Mirande jarri behar dioala? Akabatuko haute! –bota zidan.

Hori zen hori, animoak ematea! Ez al zen Juantxo izan *Haur besoetakoa* esku artean jarri zidana? Ez al zidan berak erakutsi, Joxe Azurmendiren teoriak errepikatuz, Miranderen filofaxismoa errebeldia estetiko gisako bat zela, gizarte burgesaren txepelkerien kontrako matxinatze mental muturrekoa? Urteekin Juantxo bera burgestu eta txepeldu zela esango nuke, eta, seguru asko nire hobe beharrez ari zela onartuta ere, ni orduan ez nengoen epelkerietarako eta neure asmoari eustea erabaki nuen: Mirande izango zen liburu-dendaren izena, apaizkume guztien ahalkez eta nire lagun Juantxoren ohorez, berak nahi ez bazuen ere.

Kontuak kontu, urrundu naiz berriz ere Mediterraneoko bidaiaren haritik. Ditxosozko bidaia: horra iritsi nahi eta zenbat atzera-aurrera! Orain-txe helduko diot gai horri, neure hitza ematen dut, baina aurretik beste kontu txiki bat; azkena. Izan ere, atzera-aurrerak aipatu ditudanean eto-

rri zait gogora nire historia honetan zerikusia izan zuen gorabehera bat: Etxegarateko errepidearena. Hain zuzen, lana Iruñean egin behar zuela-eta, egunero joaten zen hara Ane, bere golf xaharrean. Bere golfa esan dut, harrezkero berak ibili zuelako batik bat, baina ordura artean neuk erabili izan nuen gehienbat. Ane ez zen oso kotxezalea, Donostiara joaten zen garaian nahiago izaten zuen garraio publikoa erabili, dela trena, dela autobusa. Iruñera joateko, ordea, aukera eskas samarra eskaintzen zioten Pesan nahiz Roncalesan, eta ez zuen izan autoa hartu beste erremediorik. Autoa hartu eta gero, aldiz, bi bide aukeran: bata Etxegaratetik, bestea Lizarrustitik. Etxegarate gaur bide zabal eta eroso bihurtua dago, baina garai hartan zabaltze lanetan ari ziren, eta berezko kamioi pilatze egunerokoari obrek sorturiko eragozpenak gehitu behar: lokatza, ilarak, geldialdiak, ondo seinalatu gabeko bide-zatiak... Lizarrusti, berriz, pagoz inguraturiko errepide trankil eta sigi-sagatsua da denbora-pasa joanez gero, baina Anek ez zuen horrela ikusten, kamino estu, ilun, bihurri eta bihurgunez josia iruditzen baitzitzaion. Bi aukera

eta biak txarrak, egun batean hala esango baitzidan: «Sekula ez naiz gehiago Etxegaratetik joango: horko kamioitzarrek zapalduta bukatuko dut bestela»; eta hurrengoan ostera: «Berriro ez dut Lizarrusti zapaldu nahi, ematen du ez dela inoiz bukatuko!». Halako batean, berak ez baina patuak egin zuen aukera, eta ez zen gertatu ez Etxegaraten ez Lizarrustin, Sakanako autobide lasai eta modernoan izan baitzuen Anek istripua. Ondorio larririk gabe, zorionez, Aneri dagokionez, gure golf gaixoa txatar bihurtuta geratu zen arren. Gogoan daukat oraindik, orduak iragan eta gero ere nola ari zen Ane dardarka, eta nola saiatu nintzen ni lasaitzen. Lasaitu, lasaitu zen, baina zirt-zarteko erabakia hartu ere bai: ez zuela berriz halako trantzerik pasa nahi, eta ez zuela, beraz, kotxerik gehiago hartuko.

– Orduan nola joango zara Iruñera? –galdetu nion nik.

Arazoak ez baitzeukan askabiderik. Edo bai: nik uste ez nuen irtenbidea aurkitu zion Anek: aste barruan Iruñean geratzea, alegia.

– Non?

– Pisu batean, alokairuan.

– Zu bakarrik?

– Ez: departamentuko beste neska batzuekin.

– Eta ni?

– Nahikoa entretenitua egongo zara dendarekin.

Bazirudien dena zeukala ongi pentsatua. Alde batetik ihesi zihoakidala iruditzen zitzaidan, baina bestetik onartu beharra neukan haren arrazoibidea; eta, azken batean, «nobiotan» bezala ibiliko ginen, aste-bukaerak geuretzat hartuta.

Itxaropen horrekin onartu nuen Aneren plana, baina aste barruan iluntzeak luze egiten zitzaizkidan, eta orduan bururatu zitzaidan liburu-dendako literatur solasaldiak antolatzea. Denbora pasatzearren, eta kruzeroaren saria homeopatikoki berdintzearren ere bai. Herriko euskara-elkartekoekin hitz egin, han eta hemen afixa batzuk paratu, eta hala hasi ginen hamabostean behin taldetxo bat biltzen, atera berri ziren liburuez hitz egiteko eta, aldian behin, idazle bat ekarri eta harekin solasteko. Dendan bertan egiten genituen tertulia horiek, arratsaldeko zortzietan itxi ostean, eta, espirituari bakarrik

jaten ematea luzera triste samarra izaten denez gero, mokadu bat ere prestatzen nuen; zerbait xinplea, lan handirik gabea: txorixoa eta gazta, ogi eta ardoarekin batean; hartara, ordu horretako tripa-zorriak akabatzearekin batera, lotsati samarrak ere aiseago askatzen eta animatzen ziren berbetan jarduteko.

Egun batean solasaldia zela, beste batean harako jan-edanak erostea zela, hurrena ekitaldia iragartzeko txartelak prestatzea edo etorri behar zuen idazlearekiko kontaktua ziurtatzea zela, aski beterik izaten nituen egunak nahiz iluntzeak (alde batera utzi gabe, noski, liburudendaren martxa eta solasaldi haietarako sinfalta irakurri behar genituen nobedadeak). Hala ere, beti aurkitzen nuen tarte bat, afalostean normalean, Aneri deitzeko eta bere hutsa sentitzen nuela gogorarazteko. Dena dela, oroitzen naiz egun haietako batean Aneri deitu eta labankada bat eman balidate bezala sentitu nuela. Ez maitale batekin zegoela esan zidalako edo nire deiek aspertu egiten zutela bota zidalako, ez. Ohi bezala hartu ninduen, baina ezberdintasun txiki batekin: telefonoa hartzean «Bai esan» be-

tikoaren ordez «Dígame» esan baitzidan. Aneren ahotsa zen, dudarik ez, baina hizkuntz aldaketa hark hainbesteko txundidura eragin zidan, non hitz-totelka eta estropezuka erantzun bainion: «¿Se puede poner Ane Lizarraga, por favor?». Nor norekin ari ginen argitu zenean argitu zidan, nire haserre eta demandari erantzunez, erdaraz egitea noraezekoa bihurtu zitzaiola, dei gehienak lan-kontuengatik egiten baitzizkioten.

– Eta dagoeneko eman didate pare bat toke, beti euskaraz erantzuteagatik.

– Pare bat zer? Fatxa halakoak!

– Ixo! Entzun egingo dizute-eta.

– Hor ere zelatariak al dauzkazu? Joder!

Marka da gero! Egun osoan kontrolatuta: zer egiten duzun, zer esaten duzun, norekin mintzatzen zaren... Nik ez dakit benetan horrenbesterako zen, ala Aneren paranoia ote zen. Bere datuekin lantokirako fitxa bat bete behar izan zuenean ere, nola ez gauden ezkonduta, ez omen zuen jarri nirekin bizi zenik, «zer gerta ere», eta gurasoenean bizi zela esan omen zuen. Ni, berriz, berrogeiak betetzeko zorian izan arren, «senar-

gaia» bihurtu nintzen, iluntzero hutsik egin gabe deitzen zion nobio fin eta gisakoa.

Dígame-rekin hasi zitzaidan elkarrizketa zapuztuaren egun hartan konfirmatu zidaten Greziako bidaiaren data, eta horixe kontatzeko pozarekin deitu nion. Eman zidan amorrazioarekin, ordea, ez Grezia eta ez putza, ez nion ezer kontatu, eta kasik Espasakoei deitzekotan ere izan nintzen, transatlantiko hura ipurtzulotik sartzeko, kabitzen baldin bazitzaien. Haserrealdiek gutxi irauten didate, hala ere, eta gero pentsatu nuen Egeoko itsasaldiak on egingo ziola gure harremanari, aspaldi geundela gu ere goxaldi baten beharrean, urteen herdoila gainetik kentzeko edo.

Hortik abuztura bitartekoak ez du interes berezirik, bidaia baten ilusioz eta haren prestaketan ibili den edonork baitaki zer izaten den itxarote kilikatsu hori. Gure kasuan, gainera, zer prestatu handirik ere ez zegoen, Espasakoak arduratzen baitziren antolamendu guztiaz. Bainujantzia ez ahazteko esan ziguten bakarrik, hortik aurrerakoa kruzeroan bertan topatuko genuela eta.

Eta orain bai. Aurrekari guztiak argituta, eta azaldu beharrekoak azalduta, uste dut iritsi dela Mediterraneoko itsasaldira abiatzeko ordua. Bartzelonan gaude, 2002ko abuztu erditsuan, Donostiako Aste Nagusia azken hondarrean eta Bilbokoa hasteko zorian daudela. Maletak eskuan, Ane aldamenean, tximeleta-dantza bat sabelean, eta nire aurrean inoiz ikusitako itsasontzirik handiena. Horrek ez du esan nahi Guinnesserako moduko barkutzarra zenik ere, gure portuetako arrantza-ontziez gain Pasaiako kaian ikusitako zama-ontziak baitziren ordura artean nik inon ikusitako urontzirik erraldoienak. Nire esperientziaren hutsa kontuan hartuta, ez da harritzekoa niretzat dena izatea berri, dena egundoko, dena txundigarri. Hortaz, ez naiz hasiko bidaiaren berri xehe-xehe kontatzen, «Titanic revisited» bat idazten ari banintz bezala. Gainera, dagoeneko konturatuko zineten, nire larrialdi sentimental eta existentzialak dira kontagai honen ardatza eta, horrenbestez, larrialdi horiekin loturaren bat duten neurrian agertuko ditut barkuko kontuak. Barkuak berak ez zuen pisu handirik izan gorabehera hauetan, baina bai ba-

rruan gindoazenek. Sar gaitezen bada transatlantikoan, abia gaitezen Mediterraneoan barrena, eta ezagutu ditzagun itsas kruzero honetako pasaiari jaun-andreak.

Gehientsuenak, guk tratabidea izan genuen ia guztiak, gure antzera joandakoak ziren, hots, Espasa Calpeko marketing sailak gonbidatuak, eta, printzipioz nire alor profesional berekoak izan arren, azkar samar ohartu nintzen ez neukala zerikusi handirik haietako gehienekin. Ez zen bakarrik botijoa baino espainolagoak zirela; hori zen gutxienekoa, nik ere gehiago irakurtzen nuen eta askoz ere gehiago saltzen nuen erdaraz euskaraz baino, eta erreferentzia kulturalen alde horretatik ez genuen problemarik izango; problema zen erreferentzia kulturalak bost piper inporta zitzaizkiela itsasaldi hartan zihoazenei. Alegia, nik uste nuen jende ikasia, liburuzalea, literaturaren maitalea topatuko nuela kruzero hartan, eta solasaldi mamitsuak izango genituela huntaz eta hartaz, ez soilik idazleez eta azken nobedadeez, baina betiere kulturadun gizonemakumeengan espero dugun ikuspegi zabal eta irizpide kritikoarekin. Eta horren ordez zer to-

patu nuen? Tratulari koadrila bat, opor ordainduan umea txupatxusarekin baino kontentuago; saltzaile saldo bat, liburuen ordez saltxitxoiekin edo aterkiekin berdin-berdin aritu zitekeena; entzun besterik ez zegoen haien arteko solasaldiak: existentziak, deboluzioak, ehunekoak, autonomoetako kotizazioak, BEZaren likidazioak, deskontuak, primak, hobariak, opariak, mozkinak, etekinak... Horiek denak axola zitzaizkidan niri ere, nola ez, baina nire lanaren alderdi desatsegin eta ezinbestekoa iruditzen zitzaizkidan, benetan inporta zuena beste zerbait zelakoan.

Ni borondate onenarekin nindoan, hitza eman dezaket. Taldetxo batera inguratu eta, gai intelektualegirik bota gabe ere, zerbait samurra aterako nuen plater gainera, liburuez zer edo zer dakien edozeinek haginkatzeko modukoa. Adibidez:

– Zer iruditu zaizue García Márquez-en autobiografia: *Vivir para contarla*?

– Nire ustez garestiegi jarri dute –esango zuen batek–. Nobel saria eman ziotenetik urte asko pasa da, eta orain ez du horren erraz sal-

tzen, jendeak prezioari begiratu eta batzuek atzera egiten dute.

– Auzoen arabera izaten da hori –beste batek–. Guk konprobatu dugu zentroan barra-barra saltzen dela; beste batzuk sakelako edizioaren zain egongo dira.

– Baina lehen edizioa ere azal bigunarekin atera balute... –lehengoak atzera.

Azal biguna azal gogorra, merke garesti... Bost axola barrukoa goi mailako literatura ala sukaldaritzako errezetak ziren. Eta lehenengo gauean Aneri nire dezepzioa adierazi nionean, bera ere kontra azaldu zitzaidan:

– Zer nahi duzu? Beren lana da, hortik bizi dira.

– Horrexegatik! Liburuetatik bizi baldin badira, liburuak maite beharko lituzkete, ez galtzontziloen moduan saldu bakarrik.

– Estuegia zara.

Isildu egin nintzen, bestela esango nion ni estuegia bai, baina bera Opusekoen artean zebilenetik ziniko hutsa bihurtu zela, edo okerrago, hipokrita merkantilista bat. Isildu egin nintzen, ez nuelako Anerekin haserretu nahi eta gau harta-

rako banuelako eztabaidan jardutea baino plan hobea, baina nire plan hori ere pikutara joan zen azkenean, itsasontziaren mugimenduak gaizkitu egin baitzuen Ane, eta ezertarako gogorik gabe utzi.

Eskerrak, hala ere, bidaldi hura Anerekin egin nuen. Batetik, norekin mintzatu behintzat izaten nuelako, otorduetan eta gelan geundenetan. Bestetik, nire zakarkeriak eta zapuzkeriak dotore bezain oparo konpondu eta konpensatu zituelako. Horretan bai erakutsi zuela nik ez bezalako jendetasuna eta lehendik ezagutzen ez nion trebezia. Bartzelonara bidean gindoazela bere kezka agertu zidan, bidaian zihoazen guztiak ni bezalako liburuzuloak baldin baziren ea norekin eta zertaz hitz egingo zuen berak.

– Zu lasai –esaten nion nik, nagusikeri aire batez–, liburuzale batek edozeri buruz hitz egin dezake, ez bakarrik liburuez; eta gainera, jende asko egongo da zu bezala, beste dendarien senar edo emazteak.

Ni bai inozoa eta harroputza. Anek bere kasa moldatzeko nire beharra balu bezala. Nik ez dakit Opusekoek eman ote zizkioten jendartean

mugitzeko lezioak, ala barruan lokarturik zeukan dohain bat piztu zitzaion bat-batean; batera nahiz bestera, bizitza osoa plazerezko itsasaldietan igaro zuela ematen zuen, hain zen denekin atsegina eta ongi hitz egina. Espasa Calpekoek beren marketing sailerako kontratatzeko modukoa.

Eta Espasakoen marketing saila aipatu dudanez, ezin utziko dut aurkeztu gabe bertako arduradun eta gure anfitrioi Conrado XX jauna; abizena isildu egingo dut, diskrepzioz, harako hark esaten zuen bezala, eta berak ere, bere burua aurkeztean, «Conrado para los amigos» eransten zuelako beti, bostekoa estutzearekin batera. Betidaniko lagunak bagina bezalako konfiantza erakutsi zidan lehenengo momentutik (besarkadak, txisteak, kopa bat hartzeko gonbitak), eta, aldi berean, adarra jotzeko gogo izugarria, euskaldunak zirela eta ez zirela. Ez nintzen ni itsasaldi hartako euskal herritar bakarra (Bilboko El Corte Inglés-eko bat ere bazegoen, eta Iruñeko promotore bat), baina, igual besteek ez bezala nik euskal itxurako deiturak nituelako, edo, seguruago, Ane eta biok euskaraz sumatu gintue-

lako, niri «Ibarretxe» deitzea sartu zitzaion kaskoan, eta, horrez gainera, etengabeak zituen ziriak eta akuiluak: RHa zela, Bin Laden zela... Ni, egia esanda, potroetaraino nengoen, eta ez horrenbeste euskaldunen gaineko topiko erraz eta gogaikarriengatik, horretara ohitzea baneukan; baina jasanezina egiten zait beti festa bat antolatzen dabilela dirudien jende mota horren jatorkeria. Kubiertan lasai asko baldin bageunden Ane eta biok, goizeko eguzki epeletan ontziak atzean uzten zuen uharari begira, hor azalduko zen bere irribarre dentifriko iraunkorrarekin.

– Ostras, Conrado! Kasu egiozu zuk, nik komunera joan behar dut-eta.

Ez zen oso jokabide dotorea, onartu beharra daukat; ez Conradorekin, eta are gutxiago Anerekin, Espasakoa behintzat esne-mamitan egoten baitzen nire andrearekin. Ez zen oso dotorea, baina barruak ez zidan ihes egitea beste biderik onartzen.

Azkenean, gezurra badirudi ere, deskubritu nuen zein zen nire bidaide gogaikarriengandik libratzeko biderik zuzen eta eraginkorrena: liburuak. Ez nabil adarra jotzen edo paradoxetara jo-

lasten, ez. Hartu maletan sartu nituen liburukote haietako bat, eseri txoko batean, jarri hura irakurtzen, eta patxada ederrean utziko ninduten ordu luzetan, beren cocktail, dantzaldi, jolas antolatu eta bestelako pitokerietan nahastu gabe.

Ez dut esan nahi egun osoa pasatzen nuenik nire misantropiazko liburu-oskol horretan sarturik. Ez naiz horren zomorroa ere. Konpromisozko solas eta topaldiei txiri egiten nien ahalik eta gehienetan, baina portu batera iristen ginen bakoitzean jaisten nintzen lehorrera, delako hiri hori ezagutzera. Ez naiz hasiko hemen Mediterraneoko argitasun garden, milurteko kultura, hizkuntzen arteko arrago eta antzeko klixeekin, aski ipuin ezaguna izango duzu zuk ere, irakurle akitu horrek. Bidaia aberasgarria izan zen, eguraldia ere bikaina (aukeran beroegi nire gusturako, baina abuztuan eta Greziako partean zer egingo du ba?), itsasontziko instalazio eta zerbitzuak zoragarriak, Espasa Calpekoen antolamendua akatsik gabea eta hori dena. Errepikatzeko moduko oporrak, beraz, inork gonbidatuz gero batez ere. Baina ni ez naiz ari bidaia agentzia bateko katalogoa egiten, gehiago da hau nire ba-

rrenaren huste eta biluzte bat. Harako bertsolari hark kantatu zuen bezala: «Enau inkomoratzen besteren lujuak, deklaratzera nua nere enojuak».

Zein ditut, bada, direlako enoju horiek? Nire kexuak, motz eta zorrotz hitz eginda, iturri bikoitza dauka. Batetik alderdi pertsonala legoke, nire bihotzari dagokiona; sentimentala, hitz batean esateko. Bestetik, berriz, alderdi kolektiboa egongo litzateke, hiritarra edo *polis*-eko herritarra naizen aldetik dagokidana; beste hitz batean laburtu behar bada, politikoa, politika konturik orain artean apenas aipatu dudan arren. Alderdi bi horiek printzipioz elkarrengandik urrun eta aparte baldin badaude ere, nire kasuan eta praktikan korapilatu egiten dira mataza nahasi bat osatzeraino; bizitzaren filosofia homeopatikoa egongo da horretan ere.

Kruzeroak iraun zuen bitartean ez nintzen jabetu ordea. Deskalabrua martxan zegoen, lehen aipaturiko maila bietan gainera, baina ni ohartu ere ez, hamabost eguneko bidaia batek parentesi bat irekiko balu bezala, eguneroko bizitza eta bere kezkak oro zintzilik uzten dituen menia an-

tzeko bat. Meniak amaitu egiten dira, ordea, parentesiak itxi, eta, berriz ere Bartzelonako portua zapaldu genuenean, hantxe topatuko nituen zelofanean bildutako arazoak, esku artean lehertzeko prest.

Inguru-minguruka nabilela iruditzen zait, ordea. Bere harrapakinaren ingurumarian jirabiraka dabilen otsoaren antzera, hari hortzez eta haginez heltzeko beldurrez. Behin honetara ezkero ezin hasiko naiz mindulinkerietan hala ere, eta, Greziako bidaiarainokoa kontatu baldin badut, konta dezadan behingoz hortik aurrerakoa, ez da erraza izango baina.

Bartzelonara iritsi, 2002ko abuztuaren amaieran iritsi ginen, gure itsasaldia amaituta. Agur, agur, elkarri muxuak eta diosalak, helbide eta telefono-trukeak, bizkarrean txaplakak eta malko koxkorren bat. Ni, egia esanda, apur bat galduta nengoen, hegazkinaldi luzean ibilitakoek izaten dituzten *jet-lag* horietako baten pean banengo bezala. Eguneroko informazio pilatze eta irenstearen kontrako desintoxikazio moduan ere planteatu nuen bidaia hura, eta hamabost egun haietan ez nuen ez egunkaririk irakurri, ez irrati-

rik entzun, ez telebistarik ikusi. Oker ari naiz, zehatz dezadan: hara eta hona gindoazelarik, bertako egunkariren bat erosten nuen beti, bitxikeria gisa, baina hizkuntza ez ezik bertan zetozen albiste eta erreferentziak ere arrotzak zitzaizkidan, Grezia aldean baita alfabetoa ere; eta beste horrenbeste esan nezake irrati eta telebistez. Ene bidaide espainiarrak txoratu beharrean ibiltzen ziren, porturik portu, El País, El Mundo edo ABCren bila; aurkitzen baldin bazuten pozarren ospatzen zuten, Dickensen nobeletako umezurtzak bere ama galdua topatuz gero ospatuko zukeen bezala; aurkitu ezean, berriz, marmarka hasten ziren, beren harrotasun patriotikoan zaurituta, eta marmar hori purrusta bihurtzen zen Espainiako prentsarik ez baina frantsesa edo ingelesa ikusten baldin bazuten.

– Gutxiago garela uste al dute hauek? Espainolek beste horiek baino kategoria gutxiago daukagulakoan ala? Eskubide gutxiago? Ba, ikusiko dute greziar zikinok –edo italiar zikinok, segun eta non geunden–, ikusiko dutenez.

Nik bertako prentsa erosi eta barre txikiak egiten nituen, barrutik eta neure artean, noski,

bestela kapaz baitziren irain haren errua ere niri leporatzeko, Conradok jarri zidan ezizena beste askoren artean ere zabaldu zenez gero:

– Hau ere ez duk ba hire planaren parte izango, e, Ibarretxe?

Eta nik irribarre inozo bat egin behar, noski. Zer egingo nuen bestela? Espainolen sari bat onartzeagatik tokatzen zitzaidan behazun-dosia irizten nion horri. Botika homeopatikoa.

Ez dakit pasabidearen zein aldetan geunden, ontzian ala lehorrean. Bartzelonako portura jaisteko bitarte horretan izan zen behintzat. Ane eta biok geure maletekin geundela, horra non datorkigun Conrado bere irribarre dentifrikoarekin, gure gauzak jaisten laguntzera (Aneri laguntzera, hobeto esanda, begikotasun berezia hartua baitzion, konturatu nintzenez).

– Enteratu al zara zer gertatu den, e, Ibarretxe?

Ez nekien zertaz ari zitzaidan –abuztu hartan Espainian nahiz Euskal Herrian gertatutakoaz *off side* nengoen, esan dudan legez–, eta askorik axola ere ez. Begien aurrean egunkari bat jarri zidan orduan. La Vanguardia zela uste dut, eta

lehenengo momentuan ez nintzen esaten zuenaz ohartu, hitzak ulergarri zirela bakarrik, Greziako letra bihurri haien ondoren; hitzak ez ezik, haien atzeko errealitateak ere ezagunak zitzaizkidan: Garzon, HB... Ez dakit zenbat denbora behar izan nuen jabetzeko, segundo batzuk besterik ez seguru asko, baina segundo labur horietan astia eman zion Conrado zipotz hari beste zitalkeria bat botatzeko:

– Ederki eman dizuete orain ere, e, Ibarretxe?

Orduan bai, orduan ikusi nuen: Garzonek HB-Batasuna-EH legez kanpo uzten zuela ETArekin lotura izateagatik; debekatuta geratzen ziren haren ekintzak oro eta ixteko agindu haren egoitzak. Irakurri eta gero ere durduzaturik geratu nintzen. Ez dakit Conradok beste zapokeriarik bota zidan, ezer esanda ere ez nion adituko. Garbi aditu nuen ordea Aneren ahotsa, nire bizkar gainetik titularrak irakurri eta gero:

– Ostia!

– Non hartzen dira taxiak? Goazen aireportura –esan nuen nik.

– Ez al zineten egun batzuetan Bartzelonan geratzekoak? –sartu zen tartean Conrado–. Baditut zuei erakusteko bazterrak.

Egia zen: oporraldia beste pixka bat luzatzeko asmotan ginen, beti gustatu izan baitzaizkigu Bartzelona eta bertako giroa; gau batean bakarrik geratzekotan ginen hala ere, iraileko burrundara hasterako dendan dena prest eduki nahi nuen-eta. Irakurritakoak irakurri eta gero, ordea, ez neukan nik turismorako gogo handirik.

– Etxera joan behar dugu lehenbailehen. Auskalo zer gertatzen den han.

Erdaraz esan nuen, Conradok ulertzeko moduan, eta Espasako marketinlaria isilik geratu zen behingoz, beharbada une batez pentsatuz agian astakeria bat zela Espainiako agintariak Euskal Herrian praktikatzen ari ziren politika; edo, seguruago, bere artean barruntatuz, Ibarretxe goitizenarekin adar joka hasi zitzaidanean uste zuena baino arriskutsuago ote nintzen, izatez.

Banintz bai, arriskutsua! Elkarriko kuota-ordaintzaile txintxoa nintzen-eta, Jonan Fernandezen hitzak zeruko mana gozoaren gisa jaten zi-

tuena, denekin ongi konpondu nahi luketen txepelen koadrilakoa.

Ni izan nintzen, gainera, 2001eko maiatzeko hauteskundeetan Ibarretxe Ajuria Enera aupatu zuten milaka lagunetako bat, jeltzaleengan egundoko konfiantzarik eduki ez arren neofrankisten itzulera baino hobeak zirelakoan, mutur bien arteko erdibide elkarrizketazalearen alde. 2002ko abuztu amaiera hartan, baina, ekidistantziarako tartea porroskatu eta gainbehera erori zela iruditu zitzaidan. Bartzelonako portuan irakurritako egunkariarena zegoen, baina egun horretan bertan, etxera iritsitakoan, telebistan ikusi genituen Ertzaintzako beltzak HBko egoitzak ixten, militanteak porrazoka uxatzen, buruzagiak ere indarrez kaleratzen. «Ez dago eskubiderik» esaten nuen nik marmarka eta begi-ertzak malkoz betetzen zitzaizkidala, zipaioen gasek telebistako pantaila iragan balute bezala.

Horraino nire kexu kolektibo eta politikoa; baina orri batzuk atzerago esana dut banuela deitoratzeko beste kontu pertsonalago bat ere, sentimentala alegia, eta, dena kontatuko nuela agindu baldin badut, ezin egingo dut orain atze-

ra, hitza ez betetzea, itsusia izateaz gainera, ikuspegi literariotik inkoherentzia hutsa izango litzateke-eta. Horra ba.

Etxera itzuli ginenetik arraro samar zebilen Ane; petralduta batzuetan, burumakur beste askotan; baina ni ez nintzen askorik ohartzen, eta ohartuta ere ezingo nion jaramon handirik egin, nahiko lan baineukan testu-kanpainarekin; testu-kanpaina esaten diogu, liburugintzan gabiltzanok, ikasturte hasierari, bolada horretan saltzen baitira eskoletan agindutako ikasliburu, karpeta, kaiera eta bestelako material osagarri guztiak. Urte osoan adina saltzen dugu irail horretan; egia da PPren gobernuak prezio librea jarri zuenetik hipermerkatuek kendu digutela salmentaren zati handi samar bat, baina gurean hainbestean eusten genion hala ere, beharbada duela gutxi arte irakasle izana nintzelako eta horrek fidagarritasunezko plus bat ematen zidalako edo. Nahiago nukeen jendeak harrapazka eramango balitu Montoia, Epaltza edo Canoren liburuak, baina ez nion inori muzinik egingo 5. mailako Matematika edo 6.eko Ingurua eskatzen baldin bazidan. Dena dela, ez da hau euskal ira-

kurleen gustuak aztertzeko garaia, Anerekikoa kontatzekoa baino.

Hil hasiera hartan tarteka baizik ez zuen agertu behar Iruñean, iraileko azterketak egiteko eta. Gainerakoan erdi oporretan zebilen oraindik, eta, ni gainezka bainenbilen dendarekin, etxeko ardura berak hartu zuen, niri laguntzearren. Iluntze haietako batean, itxi denda, egin biharamuneko eskariak, ordenatu paper guztiak, eta pott eginda etxeratu nintzen gaueko bederatziak jota, ez goserik ez ezertarako gogorik gabe. Telebistaren aurrean eseri nintzen, plof!, eta ETB2ko berriak ikusten ari nintzela Anek deitu zidan sukaldetik.

– Ez daukat goserik –esan nion nengoen lekutik.

Bera etorri zen orduan nire ondora. Larunbatean Bilbon egin behar zen manifestazioaren berri ari ziren ematen. Legeztatua ote zen, ez ote zen, Garzon gora, Baltza behera...

– Joan beharko dugu, ezta? –esan nion Aneri.

– Gauza bat esan behar dizut aurretik.

– Berdin zait debekatzen badute ere. Ni han izango naiz.

– Ez da horretaz.

– Zer?

Burua jiratu eta Ane negarrez hasteko zorian zegoela ikusi nuen. Burua kamustuta neukan artean ere, espainolen zapalketa zikin hark zenbaterainoko mina egin zion pentsatu bainuen, besterik bururatzeko ezgauza. Ez zela hori errepikatu zidan orduan, eta, nire bekainen galde-ikurra ikusita, aurrera segitu zuen:

– Gogoratzen Conrado?

– Gogoratuko ez dut ba! Lerdejario halakoa!

Ez nion antzik ematen zertara zetorren babalasto harekin, baina aurki argituko zidan Anek berak. Elkarrizketa luze, nahasi eta kaotiko samarra izan zen, hemen berritzen hasiz gero orri asko beteko lituzkeena, gauerdia pasa eta gero ere hantxe jarraitzen baikenuen bai eta ez, atzera eta aurrera. Funtsean, baina, hauxe zen kontua: kruzeroan barrena, Conrado hasiera-hasieratik ibili zen berarekin gozo eta txeratsu (horrenbeste, ikusi nuen nik ere); ni, berriz, neure liburuak hartu, haietan buru-belarri sartu, eta beste ezertaz ez inortaz axolatu gabe egon omen nintzen itsasaldi osoan (hori ere onartu be-

harra neukan); hala, Conrado hori gero eta ausartago, bere losintxak gero eta lotsagabeagoak omen ziren (horretaz ez nintzen ohartu); eta, zer gertatuko-eta, bidaia amaitu aurretik, Anek baiezkoa eman ziela haren proposamenei.

– Nola? –atera zitzaidan ulu batean.

– Nola zu hor zeunden beti, zeure liburuarekin.

– Hortaz nirea da errua?

– Ez nuen hori esan nahi. Kuriositatea ere bazen. Pentsa, noiztik gabiltzan gu biok, beti elkarrekin.

Ez nion galdetu, banuen gogoa baina, zer moduzkoa izan zen esperientzia. Konparazioaren beldur izango nintzen akaso. Dena dela, «esperimentu epidermiko» bat izan omen zen, halaxe izendatu zuen Anek, eta ez omen zuen errepikatzeko asmorik.

– Conrado deika eta deika baldin badabil ere.

– Kabroia halakoa.

– Madrilera joateko esaten dit, kimikoen kongresu baten aitzakian.

– Ze ondo.

– Edo bestela etorriko dela bera, di-da batean, hemengo dendak bisitatuz bidenabar.

– Horixe bai polita. Niri bisita egin, di-da batean, eta gero nire andrearekin, riki-raka.

– Ez zaitez zabarra izan.

– Ez naiz ni ibili esperimentu epidermikoak egiten.

– Ez dakit zertarako kontatu dizudan –eta negarrari eman zion.

Negar eta kontsolamendu artean ibili ginen biok ere, gaueko ordu txikiak arte. Dena ahaztea erabaki genuen, barkatzea, elkarri ezer ez aurpegiratzea. Ados. Geroztik ez diot Aneri inoiz hura gogorarazi, eta bihotzaren barrenetik ere barkatu dudala esango nuke. Ahaztea, ordea, ez da borondatearen kontua: trepanazio bat beharko litzateke horretarako, eta gainera beste zerbait dago: bizitzaren sentimendu homeopatikoa. Esplikatuko dut gero hobetoxeago, orain beste zer edo zer azaldu behar dut-eta: gure solasaldi hori hasi zen momentuan iragartzen ari ziren manifestazioarena.

Gauzak azkar aldatzen dira gure herri honetan; gaur sekulakoa dirudiena ahazturik egongo

da etzi. Hala, bada, 2002ko irailaren 14ko Bilboko manifestazioa zer izan zen atzendurik izango duzu akaso irakurle okitu horrek, baina han izan ginenontzat ez da erraza izango; barkatu, barkatuko dugu agian batzuek (nik Anerena bezala), baina ahazteko beste zerbait beharko da, ez trepanazio kolektiboa behintzat. Dena delako arrazoiengatik han izan ez zenarentzat, bi pintzelkada, «Lotsaren eguna» deitu zitzaion haren oroigarri.

Batasuna legez kanpo utzi zutela-eta, neurri faxista horren kontrako mobilizazio handi bat antolatu zen egun horretarako. Bilbora autobusez gindoazela, ordea, ez zegoen garbi manifestazioa egiten utziko ziguten edo ez; Garzonek, ETAk antolatua zela esan zuen; antolatzaileek, berriz –tartean Joxerra Etxebarria UEUko aspaldiko ezaguna–, elkarretaratze jendetsu eta baketsua izango zela, eta inor ez zedila urduri jarri; Baltzak, ostera, egin beharrekoa egingo zuela. Bildu, behintzat, bildu ginen, Aita Donostia plazan, milaka eta milaka lagun, haserre baina pozik, urduri baina lasai, kontraesan hori ulertzen baldin badidazu, irakurle unatu horrek. Jo-

xerra agurtzeko gogoa geneukan bai Anek bai nik eta, kazetariz inguratuta zegoen arren, beti bezain atsegin eta jator hartu gintuen.

– Utziko al digute pasatzen? –galdetu nion, denon buruan zegoen kezka ahora eramanez.

– Utziko ez digute ba! Giza olde hau ikusita, nor ausartuko da ba gure eskubide funtsezko bat galarazten?

Orduantxe zen abiatzekoa manifestazioa eta, gu ere han ginenez, burutik hurbil gindoazen, halakoetan normalean atze aldean joan ohi ginen arren. Giroa, egundokoa; jendetza, ikustekoa. Aurrera egiteko ere lanak genituen, hainbestekoa baitzen alde guztietatik etorri eta elkartzen zitzaigun jende piloa. Halako batean, baina, Autonomia kalean aurrera gindoazela, hor ikusi genituen beltzak, ez kalearen aldamenetan gure ibilaldia zaintzeko, erdi-erdian baizik, pasatzea eragozteko. Marmar bat hasi eta hazi zen gure artean, baina marmarren gainetik argi entzun genuen, aurrealde hartan geundenok, Joxerraren ahotsa:

– Lasai, ez da ezer pasako.

Ez da ezer pasako: esaldi ironikoa dirudi, antzeko agindua baitzeukaten beltzek ere, hots, handik ez zela inortxo ere pasako, eta horretarako zeukaten prestatua sekulako hesia, tanketa eta guzti. Hortik aurrerakoak... zertarako kontatu? Guk pasa egin nahi genuela, beltzek ezetz; antolatzaileetako batzuk ertzainekin negoziatzen saiatu, baina alferrik; mutiko batzuk urduri, aldameneko kaleetatik ertzainei xaxaka; ertzainak artega, beren bokatxekin mehatxuka; jendea gero eta beroago, gero eta haserreago, eta beldurtiak gero eta beldurtuago, zer gertatuko; gomazko tiro batzuk izan ziren, harriren bat ere bai; garbi zegoen ez zigutela pasatzen utziko, baina gu ere ez geunden etxera joateko, ez horixe. Aurreko lerroetatik Joxerraren ahotsa iritsi zitzaigun berriro, lasaitasun eske, gure jarrera baketsu baina irmoaren erakusgarri eseri egingo ginela esanez, hantxe, geunden tokian, kalean, eta ez ginela handik altxatuko pasatzen utzi arte.

«Ondo esana!», bota zuen baten batek, eta denon sentipena adierazi zuela esango nuke. Denok lurrean eserita, jai giro moduko bat zabal-

du zen gure artean, txantxa eta kantu, nahiz eta, aldi berean, airean sumatu burdinaren goritasuna, uniforme, kasko eta kaputxen barruko izerdiaren likina. Ni ohartu gabe nengoen eta Anek esan zidan: «Begira horri»; gizonezko bat zen, ertzainen aurrean biluzik eta besoak zabalik; gure jokaeran bortizkeria arrastorik ez zegoela erakusteko modu zoragarria iruditu zitzaidan, eta mutikoa nintzeneko erreferentzia hippyak etorri zitzaizkidan gogora: *flower power*, margaritak kanoien ahoetan sartuta, *Hair* filmeko txima luzeak, egin maitasuna eta ez gerra... Eta orduan, bat-batean, argi ikusi nuen zein zen nire bidea, zer zen hor bizitzaren sentimendu homeopatikoak edo alopatikoak eskatzen zidan jokaera, historiaren zentzu arduratsuak galdatzen zidan erantzukizuna.

Ez bat eta ez bi, altxatu egin nintzen. «Nora zoaz?» entzun nuen nire atzean baina, ez entzunarena eginez, ertzainen aurrean paraturiko *stripper*-aren ondora joan nintzen. Mutil sendo bat zen, ni baino gaztexeagoa, ileluze eta bizarduna.

– Axola zaizu ni ere... –hasi nintzaion, lotsaz bezainbateko ilusioz.

Goitik behera begiratu zidan.

– Egik nahi duana–esan zidan.

Ez nuen bi aldiz pentsatu. Di-da kendu nituen jertse-zamarrak, praka-alkandorak, galtzontzilo eta elastikoak. Galtzerdi eta oinetakoak jantzita utzi nituen, halaxe baitzeuzkan nire lagun bizardunak ere. Haren jarrera neure eginez, beso-zabalik paratu nintzen neu ere. «Hori dok eta!» esan zidan bizardunak; begira jarri eta Jesukristo Superstar bat ematen zuen, hain ziur eta zindo; lapur zintzoa-edo izango nintzen ni, haren aldean txikitxo eta argala; beste atal batzuetako konparaziorik egin beharrik ez izateko, nahiago batere ez begiratu.

Emozionatu eta guzti egin nintzen momentu batez, eta garaipena lortua genuela iruditu zitzaidan, arrazoia ez ezik bihotz garbia eta estetika ederragoa dituenak berea duela etorkizuna. Estetika ederrarena ez dut geure gorputzengatik esaten, manifestazio jendetsu, baketsu eta koloretsuagatik baizik.

Une bateko lilura izan zen, ordea. Ertzainen kanoiek ez zuten gure margaritarik nahi. Zipaio-etako buru-edo egiten zuen bat etorri zitzaigun, eta Arkautekoa baino gehiago Chamberíkoa zirudien hizkeraz eta doinuz esan zigun, derrepentean janzten ez baginen, berak emango zigun ostia-zakukadarekin kenduko zizkigula bizkarreko hotzak. Erresistentzia baketsuan ari ginela erantzun zion nire ondoko Superstarrek, hizkuntza berean koanto, eta baietz egiten nuen nik ere, buruaz. Are gehiago hurbildu zitzaigun Baltzaren beltza, eta zentimetro gutxira errepikatu lehengo mehatxua, bere borra latza gure zintzilikario gurien ondo-ondoan dantzatzen zuela; nik uste inguruan tira ahala geneuzkan fotografoengatik eusten ziola hantxe bertan gu jo eta txikitzeko gogoari.

Fotografoak fotografo, nazkatu ziren halako batean. Nire homeopatiak halako efektu eskasa izango zuela jakin banu ez dakit ez ote nintzen neure txokoan geldituko baina, hasian hasi, eutsi egin behar gure protestari, hantxe gogor, sendo eta tente; bueno, ez guztiz tente, baina irmo, esan dezagun. Gure irmotasun hartaz nazkatu

zirela esan dut, edo gure gurutziltzatu-itxurari sinesgarritasun handiagoa eman nahiko zioten bestela, halako batean borrekin eraso baitziguten: zirti-zarta jo eta eraitsi; bigarren kolperako kuzkurtuta neukan gorputza, eta burua babestu nahian besoak; hirugarrenerako lurrean erorita nengoen.

Handixe ikusi nuen nola tanketetatik ura botatzen hasi ziren, presioan, manifestazioaren hasieran zeudenen kontra. Pankarta zeramatenak hari eusten eta aurrera egiten saiatu ziren, alferrik baina: uraren indarra handiegia zen eta lurrera botatzen zituen denak. Eserita zeudenak beherago ezin zituzten bota, baina elkarren kontra kixkurtuta eta dardarka geratu ziren; batzuk negarrez, besteak madarikazioka, denak haserre eta melatuta.

Okerrago geunden gu, hala ere: larru-bizirik eta, ur-txorrotadaren partez, egur-zaparrada jasotzen. Azkenerako nekatu egin ziren nonbait hain ehizaki ezdeusak jipoitzen, edo errukitu, edo baten batek eman zien agindua, bizkarra berotu bai baina ez zela prexixo hebain-hebain egitea ere. Kontuak kontu, hantxe geunden Jesu-

kristo eta biok, Adan eta Eba paradisutik bota zituztenean bezalatsu, Adan eta Adan zehatzago esanda, eskuez geure lotsariak estaliz, lotsaz baino gehiago astapotro haiek potroetan ostiko bat emango ziguten beldurrez. Beltzek, berriz, eskuetatik heldu eta esku-burdinak jarri zizkiguten, bakoitzari bereak, eta bultzaka sartu gintuzten furgoneta batean.

Atzera begiratu nuen, Ane non atzemango. Ez nuen ikusi ahal izan, hor nonbait izango zen baina, nahaste-borraste haren erdian, ertzainek urari nahastu bide zioten ez-dakit-zer horren azkurarekin begiak erreta, amorrazioak aski erre ez bazizkion, bestela ere. Egunotan kontatu didatenez, auskalo nola bukatuko zen kontua Arnaldok hitza hartu ez balu: hitzaldi soil baina eder batean beren adorea eskertu omen zien bertaratutako guztiei, gertatua salatu, eta lasaitasunean etxera abiatzeko eskatu, biharamunetik aurrera borrokan jarraitzeko, independentziaren eta sozialismoaren bidean. Haren hitzak ez ziren horiek izango zehatz-mehatz, baina halaxe kontatu didate niri eta halaxe geratu zait bihotzean; alferrik saiatuko da inor hori aldatzen.

Esan izan da egun horretan gauza asko aldatu zirela; Ipar Irlandako *Bloody Sunday*-rekin ere parekatu zuen baten batek, eta konparazioa neurriz gainekoa izango da, azken batean irlandarrei balak tiratu zizkieten eta guri ur txorroak eta gomazko pilotak *soilik*; baina nire baitan behintzat bai, asko aldatu ziren gauzak egun hartan, asko aldatu zirenez!

Baten batek noizbait esan zuen burua hotz, bihotza bero eta eskuak zabal jardun behar genuela, eta asmo eder horrekin joango ziren beharbada manifestazioa egiten saiatu ziren milaka andre-gizonak. Nik ez nuen halako zorterik izan, ordea: Superstar eta biok polizia-etxera eraman gintuzten, furgoneta blindatutik ziega beltzera zuzenean. Nik ere bero-bero nituen bihotza eta baita bizkarra ere, ezinbestean, baina *streaking*-ariketaren ostean gorputza aski hoztuta, dar-dar ikaran.

– Nun dagok gure erropia? –galdetu zuen nire lagun bizardunak.

Arropa ez zen agertu, baina horren partez manta bana bota ziguten, eta hartan bilduta pasa genituen arratsa eta gaua, biharamunean

epailearen aurrera eraman gintuzten arte, orduan txandal bana eman ziguten eta.

– Orain ikusiko juek honeek zipaio kabroiok! –esan zidan Jesukristok ahapeka, tratu txarrak, lesioak, umiliazioak eta beste hainbat gauza salatzeko asmoz.

Ni, ordurako, etxera joanda konformatzen nintzen; buruan nerabiltzan liburu-dendan zintzilik utzitako hamaika jestio; baina, bion ustekabe eta atsekaberako, ertzainek guri leporatu zizkiguten atentatua, desordenak eragitea, aginteari erresistentzia, terrorismo-ahalegina eta ez dakit zenbat kontu gehiago, eta, Barne Saileko abokatuari kasu eginda, espetxera bidali gintuen epaileak nire lagun bizarduna eta biok. Basaurira ekarri gintuzten berehala, eta handixe ari naiz orain lerrook idazten.

Bizitzaren nire sentimendu homeopatikoak gauza guztiak lotuta ikustera ninderaman, modu mekanizista eta inozo samarrean. Espasa Calpekoek sari bat ematen didatela? Ba, Txalapartako liburuak jarriko ditut eskaparatean gero; Anek Opus Deiko unibertsitatean eta espainolez irakasten duela? Ba, gure baitako zati erdalduna

baztertuegi eduki izanaren ondorio izan liteke. Horrela denak du bere azalpena, eta denen artean osatzen eta berrosatzen da uneoro harmonia unibertsala. Baina oraingoa gehiegizkoa zen: Anek adarrak jarri zizkidan Conradorekin; faxismo espainiarrak, jelkidismo euskadianoaren hitzerdikako kolaborazioarekin, galarazi egiten zidan manifestaziorako eskubidea, eta horrez gainera terrorismo-salaketarekin kartzelara eraman. Zer egin dut nik halakorik merezi izateko? Ezer ez, ez dut neure burua zigortuko egin ez dudanagatik. Eta, beraz, zer egingo dut orain planeten arteko oreka berreskuratzeko, munduan justizia existitzen dela berriro sinesteko, nire buru-bihotzen osasun homeopatiko batera itzultzeko?

2003-2004

BIZITZAKO GARAIRIK ONENA

Mertxe Oiartzabalek, amaren telefono-deia jaso duenetik, etengabe darabil gogoan orain dela hilabete batzuk kafe-makinaren inguruan izandako solasaldi bat; kafearen inguruko berriketaldi hutsa zen berez, ez munduaren arazo sakonak konpondu nahi lituzkeen hitzaldi mamitsu ustekoa, baina dena dela, berbaldiaren xehetasunak ahazturik izan arren, ondo gogoan du nola, halako batean, kutsu transzendentala eman zion hizpideari bere lankide Lolak:

– Oraintxe zaude zu bizitzako garairik onenean –esan zion.

Baieztapenaren biribila barrez hartzeko modukoa izan zitekeen, batez ere Mertxerentzat, ondo asko baitzekien bere bizimoduaren berri, baina bitxia egin zitzaion esaldia, ezin baitzion igarri argudioaren nondik norakoari, eta horregatik galdetu zuen:

– Bizitzako garairik onena? Zergatik?

– Gurasoak bizirik dauzkazu. Zeu zara zeure buruaren jabe, nahi duzun bezala bizitzeko, nahi duzun lekura joateko. Hemendik urte batzuetara, gurasoak gaixotu eta haiekin ibili beharko duzu, medikuz mediku. Horren ondotik bata hilko zaizu, edo bestea, edo biak. Eta gero, berriz, zeu hasiko zara antzeko gaitz eta komeriekin...

Pertsona alaia zen Lola, Mertxe bera baino zaharragoa, Europako Parlamentuko itzulpenzerbitzu hartan urte asko zeramatzana eta aurki hartu beharreko erretiroa buruan zeukana ia beti, nola bere bihotzeko Cadizera itzuliko zen, eta gelditukо zitzaion pentsio ederra nola eta zertan gastatuko zuen. Horregatik harritu zuen mintzaldiaren fatalismoak. Deskribapen objektiboa zen inondik ere, normalean aipatzen ez ditugun bizitzako gorabehera funtsezko batzuk modu gordin eta pragmatikoan xehatzen zituena, arazoaren beste hainbat alderdi alde batera utzi arren: zerbitzu sozialen egitekoak eta abar.

Mertxek gogoan du, hitz haiek entzun zituenean, ez ziola horrenbeste erreparatu esaldiaren azken atalari, eritasun, mediku-erromesaldi eta

heriotzaren iragarpen parte txarreko hari, ezpada haren aurreko azalpen gozo, ezti eta arrosa kolorekoari.

– Nahi bai nik neure bizitzaren jabe izan eta nahi dudan lekura joan, baina gaur goizean ere, Bahametara joan ordez hona etorri naiz, egun osoan itzuli eta itzuli aritzeko.

– Nahi duzuna esango duzu, baina gero datorrena beti da okerragoa.

Horra, bizitzaren filosofia oso bat hitz gutxitan azaldua. Mertxek ez zuen horretaz eztabaidan luzatu nahi, solaskide zituztenak beste zer edo zertaz ari ziren ordurako eta lankideen mintzagaira egin zuen jauzi berak ere, kafea amaitu eta bulegora itzuli aurretik, erdibidean zeukan agiriarekin jarraitzeko.

Ehunka solas eta milaka hitz aditzen ditu edonork egunero. Bere lanean Europako gizonemakume argienetako batzuen mintzaldiak entzuten ditu Mertxek tarteka, baita ergelenetako batzuenak ere egia esanda, argiak eta ergelak prezio berean saltzen baitira han; hitzaldi argi haietako hainbat itzultzea ere egokitzen zaio, frantsesetik nahiz ingelesetik espainolera maize-

nik, horiexek ditu lan-hizkuntzak. Diskurtso ondo harilkatu horien interpretazioan bere kemen eta jakituria osoz jardun arren, deus gutxi geratu ohi zaio haietatik guztietatik, gure burmuinean zer iltzatuko den eta zer labainduko aldez aurretik esaterik ez balego bezala. Munta handi samarreko kontuak bere oroimenean arrastorik txikiena utzi gabe joan zaizkio, eta Lolaren ateraldi xelebre hura, berriz, hantxe geratu zaio itsatsita, denboran barrena. Ez du uneoro ekartzen gogora, berak erabaki gabe eta ustekabean azaltzen zaiola esango luke, burutazioen haria nork eta nola gobernatzen digun ez baitago jakiterik, baina amaren telefono-deia jaso duenetik burutik uxatu ezinik dabil; beharbada, esaldiaren tesia ontzat emanez gero betiere, bizitzako garairik onena amaitu zaiola eta zoritxarren kate luze bezain ebitaezinean sartu dela ulertu balu bezala.

Aitaren prostata-arazoen berri bazekien lehendik ere Mertxe Oiartzabalek, azaletik badarik ere, aldian behingo bisitetatik eta etxera egiten

zituen deietatik. Bere «zer moduz aita?» galdera errepikatuari aldaera txikiekin erantzun ohi zion amak: hainbestean, tirriki-tarraka, hobetoxeago... Gaixotasuna gurasoen etxeko paisaia bihurturik zegoen, tonu griseko paisaia lasai bat, larrialdirik eta, batez ere, txarraldirik izan zezakeenik ematen ez zuena; eta txarraldirik izatekotan hantxe zegoen ama, haren egitekoa zen aitaz arduratzea, inori ere ez zitzaion bestelakorik bururatuko.

Orain, berriz, telefono-dei baten bitartez, aldi berean bi zafraldi: lehena, neurri batean espero izatekoa eta, pentsamendu hori burutik aparte mantendu nahi izan arren, etortzekoa zela bazekiena: aitarenak okerrera egin duela, eta laster operatu egingo dutela. Bestea, guztiz esperogabea eta, ezustekotik harago, gauza gertagarrien unibertsoan lekurik ez zeukana, orain arte: amak ez duela aita zaintzen ibili nahi, eta badoala etxetik.

«Buruan jotako sugea bezala» esan ohi zuen Mertxeren amak zuntzunduta eta erreakzionatzeko gauza ez zela geratutakoaren egoera azaltzeko. Deskribapen guztiz grafikoa iruditu zaio

beti Mertxeri, berak, naturatik eta baserri-mundutik urruti hazia izaki, delako suge hori zehazki nola geldituko zen ez jakin arren; hala ere, edo horregatik, gogokoa du esamoldea, bere hitz kuttunen altxorrean jasoa, ia inoiz erabiltzeko aukerarik izan ez badu ere, egoera aproposa gutxitan suertatu ohi delako, eta gaur egun, gainera, ingurukoekin euskaraz aritzeko modurik izaten ez duelako. Alabaina, esaera horixe datorkio oraintxe mihira, «buruan jotako sugea bezala», amaren iragarpenak eragin dion efektua nolabait adieraztearren.

– Zer diozu baina? –galdetu dio amari, hark esandakoa ulertu ezinik.

– Horixe bera. Aspertu naiz aitaren neskamea izaten. Berrogeita hamar urte nahikoa direla iruditzen zait.

– Baina orain, operatu behar dutenean...

– Horrexegatik. Ez dut erizainarena egin nahi beste hamar edo hamabost urtean.

– Baina orduan, nork zainduko du?

– Hori zuek ikusi. Norbait kontratatu edo... Herentziaren dirua ere lasai erabili, nik ez dut ezer behar.

– Baina ama...

Luze jarraitu dute, baina sorgin-gurpil berberari bueltaka dabiltzala ohartu da Mertxe, noriaren inguruan jiraka dabilen astoaren gisa, putzutik ezer atera gabe gainera. Bestalde, alaba ohartzen da buruan daukana eta amari esan nahi liokeena ezin diola inola ere esan. Nola esango diot ba, pentsatu du bere artean, egoista hutsa dela, bere obligazioa dela aita zaintzea eta haren ondoan gelditu beharko lukeela, ardura hori inoren gain utzi gabe?

Halakorik esan ordez, amari agindu dio lehenbailehen azalduko dela etxean, eta bitartean itxaroteko faborez.

– Bada, azkar etorri, ez daukat itxaroten egoteko asmorik eta.

– Bai, bai, bai. Lanean bi-hiru gauza konpondu behar ditut. Baimena ere eskatu beharko dut, oporrak agortuta dauzkat eta.

– Niri ez etorri opor kontuekin, nik ez dut inoiz oporrik izan eta.

– Eta orain egin behar duzuna?

– Horrexegatik. Inoiz egin gabekoa egin nahi dut behingoz. Neuretzat bizi.

– Egun pare batean uste dut konponduko ditudala hemengo kontuak. Gero hitz egingo dugu, horra iristen naizenean.

– Nahi duzun guztia hitz egingo dugu, baina ez pentsa iritzia aldatuko dudanik.

Bat-bateko oporraldi behartu bat antolatzen eman ditu Mertxek hurrengo egunak: zerbitzu-buruarekin bildu da aste batzuk hartu behar dituela azaltzeko; ez dago gustura, ez baitu maite inori mesederik eskatzea, inorekin zorrik izatea; dena dela, lan-hitzarmenak aurreikusitako kasua da gurasoen edo seme-alaben gaixoaldietan lanegun batzuk libratzea.

– Eta egun gehiago behar badituzu ere... –esan dio zerbitzu-buruak.

– Bai, beharko ditut. Soldatarik gabeko baimena eskatuko dut.

Lanarekikoak bideratuta, bere agendako konpromiso urriak konpondu ditu eta, horren ondotik, logistikaren ingurukoei heldu die: etxeari dagozkion gorabehera guztiak, argia, gasa, ura, fakturak, loreontzien ureztatzea...

– Lasai –esan dio Lolak, etxeko giltzak eta argibideen orria eskuetan hartzen dituela–. Nire kontu dena.

– Postontzian uzten dituztenak...

– Bai, bai. Kontaktuan egongo gara. Zoaz behingoz.

Joateko plana ere zehaztu du prestakuntza-egun horietan: hegazkin-txartela garesti aterako zaio, egun batetik bestera ezin bidaia merkerik ez modukorik lortu inon, baina trenez joanez gero amorratzen egingo luke bidaldi osoa, eta okasiorik behar izatekotan nekez topatuko du oraingoa baino aproposagorik.

Mertxe Oiartzabal ohiturik dago bere arazo pertsonalak bere kolkorako gordetzen, inori kontatuz gero onenean lortuko lukeen errukiak ez dio onik egiten, eta txarrenean inoren mihian ibiltzeak bere onetik ateratzen du. Hobe isilik beraz. Bere baitan gordetakoak, baina, egoste etengabeko batean dauzka, pol-pol-pol, inora atera ezin dituenez barrua lasaitu ezinda. Aldegiteko prestakizunetan ibili den bitartean gaitz erdi, burua

horretan erabili du sikiera, baina bidaiari ekin behar dion unean indar osoz datozkio burura amarekiko solasaldian elkarri esan dizkiotenak, eta batez ere elkarri isildutakoak.

Amaren erabakian pentsatzen du. Ez du ulertzen. Ez du onartzen. Baina aldi berean, bere baitako ahots razional batek esaten dio ez duela onartu beste irtenbiderik, eta ulertu nahi ez badu ere amaren bizitza dela, bere ama ez ezik gizaki beregaina den Enkarni Zabaletarena, eta ama dela haren jabe bakarra. Hortxe dago koxka, pentsatzen du Mertxek bere artean, bere bizitzaren jabe izatea edo ez izatea. Bakarrik bizi da bera, edozein konpromisotatik aske eta urruti, eta horrenbestez ulertu beharra du, nola ez, loturetatik jare ibiltzeko gogoa. Alabaina, behin emandako hitzak noiz arte lotzen gaitu? Lagunen erdiak ikusi ditu dibortziatzen, berak horra iritsi beharrik gabe eten zituen, gogo onez edo txarrez, bere lokarriak, eta hala ere kosta egiten zaio amaren ihesa irensten, eztarri parean korapilo bat eginda geratu balitzaio bezala.

«Nola izan zaitezke horren egoista, horren berekoia?», esaten dio Mertxek amari alegiazko

solasaldi batean, bai baitaki inoiz ez dela halako hitzik ahoskatzera iritsiko. Irudimenezko ispilu batean ama ikusi du gero, berak aurpegiraturikoak errepikatzen, alderantziz baina:

«Nola izan zintezkeen horren berekoia, horren egoista, gurasoak hemen utzita Bruselara joateko?»

«Ni oraindik gaztea naiz. Neure bizitza egin behar dut».

«Gaztea? Aspaldi neskazahartua bai».

«Neskazahartuta ere zer? Nire erabakia da».

«Zure erabakia? Mutil hark ez al zuen berak aldegin?»

«Berdin dio. Inorekin lotu ez banaiz, ez daukat inor zaindu beharrik. Zuk berriz...»

«Nik berriz zer? Hil arte aguantatu behar al dut zure aitaren ondoan, bota ezin den fardel bat balitz bezala?»

«Hil arte ez baina...»

«Ba, orain uzten ez badut, ez dakit ba noiz...»

«Baina orain gaixo dago aita, zu behar zaitu zaintzeko».

«Et-et-et. Norbait behar du, hori bai. Baina zergatik izan behar dut nik?»

«Bere andrea zarelako».

«Orain arte hala izan naiz, baina aspertu naiz».

«Ze erraz esaten duzun, ‘aspertu naiz’!»

«Apaiz sartu behar al duzu orain, niri sermoiak botatzeko?»

«Ez da hori baina, bizitzako harreman batzuek erantzukizun bat eskatzen dute gero».

«Eta alaba izateak ez ala?»

«Ba...»

«Ezin esango duzu gurasoek zaindu ez zintuztenik behintzat».

«Ez, ama, badakit hori, eta eskertuta nago, baina...»

«Ba, oraintxe duzu eskertzeko aukera, nahi baldin baduzu».

«Ez dizut ezetzik esango, baina ez nuen nik aukeratu mundura etortzea, ez nuen nik eskatu zuek zaintzea».

«Horretan arrazoi duzu. Ez dizut ezer esijituko, baina zuk ere ez niri...»

Bere buruan jokatutako ping pong partida bat iruditzen zaio amarekiko eztabaida asmatu hori, eta gogora etorri zaizkio lanetik atera eta gero,

Bruselako bere apartamentu koxkorrean sartuta, beste zereginik ez eta bere buruaren kontra jokatzen dituen xake-partidak.

Oroitu nahi ez duen bikotekide ohia zen xakezale amorratua. Horretan ere nortasun obsesibo eta egoskorrekoa. Orduak ematen zituen teknika ikasten: xake-liburuak irakurtzen, maisuen partidak errepasatzen, jokaldiak buruz ikasten... Maite dugunaren gauzak nolabait ere maitatzen ditugulako eta bestela bakardade-ordu gorriak pairatu beharko zituelako, Mertxe ere sartu zen xakearen munduan, ez bere senargai haren moduan baina. Ez omen zen txarra, buru azkarra omen zuen Mertxek, mutil-lagunak esaten zionez, baina ahalegina eta ekina falta omen zituen (ordu luzeetako ikasketa, irakurketa eta hori dena). Bizitzan hori baino lehenagoko kezkak bazituela-eta, ez zen buru-belarri murgildu xakelarien galaxia hartan; zaletasun huts gisa bizi izan zuen, tarteka interesez eta tarteka gorrotoz, mutilaren interes-eskalan bera 8x8ko taularen atzetik geratzen zela sentitzen zuenetan; harekiko harremana erabat hautsi zenean, berriz, ez zuen xakea ahazturaren zokoan baztertu, eta gaur

egun denbora-pasa moduan erabili ohi du: ez du Bruselako xakezaleen klubetan izenik eman, baina etxeko ordenagailuaren kontra jokatzen du tarteka partidaren bat, eta aldian behin taula egongelan paratu eta berak jokatzen du bere buruaren kontra, txurien nahiz beltzen mugimenduak erabakiz txandaka, oraintxe, Bruselatik dakarren hegaldian egin duen bezalatsu, bere amarekiko eztabaida amaigabe horretan.

Mertxe Oiartzabalek bazeukan amari eskatzea aireportura bila etortzeko, baina gogorik ez parkingean bertan eztabaidan hasteko, eta, hortaz, taxian iritsi da etxera, autoaren kristalaz bestaldean trafikoaren emanari, errepide ertzeko pabiloiei eta mendietako baserriei begiratzen diela. Paisaia ezaguna, etxean sentiarazten duena, bere etxea zein den ongi ez badaki ere.

Garai batean «etxea» deitzen zuen hartara iritsi da, eta bere gela izandakoan utzi ditu maletak eta trasteak. Ikasten kanpora joan zen garaian zeukan bezalaxe segitzen du logelak, ia hogeita hamar urte igaro ez balira bezala, orduko

papera paretetan, orduko argazki txintxetaz josiak, orduko apaingarri hippyak han-hemen zintzilik. Ikusi orduko piztu zaio denboran atzera egitearen sentipen gazi-gozo bat, nahiz eta ez izan etorri zaharra: urtean bizpahiru aldiz itzuli da azken aldian, Gabonetan eta udan usuenik, eta etortzen den aldiro bertan hartzen du orain ostatu. Oraindik gordetzen du Gasteizko pisua, Aranbizkarran modu onean erositakoa, baina orain errentan utzia dauka, hutsik edukitzea alferrikako gastua zela eta.

Bidaiaren nekeak buruko min moduko bat eragin diola-eta pixka batean etzango dela esan die gurasoei.

– Kafesne bat prestatuko dizut –entzun du amaren ahotsa, sukaldera doala.

– Ez da prexixo.

– On egingo dizu. Hainbeste joan-etorri eta...

Esnekiak hartzeari aspaldi utzita dagoela esan nahi lioke, baina sukaldetik entzun diezaion ahotsa altxatu beharrak nagikeria handiagoa ematen dio; ohe gainean etzanda begiak itxi ditu apur batean, argiaren giltza amatatzen den bezala eten nahiz inguruko estimuluen emana.

Hegazkinaren marmarra, taxiaren urruma, azafaten aurpegi irribera, taxilariaren garondoa, etxeko komuneko ur-hots ezagunak, sukaldeko baldosa betikoak, amaren ahotsa, aitaren ahotsa, amaren besarkada, aitaren besarkada, hegazkineko jarlekua atzera eramateko botoia, bere oheko koltxa xaharra, Bruselako etxeko ohazal nordiko berria, maindireen ukitu aspaldikoa, amari maindire lisatu berriak tolesten laguntzen zionekoa, eta gero zer nahi duzu meriendatzeko, txorixo-bokadilloa ala kafesne-zopak...

– E... Zer?

– Hemen duzula kafesnea.

Ama dauka aurrean, kafesne katilu beroa eskuetan, eta hura prestatu bitartean lo gelditu dela konturatu da Mertxe, erdi ametsetako irudien gatibu oraino.

Une batez ogia eskatzekotan egon da, kafesne-zopak egiteko, umetan bezala, baina sentimentalismoaren erasoei amore ematea iruditu zaio eta baztertu egin du burutazioa.

– Ama, serio hitz egin behar dugu –esan dio.

– Beharko hitz egin. Baina orain ez; aita kuartoan dago-eta, hortik dena aditzen du.

– Ez al diozu esan zer egiteko asmoa duzun?

– Zertarako esan behar diot? Nahiko disgustu badu gizajoak operazioa egin behar horrekin.

Operazioa. Beti horretara iristen da, nahi ezta ere.

– Zer moduz dago aita?

– Ondo. Ikusi duzu. Makal antxean baina, lehenago ere ez zen hori dantzari ibiltzekoa.

– Eta operazioa, derrigorrezkoa al da? Ezin al du segitu bere martxan, ttirri-ttarra badarik ere?

– Ezetz esaten dute medikuek. Bestela, hola utziz gero...

Buru-mugimendu bat egin du amak, hitzak sobera laga dituena.

– Dena aditzen dizuet –entzun da burrunba baten moduan gizon baten ahots erlastua.

– Ikusten? Esan dizut, aitak dena aditzen duela.

Hitz beste egin du orduan Mertxek.

– Bueno, ni orain dutxatu eta aldatzera noa. Segituko dugu gero.

– Kafesnea ez duzu probatu ere egin.

– Ama! Amarena egiten segitu behar al duzu beti?

– Hori bai ezetz. Esan nizun, eta ikusiko duzu.

– Bale, nahi duzun bezala.

Ama zutik dago, Mertxeren ohearen aurrean, kafesne katilua eskuetan duela, joateko prest bezala, baina joatera deliberatu gabe hala ere. Isiltasun une bat sortu da ama-alaben artean, biak elkarri begira, mututasun-jarrera horri nork gehiago eutsiko baleude bezala, edo batak besteari zer pentsatzen ari den igarri nahian bestela.

Amak hitz egin du azkenean.

– Ez al didazu Josuri buruz galdetu behar?

Bere anaia da Josu. «Nire neba» ikasi zuen esaten Mertxek Gasteizen lankide bizkaitarrekin. Gasteiz atzean utzita, bere anaia da berriz ere Josu: nire anaia txikia, nire anaia amorragarria, nire anaia maitagarria, nire anaia ipurterrea, nire anaia alaia, nire anaia txilibitua, nire anaia eskuzabala, nire anaia txoroa... izenondo sorta buru-

ratu zaio Mertxeri bainugelan dutxatzeko eranzten ari den bitartean.

Sei urteko aldea dago bien artean, eta tartean ez dute beste seniderik; ez tartean, eta ez goitik ez behetik. Biak bakarrik, eta sei urteko aldea. Gehiegi elkarren lagun izateko, eta gehiegi borrokan ibiltzeko ere. Mertxeren jarrera, ohartzen da ur-txorrotaren pean sartzen den bitartean, beti izan da ama batena. Bigarren ama batena, lehenengoa hor zegoen-eta, lehenengoa hor dago-eta. Ama batena bai, baina panpinetara jolasten den ama batena, edo ume bat izatera jolasten den neskato batena bestela.

Sekula ez ziren eskola berean ibili. Josu bihurrikerien adinean zegoenean nerabeen ametsetan kulunkan zebilen Mertxe, eta mutila adoleszentziara iritsi zenerako etxetik kanpo bizi zen arreba, ikasle-pisu batean. Harrezkero, sakondu ez baizik bakandu egin zen bien arteko harremana, bizikizunak bezain urrunak baitzituzten giroak eta erreferentziak. Mertxe asteburuetan etxera itzultzen zenean ere ez zuen anaia bertan topatzen. «Pirinioetara joan da, lagunekin» esango zion amak. Pirinioetara, kontzertu batera, eska-

lada egitera... Amaren azalpenen bitartez jakiten zuen nebaren berri, aldian behin ikusten ditugun familiako edo adiskideen antzera, aurrez aurre topatu gabe ere haren nondik norakoaz jakinean zegoela. «Zer moduz Josu?» galdetzen zuen etxera sartzean, han ikusten ez bazuen. «Zer moduz Mertxe?» imajinatzen zuen Mertxek galdetuko zuela Josuk etxera itzultzean. Ez arreba kontrolatzeko gogoz, ezta egiazko interesez ere, baina familiako lokarriek dakarten gutxieneko atxikimenduz.

Harreman mehe baina orekatu hori bat-batean lehertu zen, Polizia gurasoen etxera sartu zenean Josuren bila. Hura topatu ez eta esku-hutsik joan ziren, dena hankaz gora utzita. Txoriak aldegitea eraman ezinik, ordea, Mertxeren etxera joan ziren handik ordu gutxira, Aranbizkarrakoa erosi aurretik autobus-geltoki aldean alokaturik zeukan pisura, eta beraiekin eraman zuten atxilotuta. Bera, eta erosi berri zuen ordenagailua, artean etxeetan ikusten ez zen tramankulua.

Izu-ikara bat izan du Mertxek dutxapean, atxiloketaren akordua etorri zaionean. Komuni-

kabideen bitartez ez ezik, esperientzia hori jasandako lagunen baten bidez ere bazuen komisariako izugarrikerien berri. Bainera, poltsa, elektrodoak imajinatze hutsarekin shock-aren atarian zegoen, eta Poliziari baliagarri izango zitzaion ezertxo ere ez jakiteak ez zuen hobea egiten bere egoera.

Zorionez, ez zuten torturatu eta bi egunen buruan aske utzi zuten, epailearen aurretik pasatu beharrik gabe. Ordenagailua handik pare bat hilabetera itzuli zioten, eta beste bi eman zituen ostera ere piztu aurretik, halako beldur zentzugabe bat emango balio bezala, beharbada trantze hura bere garunetik ezabatu nahiko zuen, besterik gabe.

Lehen ere ez zen Mertxe Oiartzabal politikan sarturik ibiltzen, ezker abertzaleko lagun bat edo beste bazituen arren. Haiexek izan ziren laguntasun handiena eskaini ziotenak atxiloketa-aldiaren ostean, baina Mertxek, distantzia bat markatu beharra sentituko balu bezala, ezetz erantzun ohi zien haien laguntza eta proposamen gehienei. Handik hilabete gutxira, urruntasun ideologikoa jendaurrean ere nabarmen uzteko asmoz-

edo, ELAn eman zuen izena, eta Lakuako hauteskunde sindikaletako zerrendan joan zen.

Bolada hartan sarriago joan zen gurasoenera. Ama porru eginda zegoen, Josurena zela-eta. Aita, berriz, estreinako ikaraldiaren ondotik, mututasun sorgor batean sartu zen, bere seilu-bilduma beste kezkarik ez zuela, itxuraz behintzat. Josu klandestinitatean egongo zela imajinatzen zuten, non, nola edo zertan ez zekitela. Mertxek ez zeukan ama lasaitzerik, baina lagun egiten zion haren egonezinean. Gero, halako batean, mezu bat, ondo zegoela. Zerua zabaldu zitzaion amari, baina une bateko argialdia izan zen, handik aurrera ikara batean bizi izan baitzen, atxiloketaren bat zegoen bakoitzean, tiroketaren bat gertatzen zen aldiro, semearen izena entzungo ote zuen.

Urte batzuk iraun zuen zalantzazko ezbai horrek. Egun batean, Frantziako sarekada baten ondoren, Josu Oiartzabal Zabaleta aipatu zuten irratian, haren argazkia gero telebistan nahiz biharamuneko egunkarietan. Samin handiarekin batean, baita lasaialdi moduko bat ere amarentzat, okerragorik ere izan baitzitekeen, eta orain

izango baitzuen, azkenik, semea ikusteko aukera, barrote batzuen artetik izanik ere.

Barrote arteko ikusaldiak oroitzen ditu orain Mertxek dutxatik atera eta toalla handi batean biltzen den bitartean. Frantzian barrena egindako bidaiak, TGVn batzuetan, Hendaiatik Parisera, handik Fresnesera joateko; beste presoen senideekin batera autobusez besteetan, eta hirurak batera ere bai inoizka, Mertxek gurasoak autoan eramanda. Bere txarrean, familia inoiz baino elkartuago sentitu zuen joan-etorri haietan, baita bera orduantxe hasten zela anaia benetan ezagutzen ere, elkarri idatzitako eskutitzen bitartez.

Sei urte eman zituen Josuk Frantziako presondegietan, eta haien ondotik Espainiakoak etorri ziren, epaiketa berriak eta zigor luzeagoak. Orduantxe hasi zen ikasten ere, aurretik galdutako denbora aprobetxatzeko asmoz, edo urte luzeetako gau eta egunak erotu gabe betetzeko eginkizunen bat eduki nahian.

Historia ikastea erabaki zuen Josuk, munduaren martxa hobeto ulertzeko eta bere uste eta sinesteak oinarri akademiko sendoagoetan funtsatzeko edo. Ordurako hasita zeuden gobernuan

euskal preso ikasleei eragozpenak jartzen, eta kanpoko laguntza behar zuen Josuk hainbat kontutarako: burokrazia zela, liburuak lortzea zela, apunteak kartzela barruan sartzea zela...

Mertxe izan zuen hasieran ezinbesteko makulu. Harreman sarri horretan, baina, gero eta maizago trabatzen ziren neba-arrebak eztabaida politikoetan, Mertxeri gero eta desegokiagoa iruditzen baitzitzaion borroka armatuaren jarduna, edo –pentsatzen du orain, berriro janzten ari dela– aspaldi desegokia iruditzen zitzaion hura gero eta jasangaitzago baitzitzaion, Josuren aurrean ezin isiltzeraino, aldi berean jabetzen zen arren anaiaren egoera ahula zela oso, erakundeari egindako edozein kritika bere alde erabili baitzezakeen estatuak.

Urruntze ideologiko horrek zenbateko pisua izan zuen geroko erabakietan, ez daki Mertxek garbi bereizten; aldi berean gertatu baitzen neska batekin hasi zela ibiltzen Josu, Eguzkiñerekin, eta harrez geroztik Eguzkiñek bideratzen zizkiola arazo bibliografiko nahiz administratiboak. Anaiarekiko betebeharrez libraturik sentitu zen Mertxe hortaz, eta pentsatu zuen bere bu-

ruaz arduratzen hasi beharko zuela noizbait ere: urte askoan erdizka eta mamitu ezinik eduki zuen istorio sentimentala pikutara joan zen azkenik, eta aldi berean aurkeztu zitzaion Europako Parlamentuan itzultzaile sartzeko aukera, leiho zabaldu baten moduan ikusi zuena, hainbeste rollo txar atzean uzteko eta bizimodu berri bati heltzeko: beste hiri bat, beste herrialde bat, beste zeregin bat, beste hizkuntza batzuk, beste lagunarte bat... baina, bueltaren bueltan, hona hemen atzera: betiko etxean, betiko familiarekin, betiko kaka zaharra eta kaka berriagoak ere irentsi ezinik.

Komunetik atera behar luke baina ez duela atera nahi sentitzen du Mertxek. Kanpoan ama izango du zain, amarekiko betiko sestra amaigabea, edo aita, gero eta ezezagunagoa zaion izaki hori, orain bere ardurapean geratuko dela dirudiena, prostataren kura egiterainoko intimitatera iristeko arrisku larriarekin gainera. Komunean itxita geratuko litzateke gustura, edo bere nerabezaroko logelan bestela, paretetako argazkien

garaian bezala ingurukoengandik isolatuta, bere gauzetan pentsatzeko. Edo ezertan ez pentsatzeko hobeto, nirvana batean urtu beste ametsik gabe.

– Aterako al zara? –entzun du amaren deia–. Aitak komunera joan behar du.

Komun bakarreko etxea da gurasoena, eta ezin itxaronaraziko dio prostata-gaixo bati!

Bera atera eta aita sartu deneko une hori aprobetxatu du kalera atera behar duela esateko, herria asko aldatu den ikusteko-edo, eta amaren eskari edo aholkuei itxaron gabe itxi du atzean kaleko atea.

Herria... Mertxe Oiartzabalek gogoan ditu Brusela eta Estrasburgoko zenbait lankide, hiri handietan jaioak, betidanik halakoetan bizi izan direnak, eta beti hiriaren aurkako marmarrean dabiltzanak: zarata dela, kutsadura dela, trafikoaren zoramena batetik, harremanen hoztasuna bestetik. «Herri batean bizitzerik banu» esaten dute (dans un petit village), «edo landan bestela» (à la campagne).

Mertxek ez die kontra egiten. Aspaldi ikasi zuen irri txiki bat egin eta eztabaidak saihesten.

Baina barrutik beti pentsatu du ez dakitela zer dioten, edo ez dakitela behintzat zer goresten duten. Bera ez da herri txiki-txiki batekoa, are gutxiago baserrikoa, baina bizilekuari dagokionez beti uste izan du zenbat eta handiago hobe dela, orain arte egin dituen bizileku-aldaketetan behintzat hiri handiago batera mugitu da aldi bakoitzean, eta sekula ez zaio damutu.

Ez da zarata, edo trafikoa, edo kutsadura hirietan hainbeste maite duena, bere lankide hiritarrek hastio duten beste ezaugarri hura baino: harremanen hoztasuna. Izan ere, inork ezagutzen ez duen tokian sentitu ohi da bera gogara, inork agurtuko ez duen kaleetan paseatu ohi du gustura, inork komentariorik egingo ez dion saltokian egin ohi ditu erosketak.

Hirietako anonimotasun topiko baina hala ere maite hori etorri zaio gogora bere sorterriko kaleetan barrena dabilela. Gaztetan hemendik ihes egin zuen nolabait ere, txutxu-mutxuen zirkulutik hanka betiko, eta orain, bertara etorrita, ohartzen da ez dituela ezagutzen parean suertatzen zaizkion aurpegi gehienak. Bat edo beste bai, bera baino zaharragoenak oro har, izenez ez

bada bai behintzat bistaz, batzuek agurtu eta guzti egin dute, galdezka gelditzeko adinako konfiantzazkorik egokitu ez bazaio ere, zorionez. Baina gehienak ezezagunak zaizkio, Amsterdam, Anberes edo Koloniako kaleetan balebil bezala, janzkerek eta jarrerek hemengo kutsua duten arren, eta hori ere gero eta homologatuagoa gazteenen itxurei dagokienez. Azkenean, kanpoan bezain arrotz sentituko ote da ba etxean?

Parke batean banku huts bat ikusi eta bertan eseri da Mertxe, atseden hartzeko baino gehiago nora joan eduki ez eta bertan planto egitea erabaki duelako, zeregin hobe bat bilatu bitartean edo. Inguruan jolasean dabiltzan haur horietako baten ama berantiarra dela pentsatuko dute akaso, bestela arraro egiten da emakume bakarti bat parkean eserita, xelebrea gutxienez eta patologiaren baten susmagarri ere bai agian. Dena dela, bere arroztasun deskubritu berrian babesturik, aurretik dabilen jende-pasari begira geratu da: gizon eta emazte, zahar eta gazte, bakoitza bere arazoak bizkar gainean daramatzala.

Jende tipo guztien artean bat errepikatzen dela ohartu da Mertxe: emakume gazteak haurkotxearekin. Parke bat izanda, ez da harritzekoa. Emakume ninidun horietako batek, orrazkeragatik, bere ibilera edo keinuren batengatik, Eguzkiñe ekarri dio gogora. Eguzkiñe eta bere umea: Aitzol, gogoan du izena, izenduna oraindik ezagutzerik izan ez badu ere. Zenbat denbora ote du? Urtebete? Hamar hilabete? Hamalau? Hor nonbait. Amak abisatu zion jaio zenean, eta geroztik hainbat aldiz saiatu da haurra ezagutu dezan. «Zure iloba da!» errepikatzen dio, aitzakiarik onartzen ez duen argudio baten moduan, baina, bata dela bestea dela, orain arte ez da tokatu. Orain beharbada, pentsatu du Mertxek, egonaldia apur bat luzatzen bada...

Eguzkiñe bera ere ez du askotan ikusi. Bizpahiru aldiz: batean anaiari bisitan biak batera joanda, beste batean gurasoenean topo eginda, eta beste pare bat bider hitz egingo zuten telefonoz. Ez da eroso sentitzen haren ondoan. Ez dio ezer txarrik topatzen. Aitzitik, neska jatorra iruditzen zaio, idealista, maitakorra. Baina ez du ulertzen. Ez du ulertzen nola hasi litekeen ibil-

tzen neska gazte bat bera baino hamar urte zaharragoa den mutil batekin, mutil hori aurretik ezagutu gabe, eta gainera espetxean dagoenean, beste urte-parrasta batean ateratzeko esperantzarik gabe.

«Zergatik egin duzu?» galdetu dio, elkarrizketa irudikatu batean.

«Ez dago arrazoi berezirik. Maitemindu egin gara, besterik gabe».

«Inor ez da besterik gabe maitemintzen. Bilatu egiten duzu, nolabait ere».

«Bueno, maitemintzeko gogoa izango nuen, beharbada».

«Bai, baina ezezagun batekin, aurretik inoiz ikusi ez duzun batekin...»

«Aurretik gutunak idatzi genizkion elkarri, eta horien bidez dexente ezagutzen duzu pertsona».

«Ados. Gutunetan sintonia bat sentitu zenuen, eta Josu sakonago ezagutzeko gogoa. Baina harekin haur bat izateraino...»

«Pixkanaka etorri dira gauzak. Pausoak bata bestearen atzetik ematen dituzu, eta azkenean...»

«Hala ere. Norbaitekin ezkontzea, familia bat sortzea, zure bizitza erabat baldintzatzen duen pausoa da».

«Dudarik gabe, eta konbentzituta egin dugu».

«Baina nork bere bizitzari, bere etorkizunari begiratzen badio, ze panorama daukazu Josurekin? Beste urte mordo batean egon beharko du barruan!»

«Hori ez dago gure esku, eta bestalde, gauzak aldatu daitezke...»

«Asko aldatu beharko lukete».

«Gobernuak askatasuna kendu diezaguke, baina ezin digu kendu bizitzeko gogoa, eta gure bizi-gogo horren ondorioa izan da haur bat ekartzea».

«Aberriari egindako aportazio demografikoa?»

«Ez ezazu barrerik egin. Herri batek, biziko bada, haurrak sortu behar ditu, ezinbestean. Baina guk Aitzol ez dugu kausarengatik ekarri, geuk nahi izan dugulako baizik. Edo bizitzagatik beragatik, nahi baduzu».

«Hori oso polita da, baina pentsatu al duzu nolako bizitza izango duen Aitzolek hazten denean? Bere aitaren egoerak ez al dio, era batean edo bestean, kalte egingo?»

«Aitzoli ahalik eta bizitzarik ederrena ematen saiatuko gara Josu eta biok. Badakigu erraza izango ez dena, baina nork ez du arazorik bizitza honetan? Guraso-gaiei egokitasun-test bat egingo bagenie, seguru asko oso gutxik gaindituko lukete proba hori».

«Bai, eta itxuraz arazorik ez dutenek, beharbada gogorik ez».

«Adibidez zuk, ezta, Mertxe?»

Eguzkiñeren ahotan imajinatu duen azken sastakada hori ez lioke Eguzkiñek esango, inor ez litzateke horren krudela izango haurrik ez izatea erabaki duen edo egokiera onik izan ez duen emakume batekin. Ala bai? Beharbada ez lioke-te esango «haurrik ez izatea erabaki duen emakumea» ere, izendapen laburragoak erabili ohi ditu jendeak: «Begira neskazahar horri» esango lukete akaso. «Bankuan eserita dagoen hori? Hori ez al da ba herrikoa? / Bai baina, aspaldi joan zen kanpora. / A bai, e? / Bai, orain Europa-

ko ez-dakit-zer gauzatan omen dabil. / Kontxo, kontxo. / Baina, aita zaharturik eta, hura zaintzera etorri omen da. / Noski, berak familiarik ez-eta, bidezkoa da hori».

Buru barruko kalaka isilarazteko, bankutik altxatu eta pauso bizian aldegin du, balizko marmartien ikusmenetik urruti, baina bere barne ahots horiek segi egiten dute, eta segi, eta segi...

Gaur medikuarengana joan da aitarekin. Amak esan dio, hobe duela ohitzea eta eraman dezala berak. Aitak ez du ezer esan.

Goikolea doktoreak hartu ditu. Bera da urologia saileko burua eta egun batzuk barru aitaren ebakuntza egingo duena.

Mertxek lehendik ezagutzen ez zuen hitz mordoa entzun du denbora gutxian, asimilatzeko astirik gabe: prostata, prostatismoa, prostatalgia, prostotektomia, prostotorrea, estrogenoak, androgenoak, guruinak, hormonak, ademona, hiperplasia, uretraren inflamazioa, blenorragia, inkontinentzia, dispepsia...

Hainbeste berbakondoren artean ezer ulertu ezinik, xehetasun zehatzagoren bat galdetzea erabaki du Mertxek:

– Barkatu etetea baina, aitari egingo diozuen ebakuntzaren nondik norakoa azalduko bazenit, gutxi gorabehera...

– Bai noski –esan dio Goikolea doktoreak irribarre profilaktiko batekin–. Prostatarainoko irispide kirurgikoak bat baino gehiago dira. Ohikoena puxikan zehar iristea izaten da, sabelaren erdialdean ebakita, zilborraren azpialdean; beste aukera bat bide erretropubikoa izango litzateke, puxika zulatu beharrik gabe, eta azken bidea perineala izango litzateke... Aukera bakoitzaren on-gaitzak neurtu eta gero...

Aukera bakoitzaren on-gaitzak ezagutu gabe geratu da Mertxe. Zirujauak emandako zertzeladak entzun ahala, begi bistan daukana lausotzen sentitu du, zentzumenak nahasten eta sorgortzen, eta mintxuria eginda ziplo erori da lurrera azkenean, zer gertatu den ohartu gabe noski.

Apurka etorri da bere onera, eta kordea berreskuratu ahala Goikolea doktorearen aurpegia

ikusi du berearen aurrean, ondoan aita eta emakume ezezagun bat dituela.

– Hara, esnatzen ari da –entzun du Mertxek.

– N-non nago?

– Lasai, ez da ezer –esan dio Goikoleak, hatz pare batekin masaileko arinak jotzen dizkion bitartean.

– Z-zer gertatu da?

– Lipotimia bat.

– Nola?

– Zorabiatu egin zarela –esan du emakume ezezagunak. «Erizaina», pentsatu du Mertxek.

– Kirurgia-kontuekin ohiturarik ez, nonbait, eta inpresio handitxoa egin dizu aitaren ebakuntzaren azalpenak –jarraitu du Goikoleak.

– Barkatu, nik...

– Ez dago zer barkatu. Sentibera zarela esan nahi du horrek. Eta tentsioa baju samar daukazula, seguru asko.

– Larria al da hori? –galdetu du aitak.

– Ez, noski, aita egunero operatzen ez badiote behintzat.

Irribarre egin du Mertxek. Begiak ezker-eskuin mugitu eta etzanda dagoela ohartu da. Os-

pitaleko ohe batean? Ohatila batean? Gorputza altxatzeko keinua egin du baina kontsulta-gela jirabiraka hasi zaio begien aurrean.

– Ez altxatu oraindik –esan dio erizainak.

– Ospitalean geratu beharko dut? –galdetu du Mertxek.

– Gure konpainia atsegin duzun bitartean... –bota du Goikoleak, oraindik adar-jole, baina bere txantxari inork erantzun ez dionez serio jarraitu du–: Kafesnea eta galleta batzuk ekarriko dizkizugu, indar pixka bat har dezazun, eta ordu erdi edo ordubeteren buruan nahi duzun tokira joateko moduan egongo zara.

Hori esanda, bere irribarre profilaktikoa berriro azaldu eta gelatik atera da Goikolea doktorea, atzetik erizaina daramala. Ondotik sortu den geldiunean, esku bat sentitu du Mertxek bere eskua estutzen. Aitari begiratu dio, eta irri lotsati batean bat egin dute bien begiradek. Handik pixka batera, baina, gehiegizko samurtasunaren beldurrez-edo, estutua lasaituz doala nabaritzean, pixkanaka erretiratu egin du Mertxek bere eskua.

– Ederra zaude zu inor zaintzeko, ospitalera sartu orduko mintxuria egiten bazaizu –esan dio amak etxean.

– Ama...!

– Ez zenuen ba nahita egingo?

– Ama!!

– Ba, alferrik zabiltza. Nik ez dut atzera egingo. Zuk ikusiko duzu zer egiten duzun.

Mertxek gustura emango zion zaplazteko bat, guztiz errotutako tabu gisako batek eragotziko ez balio, edo bestela altxa eta ateari danbateko bat emanda aldegingo zuen, baina ezin berak halakorik egin, juxtu amak egin berri duelako. Hortaz, bere amorrazioa kanporatzeko biderik ez duela, ernegazioa bere saltsan egosten gelditu da, ondo txegosi ezin diren janari digerigaitz horietako baten antzera.

Zorionaren bila bizi omen gara. Horrek mugitzen gaitu hau egitera edo bestea uztera. Eta bere zorionaren izenean hartu du amak, nonbait, etxea uzteko erabakia. Zorionaren bila baino gehiago zoritxarretik ihesi. Ez al zuen Epikurok ere esaten, oinazetik ihes egitea dela gizakiaren

berezko joera, eta horrexek izan beharko lukeela bere jokabidea?

Gaixotasunen eremutik ihes egitea normala da, hortaz, alde batera. Ezin ukatuko dio amari zorionerako eskubidea! Eta berak? Argi du ez duela sakrifiziorako bokaziorik. Are gutxiago ospitaleetan ibiltzekorik, bere txorabioak erakusten duen bezala. Zergatik geratu beharko luke aitaren ondoan, amak ihes egin eta gero? Mila zor ditu gurasoekin, noski, geratzen zaien bizialdian haiek zaintzen egonda ere behar bezala ordainduko ez lituzkeenak, hainbestekoak baitira aitak eta amak gu haztearren hartzen dituzten lanak. Hala ere, gurasoekiko zorra norbere seme-alabekiko zaintzan ordaintzen dugu, nolabait ere. Naturaren legea da, animalia orotan betetzen dena. Berak, ordea, uko egin dio biologiaren deiari, espeziearen aginduari: ez du seme-alabarik ekarri eta ez du, horrenbestez, zorra nola kitatu. Zorra ote da ordea? Bizidun orok bere geneen iraupena bilatu ohi du, horren ondorioz gertatzen da ugalketa eta baita kumeen zaintza ere, bere kasa moldatzeko gauza diren arte. Geneen jarraipenik bilatu ez duenak bere

iraungitzearekin ordainduko du bere hautua, biologiaren aritmetikan bederen.

Biologiaren legeek menperatzen ote gaituzte?, galdetzen du bere baitan Mertxek. Alde batera bai. Horra hor Josu. Porrot politikoaz gain zigor pertsonal izugarria jasan behar du, baina bere geneek lortu dute erreproduzitzea, hor egongo dira, gorputz ñimiño batean hezurberriturik, amaren bularretik tiraka, bizitzaren taupada zoroan. Biologiaren morrontza gainditu duen espezie bakartzat dugu geure burua, eta horren froga argiak dira antisorgailuak edo bizitzaren luzapen asistentziala, baina, bururatu zaio Mertxeri, lorpen horiez geroztik ez ote da gertatu espeziearen nolabaiteko ahultzea?

Bestelako ikuspegia ere eduki liteke ordea, ohartzen da Mertxe. Gure espeziea da biologiaren beharretatik harago maitasunaren indarra deskubritu duen bakarra, eta horixe du bere arrakasta. Hortik dator solidaritatea, pertsonen nahiz herrien artekoa, hortik dator enpatia, bestearen lekuan jarrarazten zaituen sentimendua, hortik dator altruismoa, 1.000 kilometrora preso dagoen ezezagun bat bisitatzera eraman zaitza-

keena, eta baita harekin maitemintzera ere. Baina ez ote da altruismo horren aldaera moduko bat bere anaia eta anaiaren lagunak egiten dituztenak egitera daramatzana? Ala sakrifizio jatorraren deformazio metastasiko bat da zenbait pertsona, asmo on baten izenean, izugarrikeriak egitera eramaten ahal dituena?

Zer da, hortaz, bizitzaren pizgailua, zein da historiaren motorra, gizon-emakumeon bihotzak pilpiran jartzen dituena: berekoikeria zekena, ala altruismo eskuzabala...?

Gogoeta horietatik atera du bat-batean telefonoaren txirrinak.

– Mertxe?

– Bai, neu naiz.

– Eguzkiñe naiz.

– A, kaixo, Eguzkiñe! Zelan zu? Eta Aitzol?

– Oso ondo, oso ondo. Eta umea zoragarri.

Konplimendu atseginetan segitu dute beste puska batean, Eguzkiñek hariari heldu dion arte.

– Badakizu –esan dio–, aitaren ebakuntza dela-eta, paperak egiten ibili garela, ea Josuri

baimena ematen zioten hona etortzeko eta aita ikusteko.

– Ez nekien, baina oso ondo iruditzen zait.

– Orain arte egon gara erantzunaren zain, eta azkenean, operazioaren atarian, ezetz. Kabroiak halakoak!

– Horiekin, badakizu...

– Josuk izugarrizko ilusioa zeukan, eta orain...

– Ya. Disgustua izango duela.

– Horixe. Eta pentsatu dut, momentu txar horretan bakarrik egon ez dadin, bisitan joango naizela operazioaren egunean.

– Oso ondo. Eskertuko dizu.

– Horregatik ez naiz hor egongo, zuekin.

– Lasai, moldatuko gara.

– Nik nahi nuen baina.

– Ez kezkatu. Eta nola zoaz: Senideen autobusean?

– Ezin! Aste barruan izanda...

– A, noski.

– Neure kotxean joango naiz.

– Almeriaraino?

– Beharko. Hegazkinak daukan prezioarekin...

– Noski, noski. Eta Aitzol ere zeurekin eraman behar duzu?

– Hori pentsatzen egon naiz, baina paliza handiegia begitantzen zait ume txikiarentzat.

– Egia.

– Eta ezer ulertu barik, koitaduak.

– Hobe hemen geratzea, bai.

– Horregatik pentsatu dut, atrebentzia ez bada, bi egunerako zuenean uztea Aitzol. Ez da enbarazua izango, ezta?

Zer esango dio ba Mertxek? Ez duela umeak zaintzeko ez ohiturarik, ez jakintzarik, ez gogorik? Amaren esku utzi dezakeela ere pentsatu du.

– Nola izango da ba! Gustura asko zainduko dugu.

– Ez dakizu nola eskertzen dizudan, Mertxe. Zure amak esaten du bai, on puska bat zarela.

– Amak badakizu nolakoak izaten diren.

– Pozik lagunduko zenidala esan zidan, bai.

– A, amarekin hitz eginda zaude ala?

– Jakina, biok batera goaz eta.

– Nora?

– Almeriara ba.

«La puta madre...» etorri zaio Mertxeri burura, baina autozentsurak aski indar izan du mihiari eusteko, eta jendetasunez agurtu ahal izan du bere koinata.

– Hortaz, bihar eramango dizut umea, bai?

Mertxe Oiartzabali oroimenera datorkio noizbait irakurritako pasarte bat, ahaztua du non eta ahaztua du nork zioen ere, baina ondo gogoan du haren mamia; haren arabera, adindun bihurtzeko urte-kopuruari buruz legeek diotena diotela, norbera adin-nagusitasunera iristen omen da bere gurasoez erruki izaten hasten denean.

Errukia, askotan gaitzetsi izan den sentimendua, nagusikeriazko harremanaren iraunarazle delakoan, edo hala ikusten zuen Mertxek behintzat garai batean, etxean eta eskolan jasotako moral tradizionaletik ihesi zebilenean. Orain, berriz, ez du uste moral tradizional hartara itzuli denik baina, bestela ikusten ditu gauzak.

Injustizien ukendu kontsolagarria ez ezik, errukia izan liteke ezberdintasunezko egoera batean maitasunak hartzen duen forma, ahulareki-

ko onginahia. Zakur egurtu batek, afrikar gosetu batek, gurpil-aulkira loturiko haur batek errukia piztu izan badiote, aurrez aurre nahiz telebistan, nola ez dio ba antzeko sentimendua sortuko ospitalera daraman agure honek?

Orain sentitu ote du lehenengoz guraso batekiko errukia? Orain arte heldutasunetik urruti bizi izan dela esan nahi luke horrek, nerabezaro luzatu baten pribilegioak dastatuz, ardura eta erantzukizun orotatik ihesi. Hala ote da?, galdetzen dio Mertxek bere buruari, eta ez du erantzun argirik.

Ospitaleko azken bisitaldian, aitari laguntzera joan eta azkenean bera txorabiatu zeneko hartan aitak eman zion eskuaz oroituta, berea eman dio orain ondoan duen aitari. Eman ez ezik, estutu ere bai, bere berotasuna, hurbiltasuna, elkartasuna erakutsi nahian. Zerbaiten beharra ere izango du, ospitalera bidean doazenez gero, bertan ingresatu eta, egin beharreko prestalanen ondoren, biharamunean ebakuntza egiteko.

Aitaren autoan doaz baina Mertxek gidatzen duela, esku batekin orain, besteaz aitaren es-

kuari heltzen baitio. Semaforo gorri baten aurrean gelditu dira, eta hor askatu egin behar izan du eskua, kanbioa erabiltzeko. Aitarengana jiratu da gero Mertxe: berari begira dauka, begiak heze; ebakuntzaren beldur delako? Alabaren keinuak hunkituta? Ohi ez bezala, goraka sumatzen duen samurtasunezko sentimendu horri uhateak ireki, eta euri gozo baten antzera blaitu dezan utzi dio, behingoz.

Bozina bat entzunda, bere aurreko semaforoa berde jarri dela ohartu eta kaminoan ipini du arreta, ahal duen neurrian behintzat.

Bidean aitak ez du ia hitzik esan. Inoiz ez da berritsuegia izan, eta aspaldi honetan gutxiago. Aitarekin elkarrizketa bat noiztik ez duen izan gogoratzen saiatu da Mertxe, baina ez da oroitzen. Bere solas-ahaleginei labur erantzuten die: ondo, bai, ez... Aldi berean, amaren aldegitearen berri nola eman pentsatuz joan da bide osoan: hobe ote den etxean gelditu dela esan, denak ospitalean pilatzea alferrikakoa dela-eta, ala Josuri bisitan joan dela aitortu, baina laster bueltatzekotan, ala ziplo bota joan egin dela, ihes egin duela besterik gabe, eta berari behintzat ez diola

esan itzultzeko asmorik duen ala ez. Aitak galdetuz gero, erantzun bat edo beste aukeratu beharko du betiere; galdetzen ez badu, berriz, igual hobe ezer ez esatea, gizonak nahiko lan badu-eta bestela ere, buruhauste berririk eman gabe.

Isilik egon dira sarrerako tramiteak egin bitartean, isilik igo dira gelara, eta beharrezko hitzak esan dizkiote elkarri aitaren gauzak armairuan utzi bitartean.

– Nahi duzu laguntzea, janzten eta eranzten eta? –galdetu dio Mertxek gero, hitzei zer doinu eman asmatu ezinda.

– Ez. Na-nahiago bakarrik –aitak totelka.

– Bai noski. Kanpora joango naiz bitartean.

Pasilloan erretzeko gogoa etorri zaio bat-batean, berarentzat ere ustekabean, hogei urte baitira erretzeari utzi ziola. Ospitaleetan debekaturik dagoela gogoratu du. Noski, esan dio bere buruari. Tuntun bat bezala sentitu da. Ordulariari begiratu dio. Laster aita utzi eta Eguzkiñerekin gelditu behar du.

– Aita, joan beharra daukat –esan dio gero; ohean dago aita, gaixoen atorra xelebre hori jantzita.

– Ondo da.

– Laster egingo dizkizute azken prestaketak. Horixe esan dit oraintxe plantako erizainak. Goikolea ere etorriko omen zaizu, baina nik joan beharra daukat orain...

– Segi lasai.

Eskua hartu dio berriz. Muxu ematea pasatu zaio burutik, baina ez da horrenbestera ausartu.

– Etorriko naiz gero. Edo bihar, hobeto esanda.

– Ama ez da etorriko, ezta?

Eta esateko moduan Mertxek ez dio igarri, penatuta esan duen, ala lasaitu eder bat hartuta.

– Hementxe dauzkazu behar dituzun guztiak –esan du Eguzkiñek.

Josuren gela izandakoan daude, edo Josuren gelan esan beharko, paretak eta zokoak betetzen dituzten era guztietako afixa, zintzilikario,

gadget eta apaingarriek nebaren pasioen berri ematen baitute oraindik ere, argizari-museo batean bezain bizi: rock musikariak, mezu politikoak, bidaietako oroigarriak, naturazaletasun zantzuak...

Eguzkiñe eta Mertxe ohean eserita daude, elkarren ondoan; albo batean, Eguzkiñeren ondoan, Aitzol bere sehaska-kapazoan sartuta, amak eskuetan jarri dion txirinbolo batekin jolasean, bere artean marmar ulergaitzean baina ingurukoak hizketan jarduteko bezain lasai. Aurrez aurre, berriz, hainbat estilotako poltsak, zein baino zein handiago, trastez besterik denak. Horiexek seinalatu ditu Eguzkiñek.

– Oso ondo. Hori dena? –galdetu du Mertxek.

– Jakina. Zer uste zenuen ba?

– Nola txikia den. Eta egun pare baterako zoazten...

– Beitu, erakutsiko dizut –eta gauzak poltsetatik hartu eta ohe gainean multzotan utziz doa Eguzkiñe, aipatu ahala–: pixoihalak ugari, eguneko lau edo bost; ipurdia garbitzeko toallatxo bustiak; baberoak, plastikozkoak eta oihalezko-

ak; pijamak, bodyak, prakatxoak, mallak, kamisetak, jertseak, galtzerdiak.

– Zenbat bakoitzetik?

– Bost aldagarri oso jarri dizkizut, badaezpada. Badakizu, batzuetan botaka hasi eta goitik behera zikintzen dira.

– A, ya.

– Kalera ateratzen duzunean ere, aldagarri oso bat eramatea komeni da.

– Zer gerta ere.

– Horixe. Txanoak, eskularruak, bisera, txamarra, kalerako oinetakoak, etxerako zapatillak, txupeteak...

– Bat badu ahoan.

Aitzol hotsak egiten hasi da aldameneko sehaskatik, eta hari begira geratu dira emakume biak.

– Bestea errepuestorako da.

– Dena pentsatuta daukazu...

– Beharko. Gero toallak, botikinerako gauzak.

– Botikaren bat hartzen du ala?

– Normalean ez baina. Botikina eta nezeserreko gauzak denak batean dauzkat. Begira: hau, ipurdia erretzen zaionerako ukendua;

hauek, Apiretal eta Dalsy, sukarra igotzen denerako: papertxo honetan dauzkazu dosiak zehaztuta; bainatzeko esponja eta xaboia, baina igual xaboirik gabe hobe; orrazia, termometroa...

– Baina kalentura baldin badu...

– Kalentura baldin badu, eraman medikuarengana. Hementxe duzu bere pediatraren zenbakia, Sonia du izena, eta beste bat hemen bertakoa, Soniak gomendatutakoa. Eta niri ere deitu sinfalta.

– Ez ahal zaio ezer gertatuko egun pare batean.

– Seguru ezetz –esan dio Eguzkiñek, segurtasuna transmititu nahi dion keinu batekin.

– Eta gauza hauek denak gordetzeko...?

– Zuen amak esan dit armairu bat dagoela hutsik, bere gelan.

Gurasoen gelara joan eta han ikusi dute armairu hutsa: amarena. Egia da hortaz, pentsatu du Mertxek, alde egiteko asmoa duela.

– Eta non dago ama? –galdetu du Mertxek.

– Mandatu batzuk egin behar zituela esan dit. Ordu erdi barru lotu gara, martxa egiteko.

– Almeriara.

– Almeriara, bai.

Eguzkiñe itzuli eta gero ere han geratzeko asmoa ote du amak? Familiaren zati batengandik aldegin arren beste zatia hurbilago izateko?

– Gero –segitu du Eguzkiñek Aitzolen hornimenduarekin–, badakizu, umea paseoan aterazteko kotxea, tapakitxo batekin, eta sehaska, bere maindire eta abarreko guztiekin, ikusten duzu.

– Bai, bai.

– Ez dakit zerbait ahaztu zaidan. Ezetz uste dut. Kamiltxo panpina ere ekarri dizut.

– Kamiltxo?

– Hartz panpina. Lotarako horixe nahi izaten du.

– A!

– Eguneko ordutegia eta janariena zerrenda batean apuntatu dizkizut, ez ahazteko.

Papertxoa pasatu dio Eguzkiñek, eta Mertxe bertatik irakurtzen hasi da:

– Goizean esnatzen denean, gosaltzen eman: biberoi epela, esnea zerealekin nahastuta.

– Biberoia eman aurretik neurtu tenperatura –erantsi dio Eguzkiñek–, ez dadila umea erre.

– Termometroarekin?

– Ez, emakumea: esku gainean tanta bat botata.

Ergela sentitu da Mertxe, baina hobe izango da hori, umearekin hanka sartzea baino. Irakurtzen segitu du:

– Gosaldu ostean, umearekin jolastu, edo paseora atera.

– Euria ari ez badu –zehaztapena.

– Paseatuz loalditxo bat egin dezala –segitu du Mertxek–, eta gero bazkaria.

– Hamabietan-edo.

– Bazkaltzeko, barazki pure suabea: porruak, azenarioa, patata... Eta gero arraina edo haragia.

– Txiki-txiki eginda. Edo purearekin nahastuta ere bai.

– Baina zer da hobe: nahastuta ala aparte?

– Nahi duzun legez.

– Postrerako, yogurra –irakurri, eta gero galdetu egin du Mertxek–. Petit Suisse adibidez?

– Horixe bera. A, eta gero, ez dizut esan baina, egunean zehar ura maiz eskaini.

– Itxoin, apuntatu egingo dut eta.

Oharren paperean Eguzkiñeren aholkuak erantsi ditu Mertxek, irakurketari lotu aurretik.

– Bazkalondoan, jolastu edo paseoa. Eta ondotik, siesta. Paseoarekin batera egin liteke siesta, ezta?

– Bai, eta onena bera, loti txar samarra daeta.

– Bale. Segituko dut. Meriendatzeko fruta birrindua: banana, sagarra, laranja-zukua... Denak aparte ala...?

– Ez, denak batera errazena.

Esandakoa idatziko du berriro Mertxek.

– Konforme. Berriz ere paseatu edo jolastu. Iluntzean, bainatu. Aurrena, bainugela girotu eta toalla prest eduki Gero, baineran hamabost zentimetro ur jarri.

– Asko jota –zehaztu du Eguzkiñek–. Eta kontuz tenperaturarekin!

– Haurra bertan eseri, esponja erabiliz busti, eta garbitu.

– Hamar minutu eta kanpora. Eta ez utzi sekula haurra bakarrik baineran.

– ... baineran bakarrik ez –kopiatu du Mertxek, leitzen segitu aurretik–. Bainuaren ostean, afaltzeko biberoia.

– Gosarian bezala.

– Eta ondotik lotara –eta burua altxatu du Mertxek, irakurketa noizbait amaituta, baina Eguzkiñek badu zer erantsia:

– Lotarako, zuk uzten badiozu, besoetan nahiko du, baina zuk esan ezetz, txarto ohitzen da eta. Horren ordez, hobe da ipuina kontatzea. Nik gauero kontatzen diot.

– Nik ipuinak... ez dakit ba.

– Abestea ere gustatzen zaio, nahiago baldin baduzu.

Suizidioaren eta umezidioaren aukerak ere oso kontuan hartuko dituela esatea bururatu zaio Mertxeri, baina igual Eguzkiñek ez luke ondo hartuko eta bere kolkorako gorde du txistea.

Ohar gehiago eman dio gero: erne ibiltzeko gauza txikiekin, umeek ahora eramateko ohitura dutela-eta; mukizapia beti eskura izateko; jaten ematerakoan koilaratxoa nola erabili; oinez ikasten dabilela-eta, erne ibiltzeko parkean nora

doan, zeri heltzen dion... Hainbeste informazio hain denbora gutxian jasota eta dena asimilatu nahirik, burmuinak lehertzear dituela sentitzen du Mertxek, baina ez da bera lehertzeko zorian dagoen bakarra, bat-batean negarrez arrantzaka hasi baita Aitzol txikia.

– Hartuko dut? –eskaini du Mertxek bere burua, borondatetsu.

– Hartu lasai –esan du umearen amak–, baina nik uste honek aldatu beharra daukala. Jakingo duzu ume bati pixoihalak aldatzen, ezta?

Aski esanguratsua izan da Mertxek jarri duen larridura-aurpegia, irri bat atera baitzaio berehala Eguzkiñeri.

– Lasai, ikasi dituzun hizkuntza horiek denak baino errazagoa da-eta.

Eta ikasgai praktikoa etorri da gero: umea ohe gainean etzanda, pardela kendu, zakarretara botatzeko bildu, niniari ipurdi aldea garbitu eta lehortu.

– Azala erreta badu, botikinean sartu dizudan ukendu horretatik eman behar zaio. Gogoratzen zara?

– Bai, bai.

– Eta gero oihal berria ipiniko diogu. Ikusi. Txilibitua beheraka, pixak ihes egin ez dezan. Ikusten?

– Bai, bai.

– Izterretan ondo bilduta, baina estutu gabe. Bai?

– Bai, bai.

– Eta kitto. Ikasi beharreko guztia ikasi duzu, teorian. Orain proba praktikoa bakarrik falta zaizu, gidabaimena ateratzeko.

– Eta hau, noizero edo...?

– Ba, egunean lau-bost aldiz. Kaka egin duela nabaritu bezain laster aldatu, itxaron barik. Eta txixaz beterik dagoela ikusiz gero ere bai. Ados?

– Bai, bai.

– Besterik ez duzu esaten! –Eguzkiñek barrez.

– Bai, bai –Mertxek, zuntzunduta, zer dioen ere ez dakiela.

Sorgortasun horretatik atera du telefono-hotsak. Eguzkiñeren sakelakoa da. Beste aldean ama dagoela sumatu du Mertxek, baina ez da saiatu ezer entzuten.

– Tira, joan egin beharko dugu –esan du Eguzkiñek, deia itzali eta gero.

– Bai.

– Hemen uzten dizut munstro txiki hau. Ea txintxo portatzen den.

– Seguru baietz.

– Edozer gauza dela ere, hor daukazu nire telefonoa.

– Bai, bai.

– Ba, ondo segi.

– Bai, zuek ere bidaia ona egin. Eta eskumuinak Josuri.

– Esango diot.

Atean daude jada, igogailuaren botoia sakatuta.

– A, eta aitaren operazioa! –oroitu da Eguzkiñe–. Ondo atera dadila dena.

– Mila esker.

Eta bi emakumeen arteko besarkada umearen negarrak eten du. Eguzkiñek etxera sartzeko keinua egin du, baina deblauki gelditu, Mertxeri konplizitatezko keinu bat egin, eta igogailuan desagertu da.

Bat-batean, zakilez pentsatzen harrapatu du Mertxek bere burua. Urteak ziren gizonezkoen zintzilikarioak ikusten ez ukitzen ez zituela. Eta orain, berriz, bere ilobatxoaren pittikuarekin jolasean ari da, umea bainatzen duen bitartean; aitaren ebakuntzaren eboluzioa zein izango den ez daki, baina, litekeena da aitaren genitalak ere esku artean erabili behar izatea, dela garbitzeko, dela sendaketa egiteko.

Ez dira horiek inoren kilika erotikoak pizteko ikuskizunak. Urtebeteko eta laurogei urteko gizasemeen gonadak eranskin fisiologiko bitxiak iruditzen zaizkio, buruan, dena dela, hainbat mamu eta oroitzapen iratzartzen dizkiotenak.

Hala erabaki gabe ere, izaki asexuala bihurtzen ari dela bururatu zaio, bakarkako sexu lardats eta gogo handirik gabekoa ahaztuz gero. «Zahartzen ari naiz –esan du Mertxek bere artean–. Haurgintzaren sasoia pasa zitzaidan. Orain etxeko zaharrak zaintzeko aroa datorkit; eta horren ostetik, norberaren gorputzaren endekatzea, matxuratzea, gainbehera...». Ideia abailgarri horren haritik etorri zaio gogora aspal-

di ez duela burua tindatu eta agerian dituela ileen erro zuriak.

«Nire aitari labana sartzen ari zaizkio ipurtaldetik; nini alu honi biberoia nola prestatu asmatu ezinik nabil, eta ni bitartean gizonen zakilekin pentsatzen; edo ilea tindatzearekin».

Hiru bat egun daramatza etxean eta dagoeneko asper-asper eginda dago Mertxe Oiartzabal, aldegiteko desiratzen, Bruselako bere apartamentu txikira, bere bulego epelera, kafe-makinaren inguruko solasaldietara, eguneroko errutina txepeletara. Bere lankide Lolari deitzeko tentazioa izan du, lantokian zer moduz galdetzeko, etxe santu hartako azken txutxu-mutxuen berri entzuteko. Hango berri galdetu ez ezik, hemengoaz ere erantzun beharko lioke, ordea, eta ez du horretarako gogorik.

Eguzkiñek utzi dion traste-mendiari begiratu eta amildegiaren aurrean dagoela iruditzen zaio. «Hau dena behar ote da benetan ume bat hazteko?» galdetu dio bere buruari, eta amaren esaldi gogoko bat etorri zaio erantzun gisa: «Hainbeste ixtori...» . Hainbeste *ixtori* gabe haziko zituen amak Josu eta biak, noski, baina ondotik go-

goratu du, gurasoek eskatuta Europako Batasunaren egitura instituzionala azaldu zienean, hara aldegin bezperatan, «hainbeste ixtori» errepikatu zuela amak, eta aitak ondotik marmarrean: «Makina bat alfer bizi da gure kontura», baina gero isildu egin zen, alaba ere alfer haien koadrilan sartu beharko ote zuen beldurrez edo.

Eman dio afaria umeari, aldatu dio pixoihala ere, eta sehaskan sartu du. Zer ipuin kontatu erabili du buruan: Europako konstituzioaren ibilbide korapilatsua akaso? Lankideen artean arrakasta izango lukeen txistea bururatu zaiola pentsatu du, baina aurrean oso publiko desberdina du, murritza bezain esijentea, eta hoberik ezean gogoan dituen haur-kantak abesteari ekin dio, oroimenaren ganbaratik tiraka: «Astoa ikusi nuen betaurrekoekin, buruan txapela eta gabardinarekin, ile luzea eta bibotearekin, hizketan egon nintzen atzo berarekin».

Oroitzen zituenik ere ez zekienak abesteak umore onez ipini du ezustean, kantuaren bidez endorfinak askatzen ariko balitz bezala: «Astoak esan zidan triste zegoela, oso zatarra zela bere

ikastola, berak gure gelara etorri nahi zuela, gure ondoan ondo konponduko zela».

Oroimenaren zuloak tra-la-ra eginez estali ditu, eta kasik penaz ikusi du nola Aitzolek lo hartu duen, eskutxoetako batekin Mertxeren hatz potoloari helduta, eta amatasunak sortu ohi duen asetasun-sentimendu guztizko hori ulertzen duela edo ulertu lezakeela pentsatu du, ume lokartuaren irudi idealizatu horren aurrean, haren arnasa pausatua adituz, haren azalaren epeltasuna bere larruan sentituz.

Eta betetasun xarmant horrekin horditurik, haurraren sehaskaren ondoan etzan da, halako egun akigarri bati dagokion lo sakon eta azkarraren esperoan.

Telefonoaren txirrinak itzarri du, tupustean. «Aita!» pentsatu du Mertxe Oiartzabalek. Pertsianaz bestaldean iluna, eguna oraindik argitu gabe, beraz zerbait larria behar du. Parte onekoa ez den zerbait. Pentsamenduaren gurpilari galga jarri nahiz altxatu eta telefonoa hartu du.

– Bai?

Bestaldean entzun duenak zuntzunduta utzi du.

– Zer? –galdetu du, esan diotena ulertu ezinik.

Lehengo mezu bera errepikatu diote, antzeko hitzekin.

– Cómo? –galdetu du berriz, ulertu bai baina sinetsi ezinik.

Eta hirugarrengoz azaldu diote, hitzak aldatuz oraingoan, modu batean eta bestean, inongo dudarik ez uzteko:

Totana izeneko herrian, Murtzia eta Lorca artean, istripu bat izan da gauean, A-7 errepidean, 2831BFS matrikuladun autoa, Peugeot 207 modelokoa, bidetik aterata, eta autoan zihoazen bi emakumeak, Eguzkiñe Garai Barinetxe eta Maria Encarnacion Zabaleta Odriozola, hil egin dira bertan.

Ez da posible. Ezin liteke. Abesti bat da hori. Ez pentsatu halako txorakeriarik. Ez da posible. Ezin liteke. Ez da posible. Ez da posible. Ez da posible. Ez da. Ez da. Ez da. Ez. Ez. Ez.

Lo egin nahi du. Lo hartzen saiatu. Lo geratu, berriz, eta ostera esnatzean dena amets bat izango da, amesgaiztoa baina ametsa azken batean. Datorrela loa, datorrela, datorrela...

Begiak itxita baina esna dagoela, haurraren negarrak amaiarazi du jokoa. Altxatu da, besoetan hartu du, berriz lokar dadin ahalegindu da baina ez dago modurik; egunsentia sumatzen da leihoaz bestaldean, autoen urruma ere bai, umea bere bularraren kontra estututa daukala etzan da berriz, eta segundo batzuetan egoeraren diagnosi azkar bat egiten saiatu da. Ez dago itxura egiten segitzerik.

Ez pentsatu. Egin. Umeari pardela aldatu. Telefonoz deitu: nondik deitu diote berari? Ospitale batetik? Guardia Zibiletik? Gurasoen telefonoak ez du jasotako deien memoriarik. Informazio-zerbitzura deitu. Murtziako Ospitalea faborez. Deitu

hara. Eskatu zer nahi duen. Ezin diotela halako informaziorik eman. Jasotako deian esandakoa baieztatu nahi duela, besterik ez. Ezetz. Deitu Guardia Zibilera, barruko gorrotoa irentsiz bada ere. Informazio hori erreserbatua dela, senitartekoei bakarrik eman dakiekeela. Senitartekoa dela bera, bataren koinata eta bestearen alaba. Ea nola froga dezakeen. Klik.

Ez pentsatu. Egin. Umeari gosaltzen eman. Mainaka dabilenez besoetan hartu. Aitarenera joan? Ezin. Deitu medikuari. Zer moduz aita? Hau eta hura kontatzen dio Goikolea doktoreak; funtsean, mordoilo profesionalaren azpian, ondo atera dela operazioa. Aurki esnatuko da, dagoeneko esnatu ez bada, anestesiaren eragina desagertuta, eta ez legoke gaizki familiako norbait hemen egotea, esan dio Goikoleak. Esango al diot?, galdetu dio Mertxek bere buruari. Ez, ez dio medikuari ezer kontatu nahi. Eta aitari? Aitari esan egin beharko dio, baina ez orain, ez berehala. Baina berak esan ezean beste norbaitek esaten badio, komunikabideen bitartez jakinda...

Komunikabideak. Egunkariak erosteko janztea pentsatu du. Baina egunkariek ez dute ezer

ekarriko, oraindik. Telebista piztu du. Irratia. Lastima Internetik ez izatea. Albisteak inon entzun aurretik, baina, telefonoa hasi da joka. Ezagunak. Lagunak. Familiakoak. Ezagutzen ez duenen bat ere bai. Denak galdezka. Ez da ba egia izango...? Irratian entzun dutela. Zurtuta daudela. Izu-ikaratuta. Amorrazioa adierazi diote. Samina. Dolumina. Elkartasuna. Ezertan laguntzerik behar baduzu... Bai, bai, eskerrik asko... Eta Josu gaixoa, esaten diote, nola hartuko ote du?

Josu! Harekin akordatu gabe oraindik! Bisitaren zain egongo da gainera... Berriz ere informazio zerbitzura deitu eta Almeriako kartzela bilatzeko eskatu dio. «No figura cárcel de Almería», erantzun diote. «Pues mire centro penitenciario, centro de reclusión, correccional, penal, yo qué sé». Ez haserretu, Mertxe, lasai, esaten dio bere buruari, hortik aurrerakoak zailagoak izango direla-eta.

Aitzolek jolaserako gogoa du nonbait, iletik tiratzen dio, hatzak begian sartu, sudurrean, belarrian, telefonoa kendu nahi dio, oharturik horixe dela zaintzailearen arreta lapurtzen dion tresna. Zer egin behar da ume batekin halakoetan, ho-

rren kasu larria izanda? Jo? Sehaskan sartu eta egin dezala negar lehertu arte? Txupete eta kantuekin entretenitu du pixka batean, eta lasaitu bezain laster deitu du espetxera.

Josu Oiartzabal Zabaletarekin hitz egin nahi duela, bere arreba dela eta larria dela. Beste aldekoak, txantxa-kutsu bat ezkutatu ezin duen adeitasunez adierazi dio ez dela posible internoei deitzea, segurtasun-arrazoiengatik, «podrá usted entenderlo, señora». Ulertu dezakeela, bai. Deskuidoan hara joandako euskaldun senitartekoren bat ote dagoen, edo abokaturen bat bestela, harekin hitz egiteko. Ezin diola informazio hori eman, «podrá usted entenderlo, señora». Ea zuzendariarekin jarriko duen galdetu dio orduan, eta begiratuko duela. Esperantza eta pazientzia guztia galdurik dago honezkero, baina horra non beste aldean ahots berri bat aditu duen. Zuzendaria? Ez, zuzendariak ez omen du jartzerik baina bera zuzendariaren albokoa dela, zuk nahi duzunerako, andrea. Patxadari eusten saiatuz nor den azaldu dio, noren arreba, familian gertatu berri zaien zoritxarra jakinarazi dio, eta, daukan ahotsik gozoena jarrita galdetu dio

ea, salbuespen bat eginda, utziko al dion anaiari berria pertsonalki ematen, beraiek jarritako baldintzak eta segurtasun-neurriak aldez aurretik onarturik.

– Oso ulertzekoa da zure jarrera, eta behar duzun guztian laguntzeko prest naukazu –esan du zuzendariaren albokoak adeitsuki, Mertxeren itxaropena hauspotuz–. Dena dela, ez dut uste beharrezkoa izango denik.

– Beharrezkoa ez?

– Ez. Izan ere, goizeko albisteak entzunda, istripuan hildako bi bidaiariak gaur hemen bisita eskatutako berberak zirela ohartzean, funtzionarioek beraiek eman diote albistea zure anaiari, izango zuen interesa sumaturik.

– Eta... –hitzik gabe geratu da Mertxe–. Eta... nola hartu du Josuk? Ondo dago edo...?

– Ezin esan ondo erreakzionatu duenik. Bere zaindarien aurka oldartu da ukabilka, eta funtzionarioek, ulertuko duzunez, neurri bereko erantzuna eman behar izan diote.

– Neurri bereko erantzuna...?

– Orain lasaiago dago, zigor-ziega batean, baina zaude lasai, andrea, ondo zainduta daukagu-eta, ezegitekorik egin ez dezan.

Besterik esan gabe eseki behar du Mertxek, baina orduan Aitzolen hotsak sumatu ditu, *agu* eta *agu*, ume txikien hizketa-modu ulergaitz horretan, eta hari begira, ernegazioak ahoa berotuta, ezin izan dio eutsi barruko irakinaldiari:

– Es usted un hijo de la gran puta.

Egun zoroak izan dira. Atzera begiratu eta itsumandoka igaro berri duen laino lodi eta trinko bat ikusi uste du Mertxek, eta hala ere, unez une intentsitate bereziz bizi izan du aldi hori dena, mila txikikeria eta eginkizun, hamaika buruzpide eta tramite eginez. Eta denetan umea berarekin hartuta, beste inon utzi ezinik hasieran, beste inon ez inori utzi nahi izan gabe gero, horretarako aukera eskaini diotenean. Gora eta behera joateko, ume-kotxearekin baino erosoago ibiliko delakoan, haurra amaren bularraldera lotzen duten motxila horietako bat erosi du, eta horrela jarrita erabili du haurra geroztik; lehen momen-

tuan negar eta marmar egiten zuen Aitzolek, loturik egon nahi ez zuelako edo kokaleku arrotza zitzaiolako, baina gero gustua hartu eta hantxe egoten da erosoena, auskalo nongo tribuetako umeen antzera, Mertxe hainbat betebehar eta buruhausterekin tematzen den bitartean: Eguzkiñe eta amaren gorpuak Euskal Herriratu behar izan ditu; Eguzkiñeren etxekoak bilatu ditu, ez baitzuen haien berririk, eta jakin du ez zuela neba-arrebarik, aita alarguna bakarrik, jubilatu berria eta nahiko osasun kaxkarrarekin; hiletak eta abarrak antolatu ditu, Eguzkiñek zer nahiko zukeen ez daki baina amaren ohitura halakoa zenez elizkizun eta guzti; aldi berean ospitalera joan eta etorri ibili da, aitari bisitan: suspertzen ari da, pixkanaka indartzen, eta mediku irri profilaktikodunak esan dionez aurki itzuli ahalko da etxera, Mertxek batere presarik ez duen arren; aitzitik, kasik nahiago beste aste pare batean ospitalean baleukate, konpondu beharreko guztiak konpontzeko, ez baitira gutxi.

Hortxe dago gertaeraren alderdi politikoa ere: prentsaurrekoak izan dira, ordubeteko lanuztea herrian, manifestazioak, omenaldiak,

kontzentrazioak... Mertxek baietz esan die antolatzaileei, ados, ez duela eragozpenik, baina bera ez dela agertuko: «Umea baten batek zaindu behar du, badakizu».

Pardel gehiago erosi behar izan du, umeesne gehiago, umearentzako labore, ahi eta gainerako elikagaiak; txikitako lagunei deitu liezaieke aholku eske, amatasun-masterra gaindituta-koak baitira denak ere, baina nahikoa du orain arte jaso duen erruki-parrastarekin, ez du besarkada negarti gehiago jaso nahi. Beharbada haurra bera da, Mertxe bere minaren oskolean bilduta geratu ordez egitera eta ekitera bultzatzen duena, Aitzolek egunero segitzen baitu, zehaztasun doi eta erritmikoz, kaka eta pixa egiten, jan eta lo, negar eta jolas. Auzoko botikan galdetu du zer janari eta pixoihal erosi, eta umeentzako arropa-denda batera ere jo du, motxila lokarriduna erosi zuen horrexetara, ordezko pijama, zapatilla eta bestelakoen bila.

Egunero saiatu da Josurekin harremanetan jartzen. Telegramak bidali dizkio, gutunak, telefonoz ere deitu du, badaezpada, baina esperantza handirik ez zuzendariaren alboko «putase-

meari» egin zion agurraz geroztik. Josuren abokatuarekin ere hitz egin du, laster joango omen zaio bisitan, eta anaiarentzako mandatuak bidali ditu haren bitartez. Eta gutxien espero zuenean, telefono-deia:

– Mertxe?

– Josu?

Une hartan amaren gorpuaz erabaki bat hartu behar zuen. Ehorztetxetik deitu zioten lehentxeago, lurperatzea edo erraustea nahiago zuen galdezka. Mertxe zurtuta geratu zen, zer esan ez zekiela, gauza horietaz ez baitzuen pentsatu ere egin sekula. Aitarekin hitz egin zuen orduan, ospitalera deituta, ea zer uste zuen, baina aitak ez zuen iritzirik, ezta gai hartaz hitz egiteko animorik ere. Eguzkiñeren aitari deitu zion gero, eta honek ere, ospitalean egon ez arren, ez zekien zer egin.

– Zeuk gura dozuna, zeuk erabaki...

– Baina, lurperatzekotan, bakoitza bere herrian ala...?

– Bixak batera, gura badozu, errazago izango da akaso.

Eta ez zuen hortik aurrerakorik esaten. Bere bular parean loturik zeukan Aitzoli galdetu behar ote zion ba? Eta orduan jaso zuen Josuren deia. Lehenengoz hitz egiten zuen harekin urtebete baino gehiagoan. Eta hainbat gauza zeukan esateko. Anaia adoretu beharko zukeen, baina, animo-hitzen ordez, bururatu zitzaion bakarra ehorztetxekoen galdera izan zen. Zer egin?

– Errausketa nahiago –esan zuen Josuk.

Uste baino gogorragoa gertatu zaio errausketarena. Egun horietako momenturik zailena. Ordura arte, amaren heriotza informazio bat zen, nolabait ere; ez zuen zalantzan jarri inondik ere, baina ideien mailakoa zen ebidentzia hori, ez zitzaion azaletik barrura sartu, odolaren zirkulazioan eta sistema linfatikoan ibiltzeko. Baina orain, horra non dauzkan, begien aurrean, amaren eta Eguzkiñeren hilkutxak, Murtziako ospitaletik ekarrita.

Aurreneko lerroan, ahaide zuzenak: Eguzkiñeren aita, orduantxe ezagutu duena, Mertxe bera, eta Mertxeren bularraldean lotuta Aitzol,

noiz jolasean, noiz lotan edo negarrez, unearen garrantziaz ohartu gabe, gaixoa; Mertxeren aita ospitalean dago oraindik; atzerago, alde bateko nahiz besteko iloba, lehengusu, adiskide eta gogaide zenbait. Mertxek esana zien jestoretakoei, mesedez, nahiago zuela ekitaldi hura etxekoentzat izatea, eta ez zaio propagandarik egin. Mertxe beldur zen kazetari eta argazkilariak ibiliko ote ziren bertan, beren grabagailu eta flashekin, baina ez du halakorik ikusten, dela gutxieneko errespetua izan dutelako, dela ez agertzeko esan dietelako.

Zeremonia laburra izan da, eta gaitz erdi. Baina bere laburrean latza. Amaren azken erabakiak zetozkion gogora Mertxeri: haren zentzugabekeria, edo haren berekoikeria infantila. Zergatik iruditzen ote zaigu horren xarmagarria ume baten berekoikeria egoskorra, bururatu zaio Aitzolen jolasei erreparatuz, eta jokabide onartezina, berriz, arduratsua beharko lukeen heldu baten kasuan? Nahiago du gogoeta hori ahantzi, amaren azken boladako petralkeriak burutik uxatu, gogoan beste irudi bat atxikitzeko, umetako ama maitakorra gordetzeko. Amaren maita-

sun mugagabea, eskuzabaltasun infinitua, hainbat eta hainbat bider bera zaindu, elikatu, mimatu, jantzi, batera eta bestera eraman eta ekarri zuena. Amak bere alde egindako guztia nola eskertu ez dakiela pentsatzen du, eta larriago dena, ez duela inoiz eskertzeko modurik izango.

Amaren aurpegia ikusi du hilkutxaren kristalean zehar, baita Eguzkiñerena ere. Tapa ez altxatzeko esan diote, ez daki ondo zergatik, eta amaren gorputza azkeneko aldiz ukitu ezinik gelditu da. Hilkutxari heldu dio esku biekin, eta ez du gorputz osoz estutu Aitzolen gorputza daukalako bere aurrean lotuta. Aitzolez oroituta, Eguzkiñeren hilkutxara jo du gero, eta keinu berberak errepikatu ditu, Aitzolen partetik ari dela pentsatuz, bi umezurtz nor bere ama agurtzen.

Gero, labe barrura sartu dituzte hilkutxak, eta dena amaitu da. Edo ez: lehenago amaitu zen dena, Murtziatik dei hura jaso zuenean, edo lehentxeago, istripu madarikatu hura gertatu zenean, edo auskalo lehenagotik ote zegoen izarretan idatzita hala gertatu behar zuela, gauza horietan sinetsiko balu...

Baina oraindik ez da amaitu. Gero errautsak jaso dituzte, kutxa pare batean. Horra bizitzaren metafora: «Memento, homo, quia pulvis es et in pulverem reverteris», «Sic transit gloria mundi», ikasle garaiko latina datorkio gogora, portzelanazkoa edo zerezkoa den ez dakien ontzi horietako bat eskuetan duela. Ez daki ondo nola eutsi: Aitzolen gorputzaren aurrean heldu behar dio, beregandik aparte bezala... Eguzkiñeren aitari begiratzen dio, beste ontzia eskuetan, eta hura ere nora ezean sumatzen du, begi bietatik darion negarra lehortu ezinik, malkoak aurpegian behera, halako batean familiakoren bat joan zaion arte errautsen kutxa hartzera, eta orduan musuzapi zuri bat aterata garbitu du aurpegia eta lehortu malkoak.

Hiletak eta abarrak nola egin erabaki zutenean, errautsak mendian barreiatzekotan geldi-tu ziren, bi emakumeenak batera, baina bi ekitalditan, mendi banatan: Txindoki eta Mugarra. Eguna finkatu zutenean ez zegoen eguraldia aukeratzerik eta, egunsentiak giro muzina iragartzen bazuen, goiz parteak giro lardats eta umela erakusten die. Larraitzen dute hitzordua, handik

oinez igo eta bista egokia eskaintzen duen ordoki batean hautsak zabaltzeko, haizearen menera; xirimiri etengabe horrekin ez da mendirako giro, baina, dela ezker abertzalearen kontaktu eraginkorrengatik, dela arima errukitsu baten eskuzabaltasunarengatik, autoentzako debekua ezartzen duen langatik gora egiten utzi diote ibilgailu bati, senide hurbilenak daramatzan Patrolari. Hortxe doa Mertxe, beti bezala umea aurrean lotuta daramala eta hautsen ontzia beste motxila batean sartuta, eskuetan nahiz bizkarrean eramateko moduan; aldamenean Eguzkiñeren aita, negar-jarioa atertuta baina tristura mugagabea aurpegian iltzatuta; hari begira, seme-alabaren bat hiltzen ikusteak gogorra behar duela pentsatu du Mertxek, munduaren hurrenkera naturalaren hankazgoratzea, eta egoera hori are krudelagoa izango dela inor gabe geratzen denarentzat, halaxe egotearen itxura baitu gizonak. Isilik doazenez, eskutik heldu nahi lioke, baina Aitzolek ez dio bakerik ematen, bere maina eta purrustekin, eta nahiko lan umeari bere tokian eusten.

Halako batean, zabaldi batean gelditu da autoa.

– Hemen da? –galdetu du Mertxek.

– Hemen egitea hobe izango da. Atzekoak iritsi ahal izateko –esan du gidariak, txofertza ez ezik ekitaldiaren antolakuntza ere bere gain hartua duen Martinek. Mertxek ez daki Eguzkiñeren sendikoren bat ote den ala Etxerat-eko kidea. Kotxe garestiegia jestoretako liberatua izateko.

Segizioko lagunak atzetik datoz, batzuk aterkipean, besteak xira eta txamarretan sartuta, langarra nahikoa ez dela haizea baitabil, zirrizarra, ibilia motelduz eta hotza hezurretaraino sartuz. Patrolean doazenek bertan itxaron dute oinezkoak beren parera iritsi arte.

– Goazen orain –esan du Martinek.

Nor bere ontzia eskuetan atera dira Eguzkiñeren aita eta Mertxe; berehala elkartu zaizkie hainbat lagun, bata guardasolaz estaltzeko, bestea besotik heltzeko, lur labainean ez irrist egiteko. Lagunen berotasun hori eskertu du Mertxek, hitzik gabe bada ere, bestela desolaziozkoa iruditzen zaion paisaiari gizatasun moduko bat eransteagatik.

Azkar joan da ekitaldia. Hitzaldi labur bat egin du norbaitek. Sutsu baina gozo. Txaloaldi bat, eta hautsak zabaltzea. Mertxek ez daki gehiegi edo gutxiegi ari den botatzen, arratsaldeko ekitaldirako gutxitxo eta sobrante utziko duen; Aitzolek ere, jolas berri bat igarrita, eskua sartu nahi du potoan, eta Mertxek errauts pixka bat hartzen utzi dionean, bota ordez ahora eraman du, zer gustu duen probatu nahian edo.

– Utzi hori, kaka! –eta eskuan txapla jo duenez negarrari eman dio mutikoak.

Inguruan inork ez dio erreparatu umearen kasketari, une horretan neska gazte batek irrintzi ozena bota baitu, eta horren ondotik «gora!» erritual guztiak etorri dira.

– Ni autora noa, umea hoztu egingo da-eta –esan dio Mertxek ondokoari.

Arratsalderako, atertzen ez bazuen ere, baretuko ote zuen behintzat espero zuten denek, baina ez horratio. Goiz lardatsari arratsalde petralak jarraitu dio. Tartean, lagunartean bazkaltzera joan dira segizioko gehienak.

– Ez, ni ez noa –esan du Mertxek.

– Konfiantzazko toki batera goaz. Eta hobeto egongo zara zu ere konpainian, bakarrik baino.

– Eske, umeak behar dituen gauza batzuk etxean utzi ditut-eta... Baina arratsaldean hor izango naiz, sinfalta.

Haurra, aitzakiarik gabeko ihesa; gidariari, baina, bi ordu barru bila azaltzeko eskatu dio. Emandako hitzaren leialtasun betirakoa. Nori zor diot ba?, galdetu dio Mertxek bere buruari. Amari? Eguzkiñeri? Josuri? Gainerako presoen senideei? Ez dio inporta: Jainkorik gabe ere, agindu gorena da berarentzat emandako hitza. Euskaldunak ote zituen buruan Kantek inperatibo kategorikoa asmatu zuenean?

Etxean dagoela, telefonoa. Aita? Josu? Kazetariren bat? Txinparten moduan pasa zaizkio horiek denak burutik, baina ez zuen inola ere espero ahots hura hariaz bestaldean.

– Lola!

– Jakin dut zure amarena. Nire doluminak –esan dio lagunak.

– Eskerrik asko. Asko estimatzen dizut.

– Oraintxe jakin dut. Horregatik ez dizugu lehenago deitu. Denok bidaltzen dizugu besarkada bat.

– Eskerrik asko denoi. Esan denei nire partetik.

– Baina... ez al zen ba zure aita operatu behar zutena?

Zer esan? Informazio xehea eman behar ote dio? Bateko ebakuntza, besteko bisita, anaiaren espetxealdia, Eguzkiñe eta Aitzol... Ez du bere bizitza kontatzen hasteko gogorik.

– Ez, aita ondo dago. Ama da. Ama izan da.

– Eta nola...? Bueno, ez duzu kontatu beharrik, ez zara umorez egongo...

– Ez oso... ez.

– Tira, ez kezkatu. Zuk orain lasaitu egin behar duzu, eta berriz indarrak hartu, betiko bizimodura itzultzeko. Eta ezertan laguntza behar baduzu, badakizu hemen gaudela.

– Bai, eskerrik asko. Eskerrik asko deitzeagatik, bai. Agur.

Bere hizketarako moztasunak ez du harritu, Lolarekin normalean hitz eta pitz aritzen den arren. Gehiago harritu du arroztasunak. Ze urru-

na egin zaion Bruselako bere lana eta hango bere lagunak; nahiz eta egun gutxi izan handik etorri zela, bera dagoeneko, ez beste leku batean, baizik beste dimentsio batean balego bezala, horrelako esamolde esoterikoak erabiltzeko baimena hartuz gero.

Behin esoterismoetan sartuta, amaren erraustsen hondarrekin hasi da hizketan:

«Ama –esan du, hautsen kutxari begira–. Marka da gero, behin hartuko zuk askatasuna nahi zenuena egiteko, eta hara zer gertatu zaizun».

«Bai –erantzun dio barne-ahots batek, amarena eginez–. Zeruaren zigorra ematen din, nire eginbeharretatik ihes egiteagatik».

«Ez esan txorakeriarik, ama, zerurik ez dago eta».

«Nola dakin hik hori? Izatekotan nik jakingo dinat, ezta?»

«Bueno, ama, ezin hasiko gara txatxukeria horrengatik eztabaidan».

«Nagoen bezala egonda, niri berdin zaidan eztabaidan hasi edo ez hasi».

«Asko sentitzen dut, ama. Batez ere, ez genuelako despeditzeko aukerarik izan».

«Istripuetan horixe gertatzen dun, ezin dela aurretik jakin, bestela ez nindunan bidaia horretan joango, noski».

«Irudipena daukat gauza asko geratu zaizkigula hitz egiteko».

«Horiek hire irudipenak ditun. Beti kontu berberak errepikatzen omen nizkinan, eta orain berriz, gauza asko genituela elkarri esateko?»

«Ez dakit. Baliteke dena esanda egotea. Baina hemendik aurrera inork ez dizkit esango zuk esaten zenizkidanak».

«Hortxe daukan aita. Kasu egiten al dion?»

«Nahi baino gutxiago. Badakizu, Aitzol hemen egonda, eta egunotako zurrunbiloarekin...»

«Kasu pixka bat egion. Gizon zintzoa dun. Egoskorra izatea, eta zomorro samarra ere bai, baina hik ere badun horretatik zerbait».

«Orain ere errietan hasi behar al duzu? Horretarako Txindokin hustu poto osoa eta bakea».

«Aizan, hi hasi haiz. Eta potoa hustuta ere zer? Ez pentsa hautsak hizketan ikasi duenik».

Hautsa hizketan... Grazia egin dio barneahots horren burutazioak. Hori ote da sinestunek otoitzean egiten dutena? Jainkoarekiko elkarrizketak imajinatu? Ala bakarrizketan jarduten dute, haraindiren batean aldareko izaki guztiahaldunak adituko dituen itxaropenez? Ez daki, ez zaio axola ere. Eta, pentsatu du Mertxek bere artean, honezkero mistizismo eta sineskerien bidean sarturik nagoenez gero, egin dezadan beste urrats bat aurrera: errautsen ontzitik eskukada bat atera, eta amarena izandako bitxi-ontzi batean sartu du. «Hurrena zurekin eztabaidan egin nahi dudanean, badakit non zauden».

Umearen siestan jo du Martinek atariko txirrina, eta itxaroteko esan dio gizonari, aurki jaitsiko direla. Bizitza haurraren erritmora pausatzen ikasi du egunotan. Hasieran erotu egingo zela uste zuen: jana, loa, kaka, garbiketa, eta horrez gainera, bere gainera jausitako zereginen zaparrada. Apurka, baina, bere gorputza eta eginkizunak Aitzolen menera jartzen hasi da: hark agintzen dio noiz egin lo-kuluxka, noiz ibili batetik bestera, noiz elikatu bere gorputza ere. Parasitoak jateko bizkar gainean txoriak izaten dituz-

ten bufalo horien antzera, berak ere sinbiosi antzeko bat osatu du bularraldera loturik daraman izaki txiki honekin. Izaki txikiari ere ezin dena nahi bezala egiten utzi ordea. Sehaskan beste pixka batean laga ondoren bere motxilan sartu du, errautsen ontzia ere jaso du, eta errauts-zabaltzearen bigarren ekitaldira abiatu dira. Zorionez, azkar hartu du berriz loak, Patrolaren motorrak eta kanpoko euriak sortzen duten urrumaz.

– Ez ote du atertuko? –esan du Mertxek, bere baitarako bezala.

– Ez du itxurarik –erantzun dio Martinek.

Kristal garbitzekoak fri-fra, fri-fra etengabean ari dira. Goizeko giro txepelaren ordez eguraldi zakurra dute orain, eta haizeak ere lehen baino bortitzago jotzen du.

– Mugarra aldera ez omen dago hurreratzerik ere –segitu du txoferrak.

– Eta hortaz?

– Urkiolan egingo dugu; goraino autoz igo, eta hango basoan.

Neskazahar eta mutilzaharrak lagun eske joaten diren harriaren alboan egingo ote duten pentsatu du Mertxek, irri murritz batekin. Santu-

tegia dagoen orubea ospakizun paganoen leku izango zen noizbait, eta beraz, edozein ikuspegitatik dela ere, toki egokia amaren hautsak barreiatzeko; amaren atsedengune, errautsen pausaleku, arimaren ibiltoki izateko, hildakoez halakoak esatea bizidunon kontsolagarri hutsa dela sumatzen duen arren.

Durango pasa eta Mañarian gora, errepidea sigi-saga hasi denean, Mertxe beldur izan da Aitzol zorabiatuko ote den, baina zortea izan dute, autoaren kulunkan lo segitzen du mutikoak, izebaren magalean, amonaren hautsak biltzen dituen ontziaren ondoan.

Bestelakoak dira ondoan gidari doan Martinen beldurrak:

– Ea ez zaigun zipaiorik tokatzen bidean.

– Ertzainak? Zer egingo digute ba? Gu ez gara terroristak.

– Terroristak ez baina, haurra eserleku berezi batean eraman behar genuke, eta...

Mertxeri ez zaio burutik pasa ere orain arte. Baina egia da. Eta, nahi gabe, eszena irudikatzen hasi da bere burua: ertzainen kontrola, edo guardia zibilena bestela, filoterroristak apur bat

xaxatzeko-edo; Martinen harrotasun duina, sakabanaketak eraildako bi lagunen errautsak zabaltzera doazela esanez; agenteen zinismo adeitsua, paperak eta agiriak eskatuz; umearen negarra, uneari dramatismo doia erantsiz; poliziaren galdea, ea ez al dakiten haurra segurtasunaulki batean eraman behar dela; Mertxeren beraren purrustada mindua, bidaztien segurtasunagatik hainbeste kezkatzen diren horiei zer iruditzen zaien umearen ama eta amona errepideko istripuan hil izana pasa den astean; bide-zakurraren axolagabetasun profesionala, isuna jarri behar diela ohartaraziz; Martinen sumindura, gizatasun apurrik ez ote zaien geratzen, kontu eske...

Horrela segi dezake, komedia nahi beste luzatuz eta gura bezain segida txarra emanez, gurean edozein gauza baita posible, behin txarrean hasiz gero. Biharamuneko egunkarien azalean ikusten du Mertxek bere burua, samin epikoz tratatua batzuetan, mespretxu ironikoz besteetan; Lasa eta Zabalaren gorpuzkin bahituak datozkio gogora, ertzainak etxekoen kontra porrazoka Tolosako hilerrian; ez ahal dute beraiek

beste orrialde bat beteko Euskal Herriko Bidegabekerien eta Infamiaren Liburu Beltzean...

Batzuetan txarrenera joaten zaio bati gogoa, eta txarrena ez da gertatzen. Lasaitze moduko bat dator segundo batean: iritsi gara Urkiolara eta ez dugu izan ez istripurik ez kontrolik. Baina gero konturatzen da bat, txarrena ez gertatuagatik, aski txarra dela bere errealitatea: gorrotatu besterik ez dauka amarena, koinatarena, aitarena, anaiarena, besoetan daukan haurraren paradero tristea... Bizitzaren loterian kukuak makur jo diola pentsa dezake batek, Jainkoari agiraka egin, patuarekin haserretu, gauzak datozen bezala onartu beste aukerarik ez dagoela-eta etsi onez hartu...

Ez da erraza onez hartzea horrelako eguraldia: bota ahala ari du, eta haizeak batetik bestera daramatza aurrean paratzen zaizkion guztiak. Arbola tantaiak dira tente eusten dioten bakarrak. Espiritualitaterako baino gehiago, Valpurgis gauerako gonbita dirudi honek. Haiek beste obligazio bat dute ordea.

– Ea, hauxe da azkena –esan du Martinek–. Neuk tapatuko zaitut aterkiarekin.

Ostatuan egin dute topo goizeko gehientsuenek eta elkartasunez elkartu zaizkien beste batzuek. Salda beroa eta kafesnea ari dira hartzen gehienak. Epelean gozo egoten da, eta Mertxe ere goxotasunez hartu dute denek. Aitzolentzat dena da laztana, une batez ahaztua dirudi doluak, baina arima arduratsuren batek gogorarazi die zertara etorri diren.

– Egin egin beharko dugu, erabat ilundu baino lehen.

Hautsak ostatuko sutondora bota ditzaketela bururatu zaio lipar batez Mertxeri, jan-edanean eta txor-txorrean ari diren bitartean; biziaren jarraipenaren alegoria ederra litzatekeela ere pentsatu du, belaunaldien arteko loturaren adierazgarri soil, aratz eta solemnekeriarik gabea, baina, baten bati errespetu falta irudi lekiokeelaeta, isilik lotu zaio beste guztien martxari, kanpo aldera.

Epeletik erauntsira ateratzeak ez dio onik egin Aitzoli eta marruka ekin dio, aterkipean doazen arren.

– Nahi duzu umea barrura eroatea ? –proposatu dio andre gazte batek.

– Ez –erantzun du Mertxek.

Eta hortxe egon da zeremonia laburrak iraun duen bitartean, estanpa bitxia osatuz, euskal martirologioaren edo aldrebeskerien katalogorako: emakume heldu bat, Urkiolako puntan, haize zakarrari nola-hala eutsiz, bularraldean lotuta haur bat daramala, esku batekin hautsen ontziari eutsiz eta bestearekin hautsak zeru-lurretan barreiatuz, literalki lau haizetara.

Taxia hartu du Mertxek aitaren bila joateko. Haurrek aulki berezia behar dutela-eta, beldurra sartu zaio, ez horrenbeste balizko isunagatik, ezpada Aitzolen segurtasunagatik. Istripuak ez baitira balizkoak soilik, ederki ikasi du ikasgai hori. Gaur bertan erosi du aulkia baina, instalatzeko argibideak irakurtzeko pazientziarik ezean, geroko utzi eta taxiari deitu dio, ospitalera joateko zuzenean. Barrura sartu arte ez zaio bururatu taxiak ere istripua izan dezakeela, eta hor ere ez dutela haurrentzako segurtasun-aulkirik. Eta ertzainek ikusiz gero, nori jarriko liokete isuna: ta-

xilariari ala haurrarekin doan bidaiariari? Taxizaleak ezer esaten ez badu, hor konpon.

Gogoeta horiek izan ditu ospitalerako bidegurutzea hartu duten arte, hortik aurrera aitarengana egin baitio gogoak. Ausikika du kontzientziako harra, aitak ospitalean egin duen aldian ez baita kasik hartaz arduratu. Horretarako berdin nengoen Bruselan, pentsatu du, zertarako etorri nintzen ba? Aitzakia sendoa du ordea, lepotik zintzilik daraman hau. Baina hala ere... Eskubide gehiago al dute umeek zaharrek baino gure maitasuna jasotzeko? Eskubideak ez dira banatzen, edo ez dago zertan banatu behintzat, eta maitasuna ere ez, baina egia da, dena dela, batzuetan aukera egin beharra dagoela: ospitalean dagoen agurea zainduko dut ala amarik gabe dagoen umea? Aukera egiten duenak okerra egiten du beti, baina, okerretan zuzenena aukeratzen saiatuz betiere...

– Itxarongo duzu hemen? –galdetu dio taxilariari–. Aita jaso behar dut, eta berehala nator.

– Bai noski.

Esana diote ez dela komeni haur txikiak ospitaleetan sartzea, sistema immunea ondo garatu

gabea dutenez errazago harrapa ditzakeelako edozein birusek; hortaz, Aitzol taxian uzteko ideia etorri zaio une batez burura, baina, halaz guztiz, seguruago sentitzen du bere bihotzaren ondoan, ezinezkoa zaio arrotz baten eskuetan uztea; zer egingo luke taxista gizajoak umea negarrez arrantzaka hasiko balitz?

Aurretik hitz egina da, bai aitarekin bai medikuekin, zer ordutan iritsiko den esateko. Hala ere, ez daki prest egongo den, ala ospitaleetako kamisoi xelebre horrekin, berak janzteko zain. Zorionez, jantzita eta maleta eginda topatu du. Horrela ikusita, kalerako jantzita, galduago sumatu du aita, ezgauzago, babesgabeago, ospitalera bisitan etorri zaion apurretan baino. Orduan bazekien gaixo bat ikustera zetorrena, eta beraz normala zen halako itxura pattala izatea, ebakuntza handi samarra egin berritan. Senda-agiria jasota, berriz, irudi lezake lehen bezala itzuli beharko lukeela batek etxera, itxi dela erietxeko parentesia, eta, horrenbestez, geure piuran izan ditzakegun narriadurak betirako galera direla, gorputzean geratzen zaizkigun orbainen antzera. Halako sentipen bat izan du Mertxek, eta gu-

rasoenganako erruki-sentipen hori berritzen sentitu du aitaren parera iritsi eta, besarkada baterako herabe, eskumuturretik heldu eta estutu dionean.

– Joango gara?

– Ni pronto nago –erantzun dio aitak, dar-dar apur bat ahotsean.

Gurpil-aulkia eska dezaketela bururatu zaio Mertxeri, taxiraino edo sarrerako ateraino joateko, baina sumatzen du aitak zer pentsatuko duen, nahiko endredo sortu duela honezkero eta badela bera bakarrik moldatzeko gauza; erosotasunaren beste aldeko balantzan lotsa antzeko bat, oharkabean pasatu nahia, Mertxek berak ere bere bizitzeko lege egina duena, ez daki geneen bidez ala etxeko azturen bitartez. Abiatu aurretik gelako laguna agurtu du aitak, Mertxeri harrigarria egin zaion berotasunez, eta gero baita korridore bereko beste gaixo pare bat ere.

– Lagun handiak egiten dira hemen –esan dio aitak.

Seguru baietz, pentsatu du Mertxek, baina berehala etorri zaio gogora nonbait irakurritakoa: gerra sasoian izaten direla adiskidantzarik

minenak, gudaldi odoltsuen bezperan parrandarik alaienak, heriotzaren hurbiltasunak beste haragi baten arrimura bultzatuko bagintu bezala; hala baldin bada, non gertuago herioaren hatsa, ospitaleko lubakian baino? Aitak oraingoz bizirik irtetea lortu du; lubakikideetako batzuk bertan utzi ditu, oraindik borrokan, eta anaitasun sentimendu batek beratzen du, bere besarkadarekin animoa eta laguntza transmititu nahian ari dela; alabaina, susmoa du Mertxek, erietxetik atera eta handik gutxira ahaztuak izango dituela aitak hemengo lagun handiak, kalera atera orduko atzean utzia izango baitu lubakia.

Mertxeren susmoekin bat eginez bezala, umearekin jolasten hasi da aita:

– Aitzol, Aitzoltxo! Ku-ku!

Taxi barruan bilobari txorakeriak esaten segitu du pixka batean, baina gero leihotik begira geratu da, eta Mertxe, ahoz esaten inoiz ausartuko ez litzatekeenak buruz galdetzen hasi da orduan:

«Kalea berriz ikusiko ez zenuela etsita zeunden ala?»

«Etsita ez baina, ideia hori beti izaten da buruan, operazio-gelan sartu behar baldin bazaituzte».

«Baina hemen zaude».

«Bai, ni hemen nago. Baina ama...»

«Bai, ama...»

«Enkarni gaixoa. Nork esango zuen. Hain bizigogoz betea eta...»

«Zuk uste duzuna baino gehiago. Bazeneki...»

«Alde egin behar zuela? Zer uste duzu: ez nintzela konturatu ala?»

«Ez zenuen ezer esaten eta».

«Zer esan behar nuen ba? Ez zaitez joan? Gelditu nirekin?»

«Hori abesti famatu bat da: *Ne me quitte pas*, Jacques Brel-ena».

«Hori zuek dakizue. Eskola ikasi duzuenok. Guk berriz...»

«Eta zer sentitu zenuen orduan, amak joan egin behar zuela ikusi zenuenean?»

«Zer sentituko nuen ba? Tristura. Hainbeste urte elkarrekin eta...»

«Elkarrekin bai baina, etxe berean bizi arren, gero eta aparteago zeundetela iruditzen zait niri».

«Ohe banatan lo egiten genuelako? Aizu, ez ginen mutikoak, e?»

«Telebista ere aparatu banatan ikusten zenuten».

«Zer nahi duzu ba? Bakoitzak bere gustuak izaten ditu eta».

«Hori ere egia da. Ama gaixoa, hala bukatu behar zuenik...»

– Ama gaixoa! Hala bukatu behar zuenik... –bota du Mertxek, buruz esana ozenki errepikatuz.

Aitak begirada leihotik apartatu eta alabari begiratu dio, itsaso abisalen sakoneratik irten berria balitz bezala, eta Mertxek ez daki zer pentsatu: edo berari bururatutako guztia ondo asko dakiela aitak, bizitzaren eskola isilak irakatsita, edo pentsamendu orotatik haragoko sorgortasunean murgildurik bizi dela, ez irrikarik ez ametsik geratzen ez zaionaren nirvana soraio batean.

– Iritsi gara –esan du taxilariak.

Vis à vis familiarra lortu du, ume eta guzti Josurengana joateko. Gela batean, barroterik eta hesirik gabe, aita-semeek elkar ikusi, ukitu, usaindu ahal izateko. Eta berak ere hitz egin behar du Josurekin, haurrarekin zer egin erabakitzeko. Bera da aita legezko eta guraso bakarra, patria potestas-aren jabea baina semearen eguneroko martxan ezer egin ezin dezakeena. Hori konpontzeko egon da abokatu, epaitegi eta abarretan, zer-nola egin beharko liratekeen paperak. Anaiaren onespena behar du orain, eta horretara doa.

«Zeuk egin behar al duzu umearen kargu?», galdetu dio aitarena egiten duen barne-ahots batek.

Hegazkin-txartela hartu du, errepideko bidaia umearentzat gogorregia izango delakoan: mila kilometro pasa joateko eta beste horrenbeste bueltatzeko. Abisu emana diote, aurrez, agiriekin-eta estu jarriz gero ez diotela hegazkinean sartzen utziko: azken batean bera ez da umearen ama, ez legezko arduraduna, ez ezer. Alabaina, aurrera egitea erabaki du, zortea ere noizbait alde izango duelakoan.

«Neskazahartu eta gero hasiko haiz orain amarena egiten?», agiraka egin dio amak.

Hondarribitik Madrilera eta handik Almeriara, uste baino erosoago egin zaio bidaia, ez merkea ordea. Etxera itzuli denetik, bata dela bestea dela, dirua parrastaka joan zaiola ohartzen da, eta, oraindik kontu korrontea gorriz ez badu ere, ezingo duela betiko horrela iraun.

«Bruselara itzuli behar duzu, hemen dago zeure tokia», esan dio Lolak.

«Nire umea Bruselara?», Eguzkiñek izututa.

«Ezta pentsatu ere», Josuren sententzia.

Ahal duena baino ardura handiagoa hartzera ote doan galdetzen dio Mertxek bere buruari, bere barne-ahotsei halakorik onartuko ez liekeen arren. Almeriako aireportuan dago orain, maleta ekarriko dion zintaren aurrean zain, umeari pardela aldatzeko leku egokirik topatuko ote duen pentsatzen.

«Ze obligazio duzu ba ume hau jasotzeko?», Lola sartu zaio, nahi ezta.

«Obligaziorik batere ez –erantzun du Mertxek–. Neuk nahi dudalako egingo dut».

«Orain dela gutxi arte ez zenuen ezagutu ere egiten eta!»

«Eta zer?»

«Zoriaren eskuetan utzi duzula zure bizia. Txiriparen erabakiaren mende».

«Halaxe dago beti gure bizia. Pentsa, amari zer gertatu zitzaion».

«Hori ez zen txiripa izan, gaizki gidatzearen ondorioa baizik».

«Aizu, aizu», tartekatu da ama haserre.

«Ez da trafiko-arazoa, sakabanaketaren ondorioa baizik», erantsi du Eguzkiñek.

«Gobernuaren krimen planifikatua», Josuk ondotik.

Gobernuaren hotela aireportutik bertan dagoela jakinarazi zioten abiatu aurretik, beraz ez uzteko taxistei ziria sartzen. Taxizale jatorra tokatu zaio ordea, espetxea hortxe bistan dutela ohartarazi diona, eta hala ere berriketarako astia hartu duena: «Senarra bisitatzera?», galdetu dio, Mertxeri errespetuzkoa iruditu zaion andaluziar doinuz, eta baietz erantzun dio, erantzun luzeagoetarako gogo barik.

– Adur txarra izan du ume honek gero –segitu du taxizaleak–. Aita giltzapean edukitzea ere...

– Hala ere, ez zaio faltako nork zaindu –erantzun du Mertxek harro.

Eta harrotasun horrekin atera da taxitik, parean tokatuko zaizkion ate morroilodun guztiak gainditzeko eta aurrerantzean agertuko zaizkion zailtasun guztiei aurre egiteko asmo sendoz, bere artean esanez oraintxe hasten dela bere bizitzako garairik onena.

Eta onena ez bada, bai behintzat bizitzeko daukan bakarra.

2007-2008